

Allik gezurtatu egin du bere «zuzenketa» politikoa presioen ondorioz egin zuenik /6

Garaikoetxeak ETAri armak uzteko esan ziola ulertu du Caño EAEko kontseilariak /7

Michel Marty: «zerbait grabea da idaztea, ez hiltzea esan nahi bait du» /26

EUSKALDUNON

Egunkaria

Asteartea, 1991ko irailak 10 / II. urtea / 236. zenbakia / Salneurria: 75 pta. / 4,5 libera

ZINEMA

Palestinar zikloa Donostian ikusgai

'Noce en Galilée' filmeak zabaldu zuen atzo Donostian zinemagintza palestinarrari eskainitako zinema zikloa. Gaurtik eta ostirala arte, Okendo kultur etxean beste lau pelikula ikus ahal izango dira. / 23

Sindikatuek ez dute Acenor enpresako espedientea onartu

Acenorreko sindikatuek aho batez bota zuten atzera altzairu berezien enpresako zuzendaritzak ezarri nahi duen sei hilabeteko enplegu erregulazio espedientea. Gasteizko Gobernuko Lan Sailak espedientea onartzen badu, Acenorreko bost lantegietako 3.500 langileetatik 3.100engan eragina izango luke neurri honek. UGT, CCOO eta ELAk plangintza estrategikoa negoziatzea exigitu dute espedientea onartu aurretik. / 12

Lurraldea hizketan hasiko da akordio bila alderdiekin

Gipuzkoako Batzar Nagusietako alderdi guztiekin kontaktuetan hasiko da egunotan Lurraldea koordinakundea. Galdosekin akordatutako A-4 trazaketak aurrera egin dezan, aukera guztiak agortuko ditu Lurraldeak. Gaur bilduko da Gipuzkoako Diputazio kontseilua Ramos Hidalgoren ordezko enpresaren afera erabakitzeko. Aurreko bi kontseiluetan atzeratu egin dute erabakia. / 5

Industria arloak egoera larria bizi du Durangaldean

Durangaldeak, industria arloan bizi duen egoera oso larria dela salatu dute ELA, CCOO eta UGT sindikatuek. Sindikatuek administrazioen «utzikeria» salatu eta protesta ekintzak iragarri dituzte. Ostegunean, adibidez, manifestaldia izango da Durangon. Azken hilabeteetan, 375 lanpostu galdu dira Durangaldean, eta 1.300 daude erregulazio motaren batekin. / 13

Manifestari mazedoniarrak erreferendumeko emaitza ospatzen Skopje hiriburuan. OLEG POPOV

Jugoslaviatik bereiztea erabaki du Mazedoniak

Independentzia erreferendumak tentsiogune berria piztu du Balkanetan

Igandean eginiko erreferendumaren ondoren, Mazedoniak Jugoslaviatik bereiztea erabaki du eta horrela Jugoslaviako Federaziotik irten nahi duen hirugarren errepublika bihurtu da. Boto guztiak zenbatu gabe bazeuden ere, jadanik emaitza ziurtzat jo daiteke, independentziarena, botoen % 74,17 lortu bait du baietzak.

Eslovenia eta Kroaziaren atzetik hirugarren Errepublika independiente bihurtu arren, zaila izango du Mazedoniak independentziaz aske gozatzea. Serbia, Bulgaria, Grezia eta Albaniak subiranotasuna lortu duen errepublika honetan interesak jarriak dituzte.

Albaniak lurralde mazedoniarreko zati bat eskatzen du, bertoko gutxiengo albaniarra (biztanlegoaren % 30) bizi dena hain zuzen. Albaniarren lurraldean ezetza nagusitu zen bozketan. Mazedoniaren independentziak gehiago nahaspilatu du Jugoslaviaren etorkizuna, eta dagoeneko bertoko serbiarrak Federaziotik ez bereizteko borrokan egiteko prest daude. Kroaziako gerra, bitartean, zertxobait baretu zen atzo. / 16

Tadjikistanek ere independentzia aldarrikatu du Soviet Batasunean

Soviet Batasuneko beste errepublika batek, Tadjikistan-ek, atzo aldarrikatu zuen bere independentzia, Legebiltzarrean egindako pleno berezian ebazpen bat onartu ondoren. Ebazpen honek zioenez, Tadjikistan eskubidezko estatu subirano eta demokratikoa zen. 'Interfax' agentziak aditzera eman zuenez, Tadjikistaneko Legebiltzarrak irailaren 9an Independentziaren Eguna ospatzea erabaki zuen. Dagoeneko Soviet Batasuneko hamabost errepubliketatik hamaika independentziaren alde azaldu dira.

Tadjikistan Ertasiako errepublika musulmana da. Errepublikan 5.112.000 lagun bizi badira, 3 milioi inguru tadjikak dira eta biztanlegoaren % 23 uzbekak. SESBeko hiriburuan, berriz, Europako Kooperazio eta Segurtasun Kontseiluko eta Baltiko errepubliketako Atzerri ministroak bildu ziren giza eskubide eta estatu demokratikoen finkapenaz hitzegiteko. / 17

Independentziaren aldeko mozioak kritikatu ditu EAJk

Joseba Egibar EAJko eledunarentzat, bide okerra da, independentziaren alde udaletxeetan mozioak aurkeztea. HBk proposatu eta EAren laguntzaz Bermeo, Oiartzun eta Etxarrin onartutako mozioak «esperimentutzat» jo zituen eta mozio hauek aurkeztea oso epe laburreko taktika dela esan zuen. Mozio hauen onarpena dela eta, EA HBrengana hurbildu nahian dabilela uste du Egibarrek, «azkenaldian makalduta bait zeukan hurbilketa». Atzo Bilbon ospatutako EBBko bilerako tarte batean esan zuen, aldarrikatzen direnak «planteamendu hutsak direla, benetako Euskadi batean ez dagoelako herri planteamendurako formulaziorik». / 5

Elkarte autonomo ez historikoak nazionalisten aurka

Espainiako elkarte ez historikoek autonomien arteko berdintasuna eta konpetentzi gehiago eskatu dute hitzarmen autonomikoaren aurrean. Beren ustez EAEk eta Kataluniak dituzten pribilegio eta aberastasunak denen artean banatzea exigitu dute. Juan Carlos Rodriguez Ibarra Extremadurako lehendakaria eta Alejandro Rojas Marcos Sevillako alkatea dira kexutsuen ageri direnetakoak. Lehenak «autonomi pobreek ahotsa altxatzea» eskatu du. Espainiaren batasunaren inguruko polemikak bizi bizirik dirau bihar ospatuko den Kataluniako Diada egunaren bezperetan. / 14-15

BESTERIK

GIZARTEA

Ikastolen eta Hezkuntza Sailaren akordioa gaur zehaztuko da / 8

EKONOMIA

Zuberoan Komunikazio Zentrua irekiko da / 12

KIROLA

Volta a Catalunya gaur erabakiko da erlojupeko etapan / 22

Askapen faltsua

JEAN LOUIS DAVANT

EUSKADIREN izenean alkar hil dute bi gaztek. Irlandaren bide galgarria hartzen dugu euskaldunok. Duela laster 70 urte, hego Irlandak barneko autonomia ardietsi zuenean, gerla zibilean sartu ziren, batetik autonomiarekin konformatzen zirenak, bestetik independentziaren aldekoak. Ondorioa zer izan zen badakigu: sasi askapen bat baizik ez du ezagutu hego Irlandak, nahiz independentzia lortua duen geroztik. Elitea galdurik, bere hizkuntzari uko egin dio, inglesez mintzo da. Ekonomian ere, Inglaterraren azpiko dago beti. Eta politikan, ez balego bezala. Hots, objektiboki, Inglaterrako erreinuaren kolonia bat baizik ez da Eireko errepublika. Eta ipar aldea bere gisa uzten du, are txarragoa den egoera batean.

Horrelako etorkizun hilkorra iragartzen ahal diogu Euskal Herriari, baldin gaurko bide galgarriari ez badiogu bertan amaiera emaiten. Bizitzekotan, bide bakar bat dugu: Abadia eta Xahorena. Iduriz alkar hastiatu behar zuketelarik, alkarrekin lan egin zuten Abadia Zuriak eta Xaho gorriak. Noizbait horrela egin beharko dugu batzuek eta besteak. Orain hobe, Euskal Herririk badeno.

Botere guztiak eskuinekoak dira

J.VELEZ DE MENDIZABAL

AURTENGO udako egun sargoritsuetan, gorputz eta izpirituari ezer gutxirako gogorik geratzen zitzaiela, ekialdetik heldutako lurrikara-oihartzunak astindu gintuen bortizki. Ez dakit zeinek esan zuen Abuztua buruhausterik gabeko hila zena. Ez zuen asmatu, ez halafede!, azken bi urtetakoei bagagozkie behintzat. Baina, ziurrenik, horrek ez ditu gure politikoak arduratuko... ordu extrak egiten ohituta bait daude.

Marxismoa oraindik baliagarria den ala ez eztabaidatzea, mundu osoko alderdi komunistak sozialdemokrata bihurtu behar ote diren ala ez baieztatzea, europar estatu libreek (?) baltikar errepublikak beranduegi onetsi zituztela salatzea, Errusiak bere mugak aldatuko ote dituen ala ez aztertzea... guzti hori aipatutako lurrikara politikoak zerbitzatu dizkigun kolore askotako arloak dira. Aldaezintasunaren teoria lurreratu da, berriz ere, gizakiak —zerbait izatekotan— aldakor bait dira. Baina, kontuz!, ba da salbuespen bat horren kontra beti agertu dena: boterean ezarritako gizabanako higiezina. Aldagaiztasuna fatalismoaren sinonimoa izanik, gizakia behin agintaritzara iritsiz gero fatalista bilakatzen da: hilezkortasunaren grazia izan dela altxatua dirudi.

Yeltsin, Gorbachov, Bush, Castro, Deng Xiaoping, Ardanza... eskuineko politikoak ditugu agintean daudelako. Eta baieztapen hori argi froga daiteke, emaitza zuzenetan ezezik haiek errealitate objektibotzat hartzen dituzten ideietan ere. Gaurreguneko jeinuak beherantzeko aldapan kokatzen dira, gaurrez geroztik munduko ibilaldiaren erantzunkina euren eskuetatik pasatzen dela pentsatzen hasten diren unean bertan. Paradoxa soziologikoak gizadia bi multzotan banatzera garamatza: masa haundia, azpikoa, alde batetik eta zartakina kirtenetik eusten duten pribiligiatuak, bestetik. Azken horiek ez dute, jakina, beren egoera aldagai.

Bere oporretatik zizko eginda etxeratu zen Xabier Mendiagak ziostan bezala, «besteen akatsen gaineko espekulazioa agintariengan amaitzen da; horien estiloaz apusturik egin beharko bagenu, beti garaile».

HEMEROTEKA

•DEIA

Nazionalismoaren eskakizunak

Euzkadik bere independentzia deklaratuko balu, Espainiak horren kontra armada erabiltzea onartezina litzateke, baita ere Europako Komunitateko estatu guztientzat, nahiz eta momentuz inongo banatzearen aurka egon, Europako Komunitate Ekonomikoaren egoera narriotua eta konplexua gaiztotu baino ez bait luke egingo. Ezin dugu Euzkadiren independentzia argudiatu armadak eragindako beldurragatik, duela gutxira arte horren erantzuna errealitate izango zena. 'Historiaren egiak' ere jasotzen du. Kanpo Arazoetarako ministroak, gobernuburuak eta Armadako Estatu Nagusiak jakin behar dute hori, Konstituzioak besterik badio ere.

J.R. SCHEIFLER / 1991-IX-9

•egin

Pil pilean

Euskadiren 'Independentzia' eskatzen duten Udalak badira dagoeneko. Eta Catalunyara ere iritsi da itsaskia. (...)

Gidoiak koarteletako ahotsa ere jaso du, eta EAJk horri erronka egin nahiago izan du, independentziaren gaiari aurpegi eman baino.

Aldaratzea, hala ere, EAren eskutik etorri da. Alderdi hori, ez da urtebete izango, autodeterminazio eskubidearen bertsio bihurrira makurtu zen mantso, Gasteizko Legebiltzarrean aurkezteko asmoz, eta orain ordea, momentuz Udaletan HBk bultzatutako iniziatibatara gehitzen da.

J. IRATZAR / 1991-IX-9

PERIDIS / EL PAIS / 91-IX-9

•ABC

Eztabaida baino gehiago

Independentistek beldurra galdu dute, arrazoi historikoaren jabe sentitzen dira eta oso ondo baliatzen dira, SESBtik banatutako herrialdeen onarpenari dagokionean, gure politikariak Mendebalekoen atzetik joate horretaz. Baliatze hori erabatekoa izango da 'amankomuneko kanpo politikak' dauden Estatutik banatzeko orduan, Kroazia edo Eslovenia onartutakoan Baltikoko nazioek baino titulu historiko gutxiagorekin. (...)

Bitartean ETAk eskuak igurtzen ditu. Ez du armak utzi beharrik, Garaikoetxeak gogorarazten dion modura, munduartean jazotzen ari diren gertaeren oinordeko eta onuradun sentitzeko. Arzalluzek berak, beldurgabe onartu du ezin dela ETA kondenatu armak erabiltzeagatik, baliabide berdinekin lortuko litzatekeen Kroaziaren independentzia onartzen bada.

L.CONTRERAS / 1991-IX-9

•EL MUNDO

Aldaketak

El Mundo egunkariak autodeterminazio eskubidea onartu arren ez da Euskadi edo Kataluniako independentziaren aldekoa, banatzen direnentzat eta banatzea uzten dienentzat kaltegarria izateaz gain, egite anakronikoa litzatekeelako —eta premiarik gabekoa— martxan dagoen Europako eraikuntza prozesuarentzat Aurki instantzia supraestatalak izango dira bere gain hartuko dituztenak, kontinente osoaren konpetentziak eta baita ere hasiera batean Estatu Espainoleko Gobernu federalaren esku izango diren ekonomi, defentsa eta kanpo politika arazoak. Alderdi nazionalisten eta beren hauteslegoaren jarrera politikoa eta soziologikoa zorrotz azterturik, ziur gaude gainontzeko alderdien aldetik hitz egin nahi ez izateak Katalunian nahiz Euskadin jarrera bereizleak areagotzea baino ez lukeela egingo.

EDITORIALA / 1991-IX-9

ZUZENDARIARI

D.Amundaraini

D.Amundarainek EGUNKARIAn (91-VIII-28an) aireratutako erantzuna dut gogoan. Bertatik bi pentsakizun jaulkitzen zaizkit.

Baga. Ikusi nahi nituzke aipatu kalifikazio fitxa horiek, bertatik ondorio bitxi ugari atera daitekeelakoan bainaiz. Horien artean behinena: EGAk eskatzen duen maila linguistiko bereko azterketa jarriko balitzaio egun bere lanean inongo konplejurik gabe ari den inguruko erdalerrietako funtzionario zenbaiti seguru naiz larri lebilkeela berau gainditzeko.

Eta biga, gaitasunari buruzkoa. Ez dakit inoiz ikusi ote duzun liburu dendetan maiz aurki daitekeen liburuska famatua: «Cómo superar con éxito un test sicológico». Ez al da egungo euskaltegietan halako formulatxo andana ematen ditxosozko azterketa arrakastaz gainditzeko?

Hizkuntz irakaskuntzaren teoria potoloak alde batera utzita goazen kasu praktikoak ikustera: Eukene Txintxurreta, 17 urteko neska euskadunari, BBB-ko 3. mailan ari dena, EGA titulua ateratzeko gogoa piztu zaio. Dirudienez lana aurkitzeko, zenbait arlotan, behar omen. Etxean euskaraz jarduten du, kalean lagun batzurekin, ere bai. Ikasketak normaltasun osoz euskaraz egin ditu. Eta halako hatua soinean daramala aurkezten da. Bazuen berak gauza zaila eta katramilatsua zeneko susmoa, horregatik idazlanean eta inoiz erabiliko ez lituzkeen aditz forma kuriosoak, tradizio zaharrari ostutako sintetiko paregabeak eta abar sartzen saiatzen da. Alperrik, Eukene, zoritxarrez ez da euskaltegitik pasa, beraz ez du berridazketa borobilak egiten ikasi eta beste guztia ondo egin arren hankamotz geratu zaio azterketa. Jokoa zein den ikasi du, hurrengoan, udako murgiltze sistema paregabeari esker berridazketa zoragarriak egiten aritu ondoren erabateko konfidantzaz aurkeztu eta gaindituko ahal du!

Eta hasierako galderara bueltatzen gara: EGAn zein motatako gaitasun neurtzen da?

PATXI GUZUR IBARRA

PERTSONAIA

Libia

Kontxako estropek ziraden atzo
ez zen festa bat Ulian
lau untzientzat zegon borroka
nor gehiagokan aldia
diferentzirik ez zen irteeran
norena hobe taldia
San Pedro jaun da jabia
koadrila ona ta trebia
(BIS) estropa irabazi markak hautsi
hori da abildadia
gora Aita Manuelen semeak
ta gora zuen Libia.

EUSEBIO LASARTE

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE
Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI
Kontseilari Ordezkaria: JOXE MIEL ZUMALABE
Gerentea: INMA GOMILA

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA
Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI, LUZIEN ETXEZAHARRETA, IÑAKI URIA
Publizitatea: KORNELIO ROTETA

EUSKALDUNON Egunkaria
Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK
Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11

Begoña, borrokan dirauzu

«EGUNGO garaiak ez dira politak, baina nik politak bihurtzen ditut. Hori izan bait da hartu dudan erabakia. Buru-belarri sarturik nagoelako nire ustez egin behar dudanetan eta pozik nagoelako egiten ari naizenarekin».

«Zoriontsu naiz egiten ari naizenarekin. Jabetzen naiz arriskuaz, erabat, baina neure bizitza nirea izateari utzi diola konturatu naiz. Orain nire bizitza bigarren mailan dago, lehentasuna borrokari ematen diot, hemengo herrialde hauek beste herriek eragindako txikizioak sufritzeari utzi diezaioten».

«Nik ezin dut esan 'lurralde hau ez da nirea' delako hura, ezta ere 'borroka hau ez da nirea'. Nola ba ez da izango nirea? Borrokak ez du mugarik. Injustizia dagoen lekuan, bertatik borrokatu egin behar da». Hitz horiek bidali zure familiari bidalitakoak dira El Salvadorko barnekaldera joan aurretik, pozez eta solidaritatez beterik, besteei bizitasuna emateko gogo handiz. Hala ere, bala batzuk zenuen ametsa eten egin zizuten, oso gogorra izan zen guztiontzat, modu batean edo bestean hemendik zure bideari jarraitzen ahalegintzen ginenontzat, oso gogorra izan zen zure gorpua Tutera, Tafalla eta Iruñera iritsi zenean. Hasierako omenaldian negarrez ginen, inpotentzia eta amorruz beterik, eta esan genezakeen gauza bakarra, zure urratsei jarraitzen ahaleginduko ginela zen, bakoitza bere eran.

Geroago, autopsian eta horren ondoren Madrileko Auzitegiko Anatomi Ikertegian egiztatu zen guztiok somatzen genuena: garrondora eta bularezurrera botatako tiroek hil zintuzten, biak oso gertutik botatakoak; besondo eta izterretan lau zulo zenituen, zerbait zorrotzarekin eginda, eta bazenuen ere zulo bat izterrean, gerriko hezur-krakoa eragin zuena. Ordurako ez genuen negarrik egiten, baina amorrua eta inpotentzia areagotu zitzaizkigun.

Hurrengo egunean Garesera joan ginen, eta bertan nahiko gente batu ginen. Han ginenak ez ginen zuri agur esateko bildu, ez zintuztela hil esateko baizik, gure borrokan bizirik zeundela artean, injustiziaren aurka borrokatu diren beste hildako hainbat gizon eta emakume bezala, bihotz barnean zaituztegu.

Omenaldia xumea eta polita izan zen, zuri gustatuko zitzaizukeen modukoa. Ondoren kanposantura joan ginen eta han Eusko Gudariak eta Internazionala abestu eta gero etxeratu ginen triste baina aldi berean pozik, bizitasunez bete bait gintuzun.

El Salvador, herri txiki baina hain bihoztun den horretara hurbildu gintuzun, hamaika urte gerran dagoen herri horretara, larogei mila hildako, hamar mila desagertutako eta milaka zauritu eta elbarritu izan dituena.

Haiek utzi zenituenetik hainbat gertaera izan dira, nekazariak, langileak, borrokako buruzagiak, beren seme-alaben bila dauden amak... hiltzen, torturatzen, desagertarazten eta espetxeratzen segitzen dute, armadak eta heriotz eskuadroiak. Eta hori guztia, gizarte bidezkoago eta berdinduagoaren bila ibiltzeagatik, bakearen alde borrokatzeagatik.

Hilketen zerrenda luze horretan zenbait internazionalistena ere aipatu egin behar da, halaber Marta Gonzalezena gogora ekarri nahi dizut, oroitzen al zara?, Nikaraguan, El Salvadorreko ospitalean elkarrekin egiten zenuten lana. Zenbat ordu iragan zenuten hemengo eta hango borrokaz hitzegiten, matxismoaz, ekarpen berriez, pasialdiak, eztabaidak, zenbat ordu elkarrekin! Zuk El Salvadorreko burkideekin joatea erabaki zenuenean, berak ausartzen ez zela, ez zegoela prestaturik artean zioen. Zuk alde egiterakoan, bera El Salvadorreko inguru marginaletara joan zen lan egitera eta erori zinenean, zu bezala inpotentziaz beterik, bizitasuna emateko gogoarekin, zure izena, 'Begoña' hartu zuen ezizenez eta zure urratsei jarraiki mendira egin zuen burkideekin. Laburra baina sakona izan zen bertan egin zuen egonaldia. Abenduaren 24ean, Gabon Gaua ospatzen zeudela armadak, zeuden kanpamenduari eraso egin zion eta bizitza galdu zuen. Urte gogorra izan zen hura, eta zuen lekua beteko duenik aurkitzen zaila da, baina bizitzak aurrera egiten du eta borroka ere aurrera doa. El Salvadorreko borroka horrek amerikar Inperialismoari ikustarazi dio gerra ez dela konponbidea, herri oso baten borrokak ez duela atzera egingo armetan milioika dolar gastatu arren, konponbidea negoziaketa dela ikustarazi dio. Arazoan parte hartzen duten bi aldeen (Gobernua-Armada eta FMLN) prozesu negoziatzailea duela urte batzuk hasi zen eta aurten jauzi kualitatibo garrantzitsua izan du, NBEren (Nazio Batuen Erakundearen) bitartez. Suetena hurbil dagoela dirudi. Hala ere, Armadako eta ultra-eskuindarreko zenbait sektorek horretarako trabak eta oztopoak baino ez dituzte jartzen, horrenbesteko sarraskien eragileak epaiturik izatea nahi ez dutelako. Hilketa horien artean aipa ditzakegu Monsiñore Romerorena, Jesuitena, Begoñarena, Martarena...Horrela bada, konponbidea ez da erraza eta burkideei beste saio negoziatzaile serioa edota duten indarraren froga erakutsi baino beste aukerarik ez diete uzten.

Hemendik, Euskal Herritik bakea, Gizarte Justiziarekin batera aurki izango direlakoan gaude eta hil zintuztenek jakin bezate ezingo dutela atsedenik izan, zenuen Justizi ametsa ez bait da desagertuko.

Datorren asteartean, hilaren hamarrean eta arratsaldeko zortzietan Gareseko kanposantuan elkartuko gara, gizon eta emakume borrokalari, solidario eta internazionalistak, zure omenean eta oroitzapenean.

Begoña ez zaitugu ahazten. El Salvador elkartasuna.

PEIO GOYACHE
MEDIKU INTERNAZIONALISTA ETA ASKAPENAKO MILITANTEA
*Erredazioan itzulia

Euskal Herria ez da berdina

BADU HILABETE parrasta bat aipu zela, abiatua zela. Gauzatua da orai: Lituania erresuma independiente bat da. Suedia eta Norbegia bezelako erresuma ttipi batzutaz besterik izan da erresuma berria onartzeko. Hor dira Europako erresumak, Ameriketako Estadu batuak: Txina bera, egia erran Sobiet Batasunak berak onartu ondoan, hortaratu arte nekez erran baitzitekeen Lituania zinez libre zela.

Bainan badakigu, aski erran digute, Lituaniaren kasua ez dela berdina. Ez daitekeela Euskal Herriari, ez Kataluñari konpara. Gu, aspalditik gaude Frantzia eta Espainiaren meneko. Lituania aldiz, joan den gerla ondoan zuen beretua Sobiet Batasunak.

Erraten ez digutena, 1919an lortu independentzia zuela galdu Lituaniak 1946an. 1919 arte, batean Poloniar, bestean Erruso edo Pruziar, ez zelarik bizpahiru zatitan, bizi izan da Lituania... 1386an Polonia eta Lituania errege beraren meneko izan zirenetik (Baxe Nabarre eta Frantziarena 1530koa da!). 24 tomotako Larrouse zahar batetan irakurtu dugu, «Poloniar ez direnak, alemantzen edo erru-sotzen ari dira; gero eta gehiago arrotz dira elgarrentzat Lituaniarrak»!.

Historioak erakusten digu, Lituaniak baino askoz ere berantago galdu duela bere independentzia Euskal Herriak eta bien arteko diferentzia hauxe da: guk dugula ttantto gehienik eskutan alde horretatik, eta ez haiek, denek sinets arazi nahi liguketen bezela.

Ukraniaren kasua. Beha diezaiogun orain Ukraniari. Ostopoa ekonomian dauka: Ukraniaren laborantza beharrezkoa zaio Sobiet Batasunari. Nik beti entzun dut Japoniaren xantza dela laborantxarik ez izatea, beste herrialdeek subvenzionatu laborantxarik bizi baita. Europaren traba haundienetarik, bere laborantza, diru asko jaten baitio. Bainan kurioski Sobiet Batasunaren kasuan ez da horrela...

Arrazo berezi bat badauka Ukraniak: bere 52 milioi jendeetarik 11 Errusoak direla. Nola bizi liteke horrelako minoria bat Ukrania independientean, diote? Nago, nola bizi izan diren 41 milioi Ukraniar, oro har 11 milioi Errusiarren meneko, 83 urtez! Bitxi da zer kezkak sor arazten dituzten minoriek... kasu batzutan!

Beste bitxikeria bat: Ukraniak badu ordezkari bat Nazio Batuen Erakundean, Espainia edo Frantziak bezela. Nik uste nuen estado independienteek dituztela ordezkariak Nazio Batuen Erakundean. Iduriz ez, eta nehork ez dit oraindik esplikatu zer den Nazio Batuen partaide den herrialde ez-independiente hori.

Nehork ez du aipatzen Ukraniari izaite historiko edo nortasuna falta zaizkionik. Noizkoa ote du bere independentzia Ukraniak? 1918koa! Ordu arte Ukraniako lurrak Errusia, Polonia, Autrixia, Hungria edo... Lituaniaren artean zatikatuak izan dira! Euskal Herria Frantzia eta Espainiaren artean bezela. Eta denek normal hatxemaiten dute Ukrania independiente bilaka dadien historiorik gabe, batere autodeterminaziorik ere gabe! Aitor dezagun halere, Lituania, Ukrania eta beste ez daitezkeela Euskal Herriari konpara. Diferentzia ez da historia, nortasun edo ekonomiatik aldetik heldu. Diferentzia, politika gizonetarik dator. EA, EAJ, EE eta HBko buru handi guztiek aho batez erran balezate autodeterminatu behar dugula, guk ere baginuke eskubide hori. Ez erran herriaren gehiengoa ez dagoela bat idaia horrekin. Sobiet Batasuneko herriak ez zuen Gorbatxevik nahi, Gorbatxev boterean sartuz geroz, gero eta gutiago jaten baitute. Bainan estado kolpeak huts egin du, zenbeit oldartu direlakotz eta herriaren parte bat jarraiki zaielakotz. Gero, ondotik etorri dira besteak, haizea norat zihoan ikusi eta.

Ukrania, Lituania, Georgia eta bestetan gizon politikoak dira xutitu, mintzatu eta herria jarraiki zaie. Ipar ala hego Euskal Herrian, gizon politikoak guti mintzo dira egun hauetan. Mintzo direlarik, zonbat ez dira «arreka» ari, Oihanetxezaharreka asto zaharra bezela! Mozkuko aparatxikak duela zenbeit egun bezela, haizea norat zihoan senditua ez zutelarik. Non dira orain? Alderdiaren eta ez Herriaren zerbitzuko ziren!

XIPRI ARBELBIDE
KAZETARIA

BERRIAK ZIRI

F.FERNANDEZ ORDOÑEZ
Espainiako Kanpo Arazoetarako ministroa
EL PAIS
1991-IX-9

«Euskal eta kataluniar politikariek badakite independentziak Europako Komunitatetik eta NATO erakundetik irtetzea suposatuko lukeela»

ANGEL COLOM
Esquerra Republicana de Catalunyako idazkari nagusia
DIARIO 16
1991-IX-9

«Kataluniako Parlamentuan Jordi Pujolek Kataluniaren independentzia aldarrikatu behar du, edo bestela isilik egon»

VITAUTAS LANDSBERGIS
Lituaniako Lehendakaria
EL SOL
1991-IX-9

«Nazionalismoek gertaeren norabidean eragina izango dute eta Europako garapen politikoa egituratuko dute»



JOSE AMEDO
Espainiako Poliziako komisariordea
EL DIARIO VASCO
1991-IX-9

«GALek egindako atentatuek ETAren amaieraren hasiera suposatu zuten, beraz atentatu horiei esker hainbat pertsona bizirik dago, beharbada»

ZAKILIXUT

© Olariagak

Independentziaren aldeko mozioak «ez dira bide egokia» EAJren ustez

«Planteamendu hutsak dira aldarrikatzen direnak» adierazi zuen Egibarrek

Joseba Egibar EAJko Euzkadi Buru Batzarreko eledunak «huts egite» eta «bide desegokitzat» jo zuen HBk independentziaren alde hasitako kanpaina eta zenbait udaletxetan EAren laguntzaz aurrera ateratako mozioak. PPren ustez, EA «kontsentsu estatutariotik» hurruntzen ari da.

BILBO

Egibarrek adirazi zuen HBren «epe laburreko» taktika dela kanpaina, «batzuetan EAren laguntzarekin». Hain zuzen ere, Gipuzkoako Oiartzun, Bizkaiko Bermeo eta Nafarroako Etxarri Aranaz herrietan joan den ostiralean independentziaren alde onartu ziren mozioak «hasierako esperimentua» izan zirela baietsi zuen.

Atzo Bilbon burutu zen EBBren bileraren atsedenaldi batean egindako adierazpenetan, Egibarrek esan zuen EA mozio hauekin bat etortzeko arrazoia «HBri hurbiltzea bezalako aldean makalduta zeudela eta», alde hori betetzea izan zen, «eta agian une honetan mozio hauen alde agertzea egoki ikusi dute». Egibarren iritzian, halere, horrela jokatzea «huts egitea» izan zen.

«Alderdi hauek ezin dute independentzia generikoki planteatu eta hortxe geratzea. Aldarrikatzen direnak planteamendu hutsak dira, benetako Euskadi batean ez dagoelako herri planteamendurako formulaziorik», argudiatu zuen EBBko eledunak.

Egibarrek segitu zuen esanez, Europako Ekialdeko nazionalismoaren leherketak Espainiako Gobernua behartu duela «Autonomien Estatuaren diseinuan seriotasun handiagoaz sakontzera». Dena dela buruzagi jeltzaleak ziurtatu zuen Madrileko Gobernuak ez duela oraindik horren «irudirik».

Honi buruz, «urduritasuna erakusten duten kritika batzuk» aipatu zituen, bereziki Euskal Herrian eta Katalunian Europako Ekialdeko gertakizunen ondoren sortu diren eztabaida nazionalistek eragin dituzten kritikei buruz.

Hain zuzen ere, Rosa Conde Madrileko Gobernuko ministro eledunaren eta beste autonomietako buruzagi sozilisten «nagusikeriak eta harrokeriak Autonomien Estatuari buruzko eztabaida serio eta sakona emateko itxura txarra» erakusten dutela gaineratu zuen eledun jeltzaleak.

EAJko Euzkadi Buru Batzarra goizez eta arratsaldez bildu zen atzo Bilbon. EFE

PP: «EA KONTSENTSUTIK URRUNAGO»

Leopoldo Barreda Bizkaiko PP alderdiko presidenteak, Eusko Alkartasuna kontsentsu estatutariotik «urruntzen ari dela» adierazi zuen atzo. «Kontsentsutik egunero urruntzen ari da, herritarren gehiengoak onartzen duen aukeratik» zehaztu zuen.

«EAJrekin lehiatzeko EAk agertzen duen obsesioak EAEk autogobernurako azaltzen duen borondatea, Jugoslavia edo Soviet Batasunean gertatzen denarekin nahastera darama» adierazi zuen PPko parlamentariak. Barredak esan zuenez, EAk EAJrekin duen lehia horretarako, Garaikoetxearen alderdiak HBren laguntza onartu du udaletan, «nahiz eta HB ETA erakundetik milimetro bat ere ez urrundu».

EAren jarrera hau dela eta, Barredak EA Jaurlaritzan egoteak «kalte» egiten diola uste du. «Ez da normala autodeterminazioa indarrean jartzea eskatzen duen alderdi bat autonomia administratzen egotea».

Espainiako Senatua aldatzea beharrezkoa da Juventudes Socialistas-en ustez

BILBO

Espainiako Senatuaren erreforma beharrezkoa dela dio Euskal Autonomi Elkarteko 'Juventudes Socialistas' erakundeak (JJSS) landu berri duen dokumentu batean. Melchor Gil idazkari nagusiak atzo adierazi zuenez, instituzio honek «komunitateen herri ordezkaritza» izan behar du, Kongresuak berriz «Estatuaren herri ordezkaritza».

Aipatutako dokumentua Barcelonara eramango dute, Diada egunean dela eta zenbait ekintzetan parte hartuko bait dute Kataluniako kide sozialistekin batera. Bi erakundeek dokumentu bat egingo dute, Europako prozesu independentistak, eta horrek eragin dituen komentario politikoak aztertzeko.

Espainiako Senatua aldatzeko beharrari buruz, Melchor Gilek adierazi zuen etorkizunean joerak zentzu horretan egingo duela. «Ez dirudi arrazoizkoa administrazioaren aldaketa arinegi baten bila joatea» gaineratu zuen.

«Espainiaren etorkizun autonomikoan konfidantza badago eta ezarritako ordenarekiko leialtasunez jokatuz gero soilik planteatu ahal izango dugu etorkizunean egitura federala» azaldu zuen 'Juventudes Socialistas-eko' idazkari nagusiak.

«Bestalde, uste dut —jarraitu zuen— nazionalistek prozesu hau arriskuan jartzen dutela eta geldierazi ere egiten dutela sistema politikoa zalantzan jartzen duten bitartean».

Autodeterminazioarekiko jarrera aztertu zuen EEko exekutibak

Z.Z. / BILBO

EEko exekutibak alderdi honek autodeterminazioari buruz izan behar duen jarrera eztabaidatu zuen atzo Bilbon, seguruena hilabete honetan bertan bilduko den Biltzar Ttipiari aurkeztuko dion txostena erabakitzeko.

Artikulu hau idazteko unean EEko exekutibak oraindik erabakirik hartu gabe bazuen ere, Jon Larrinaga alderdi honetako idazkari nagusiak atzo bi egunkaritan kaleratutako iritzi artikuluan Espainiako Konstituzioak araututako Estatutuaren bidea defendatu zuen Euskal Herriarentzat eta Europako Ekialdeetako nazionalitateetatik bereizi zuen.

«Bi elementu bereiztzaile daude, —zioen Larrinagak— kualitatiboki garrantzitsuak, Euskadiko etorkizun politikoa baldintzatu eta datozen hamarkadetan Komunitatetik kanpoko Europako nazionalitateek hasitako prozesuetatik ezberdin izatea eragiten dutenak. Prozesu konstituzionalean partehartze aktiboa, demokrazioa eta autonomia Estatu espainiarraren markoan apurka-apurka finkatzea, eta gaur egun astiro baina atzera egin eziznik batasun politikorantz abiatzen den Europa komunitarioko parte izatea».

Ildo horretatik autodeterminazioaren eskakizuna «anakronismoa» dela ziurtatu zuen EEko idazkariak eta «berez, gure herriaren benetako historiarekin zerikusirik ez» duela erantsi zuen.

'Berrikuntza Demokratikoa' sektoreko idazkari nagusiak defendatzen duenaren aurrean, 'Auñamendi' sektoreak «progresorako oinarri» bezala jotzen du autodeterminazioa, korronte bezala eratzeko txosten politikoan agertzen denez.

Halere, Auñamendik ere Euskal Autonomi Elkarteko Estatutuaren baitan kokatzen du autodeterminazioaren muga: «Euskadiko Ezkerrak bere sortze unetik autodeterminazioaren printzipioari eman zion zentzuna, urte askotan aldeko eta aurkako interpretazioekin parekatu eta gero, Eusko Legebiltzarreko bilkurak hartutako ebazpenean amaitu zen. Printzipio eta irakurketa horrek bultzatzen du Euskadiko Ezkerratik eta Auñamenditik defendatzen dugun autogobernurako bidea, gure Autonomia Estatutuaren bidea, alegia».

Fernandez Ordoñez: «Independentziak EK eta NATOtik irtetea esan nahi du»

MADRIL

«Independentziak Europako Elkartetik eta NATOtik irtetea esan nahi du, eta hori euskal eta katalan politikariek badakite», adierazi du Francisco Fernandez Ordoñez, Espainiako Kanpo Arazoetarako ministroak El Pais egunkariak atzo argitara eman zuenez.

«Europako eraikuntzak —gehitu zuen— espazio sinbolikoa gordetzen du elkarte autonomoentzat eta EKren batasun politikoaren proiektuak Erregioen Batzorde bat aurrikusten du, izaera aholkularia duena eta ahalmen binkulanterik gabekoa». Francisco Fernandez Ordoñezek erabateko adierazpenak egin ditu Espainiako Gobernuak gogokoen duen egunkarian, Rosa Conde Gobernu bozeramaleak independentziaren eztabaidan «ezta bi segundu ere» emango zuela esan eta bi egunetara.

Fernandez Ordoñezen uztez, independentzia «hutsera jauzi egitea da edozein aukera europarretik isolaturik gelditzeko». Kanpo Arazoetarako ministroaren hitzak gogorrak izan dira: «Europako Estatu batek ere ez luke onartuko independiente gisa eta eginez gero Estatuak beto eskubidea du Europako elkartean edo NATOn sartu ahal izatea eragozteko».

Independentzia eta autodeterminazioaren inguruko eztabaidak «helburu elektoralistak» ditu eta ez dagokio bide horratatik ibiltzeko erabakiortasunari, Fernandez Ordoñezen ustez.

Espainiako Kanpo Arazoetarako ministrok europar batasun politikoaren proiektua indarrez hartzeko beharra agertu du.

Francisco Fernandez Ordoñez. EFE

Lurraldeak bilerak hasiko ditu Batzar Nagusietako alderdiekin

«Aukera guztiak agortuko ditugu akordioaren onarpena lortzeko»

Gipuzkoako Batzar Nagusietako alderdi politikoekin kontaktuak hasiko ditu hurrengo egunotan Lurraldea koordinakundeak. Galdos-Lurraldea akordioak Batzar Nagusien onarpena lortzeko aukera guztiak agortuko dituela azaldu zuen atzo, eta 'Akordioari Bai' lema duen logotipoa aukeztu zuen.



Lurraldeko partaideak Galdosekiko bileraren irteeran. VILLAGRAN

DONOSTIA

Eli Galdos, diputatu nagusiarekin lortutako akordioaren kontra agertzeko alderdi politikoek dituzten arrazoiak ezagutu nahi ditu Lurraldeak. «Gizartearen gehiengoaren kontsentsua duen akordioak Gipuzkoako Batzar Nagusien onespena izan dezan, aukera guztiak agortzen saiatuko gara» azaldu zuen koordinakundeak.

Abuztuaren 9an lortutako akordioa «itxaropenaren hasiera» dela uste du Lurraldeak, «kontu haundiz eta pazientziaz hartu behar dena irtenbiderako dagoen aukera ez dadin interes partidistengatik itxi». Zentzu honetan, auziari denbora uztearen aldekoa da, «gaiak heldutasuna behar duelako oraindik zenbait exekutiba politikoetan» dio Lurraldeak atzo zabaldutako agirian.

Azken asteotan talde ekologistekin, sindikatuekin, mendi elkarteekin, udaletxekin eta beste zenbait giza agenterekin kontaktuak izan ditu Lurraldeak. Koordinakundeak ondorioztatu duenez, «Gipuzkoako Diputazioak eta Lurraldeak lortutako akordioaren inguruko kontsentsuak gizartearen gehiengoaren onespena du».

«Zorionak alde askotatik jaso ditugu eta kalean alibio eta akordioak dakarren irtenbidearen aldeko jarrera somatu dugu» azaldu du Lurraldeak.

'El Mundo' egunkariak atzoko alean keleratutako informazioari buruz, «hau da bigarren aldia hilabete bate buruan, egunkari honek Lurraldea egiaztasunik ez duen intoxikazio informatibo batekin erlazionatzen duena» erantzuten du koordinakundeak. «Lurraldeak intoxikazio honen iturria ongi ezagutzen du eta eta aurki salatuko du, egoki iruditzen zaio une eta moduan» azaldu zuen atzo.'El Mundok' kaleratu zuenez, ustez Lurraldearen barne agiri baten berri eman zuen atzo. Bertan, autobidearei buruzko negoziaketarako Lurraldeak ETAren parte hartzea espero zuela esaten da.

'AKORDIOARI BAI' LOGOTIPOA

Autobidearen auzia noraino iritsi den ikusita, hilaren 21erako 'Akordioari Bai' lemapean deitu duen manifestazioa erabakiorra izango dela uste du Lurraldeak, «herri honek zenbateraino desio duen akordiozko irtenbidea eta ez enfrentamentuzkoa adierazteko, eta gizarteak nahi duenaren kontra daudenei begiak irekitzeko».

Zentzu honetan, Lurraldeak aurrerantzean erabiliko duen logotipoa aurkeztu zuen, 'Akordioari Bai' lema du eta eguzki bat du marraztua. Hau da mugimendu sozial honek erabiktzen duen hirugarren logotipoa. Lehen etapa autobidearen kontrakoa izan zen, Lurraldearena gero eta akordioarena oraingoa, Lurraldeak berak azaltzen duenez. Hirugarren etapan otsailean sartu zela dio, elkarrizketaren alde egin zen manifestazioaren ostean.

Egun gutxitara beste manifestazio bat egin zen, trazaketa ofizialaren aldekoa, eta horrek bi sentsibilitate desberdin agerian utzi zituela dio Lurraldeak. «Ordutik aurrera, eta ikuspuntu demokratikotik, alternatiba bat bestearen gainetik jartzea ez zen bidezkoa, horregatik Lurraldea kontsentsuzko trazketa bat hasi zen onartzen bere debateetan irtenbide bezala. Etapa berri bat zabaldu dela onartzen dugu, akordioarena» azaldu zuen atzo Lurraldeak komunikabideetara zabaldutako agirian.

EAJk ez dio HBri erabakiaren akatamendua berrestea eskatu

P. URZELAI / **DONOSTIA**

Euzko Alderdi Jeltzaleak ez dio HBri Batzar Nagusietako erabakiaren akatamendua berrestea eskatu, egun hauetan zenbait komunikabideek argitaratutako albistea EAJ eta HB alderdietan gezurtatu dutenez.

Informazio hauen arabera, EAJk eskatu egingo zion HBri abuztuaren 16ko idazkian azaltzen zuen Batzar Nagusien erabakiaren akatamendua berrestea eta horretarako epe bat ere emango zion. Gogoratuko denez, HBk abuztuaren 16an idazki bat eman zuen ezagutzera eta bertan honako hau baiezten zuen: «Interesatuki bultzatu den nahas giro horren aurrean Herri Batasunak argitu nahi du aipatutako akordioa Gipuzkoako Batzar Nagusietan aurkezten bada eztabaidaren eta bozketaren emaitza onartuko du, edozein dela ere». Orduko baieztapen haren berrespena egiteko epea atzo bukatuko zen aipatutako informazioen arabera. EAJn eta HBn ukatu egin dute horrelakorik egon denik.

Joseba Egibar. VILLAGRAN

AKORDIARAKO ASTE ERABAKIORRA

Lurraldea eta Eli Galdosek abuztuaren 9an lortutako adostasunaren etorkizuna une honetan iluna baldin bada ere bai Lurraldean zein EAJn ez dute galdutzat ematen aurreakordioa aurrera eramateko saioa.

Belabietako edo A-4 alternatiba kontsentsuatuak ez du une honetan Batzar Nagusietan aurrera egiteko beharrezko apoioa, PSE-PSOE, EE, EA eta PP (26 boto guztira) kontra azaldu direlako, EAJk eta HBk batzen dituzten botoak (24) ez arauezko proposamena onartzeko nahikoak ez direlarik. Dena dela, egoerari buelta emateko ahaleginak egiten ari dira bi aldeak. Izan ere, EAJk bilera berri bat izango aste honetan PSE-PSOErekin eta Lurraldeak Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkide taldeekin bilerak egiteko gestioak eginak ditu.

Azken ahalegin hauen emaitzen arabera luza daiteke Lurraldea-Galdos aurreakordioaren etorkizunari buruzko erabakiaren epea.

Bestalde, EAJko Euzkadi Buru Batzarrak eta HBko Mahai Nazionalak atzo egin zuten ohizko bilera eta autobidearen arazoaren egoera aztertu ere. Baliteke alderdi bi hauetako goi organuek gai honi buruz erabakirik ez hartzea atzo, gertaera berrien zain eta datorren asteko bilerara arte itxarotea.

Bi alderdi hauek laster batean bildu beharko dute, Belabietako alternatibaren ez arauzko proposamenarekin zer egin aztertzeko, beharrezko apoioak lotuta ala ez. Atzo bilera horren data jarri gabe zegoen.

Autobidea ez da inorentzat errentagarria Alliren ustez

IRUÑEA

Hamar eguneren buruan Nafarroako lehendakari izango den Juan Cruz Alliren ustez, «dagoeneko autobidea ez da errentagarria ez HBrentzat, ezta ETArentzat ere».

UPNkoak egunkari gipuzkoar batean azaldu duenez, Herri Batasunak eta ETAk pentsatu izan zuten hasiera batean Irurtzun-Andoain autobidearen auziak errentagarritasun politikoa eduki zezakeela, Gipuzkoan gehienbat, bazegoelako proiektu ofizialaren kontrako gizarte oposizioa. Gainera, autobidearen auzian sartzea «bat zetorren gizarte mugimenduen gidari izatearen printzipioarekin», Juan Cruz Alliren esanetan.

HB eta ETA ohartu dira autobidea ez dela ezertarako errentagarria Nafarroan eta uste baino gutxiago Gipuzkoan, politikari nafarrak dioenez. Honen iritziz, «HBk eta ETAk konponbide duina nahi zuten autobidearen gatazkarentzat, baino argi dago autobidea ez dela Lemoiz». Allik goraipatu izan du EAJn Lurraldeako ordezkariekin lortu izandako aurreakordioa. Ez da inolako «txantaiarik» egon eta ez da amore eman ETAren indarkeriaren aurrean. UPNkoaren irudiko, «EAJk elkarbizitza politikoa normalizatzeko ahaleginak egin ditu. EAJk bazekien HBko zenbaitzuk erakundeetan parte hartzearen alde zeudela eta horregatik nahi izan du ekimen horren bidez erakundeen aldekoei bultzatzea.

Diputazioak hirugarrenez izango du mahai gainean enpresaren aldaketa

P.U. / **DONOSTIA**

Gipuzkoako Diputazioaren Kontseiluak hirugarrenez izango du mahai gainean gaurko bileran autobideko enpresa adjudikatzailearen aldaketa. Abuztuaren 26an, Ramos Hidalgo S.A. enpresak idazki bat bidali zion Gipuzkoako Diputazioari Construcciones Murias enpresarekin akordio bat lortu zuela esanez eta autobidearen eraikuntzaren lehen fasearen adjudikazioa azkenengo enpresa honi uzteko eskatuz.

Gipuzkoako Diputazioaren Kontseiluak hurrengo eguneko ohizko bileran aztertu zuen Ramos Hidalgo S.A. enpresaren eskaera eta ez zuen erabakirik hartu, PSE-PSOEko foru diputatuek arazoa hobeto aztertzeko denbora gehiago eskatu zutelako.

Astebete pasatu zen eta joan den astearteko bileran berriro aztertu zen gaia baina Diputazioaren Kontseilua berriro erabakirik hartu gabe amaitu zen. Atzerapen guzti hau, PSE-PSOEren jarreratik dator, EAJ, Roman Sodupek adierazi zuen bezala, lehen momentutik aldaketa onartzeko prest zegoelako. PSE-PSOEk ez du kontrapartidarik gabe onartu zesioa eta baldintza batzu jarri dizkio EAJri, hauen artean, kontratua A-2 trazaketa ofiziala betetzeko egina dagoelako baieztapena.

EE-K EGINIKO ESKAERA

Gaur bertan ere Batzar Nagusietako Mahaia bilduko da eta gutxienez hiru eskaera aztertuko ditu. Batetik, Eli Galdos diputatu nagusiak egindakoa. Eli Galdosek Batzar Nagusien osoko bilkuran agertzea esaktu dio Mahaiari, Lurraldearekin gauzatu zen adostasunaren pausuen eta gestioen berri eman asmoz. Roman Sodupe Garraio eta Errepideetako foru diputatuak ere Batzar Nagusien aurrean agertzea eskatu du obraren egoeraz eta aspektu teknikoetaz informatzeko.

Hirugarrenik, Euskadiko Ezkerrako batzardike taldeak beste eskaera hau egin du: Ramos Hidalgo S.A. enpresako zuzendaritzaren eta langileen ordezkariak Batzar Nagusietan agertzea.

EEko herrialdeko batzordearen ustez, Gipuzkoako Diputazioak ez luke erabakirik hartu behar enpresaren aldaketaz, Ramos Hidalgok zesio egiteko izan dituen arrazoiak Batzar Nagusietan argitzen ez diren bitartean.

Patxi Baztarrikak sinatzen duen eskabidean, zesioaren arrazoiak argitzeko beharra azpimarratzen da, «presioek eragindako erabakia» delako zalantzak bait daude.

Juan Cruz Allik gezurtatu egin du zuzenketa presioen ondorio denik

Horrelako «txantaia» inola ere ez lukeela onartuko adierazi du

Asteburuko ixiltasunaren ostean, UPNko Juan Cruz Allik bere burua zuritzeko ahaleginak egin zituen atzo komunikabideen aurrean. Ostiralean kaleratutako adierazpen politikoa «zuzenketa» denik eta presioen ondorioz egin zuenik ukatu egin zuen atzo.

IRUÑEA

Joan den ostiralean aditzera eman zuen deklarazio politikoa bere alderdikideen presiopean egin zuenik ukatu zuen atzo egun gutxi barru Nafarroako lehendakari izango den Juan Cruz Allik.

Presioen hipotesia ezezik, deklarazioa aurretik esandakoen «zuzenketa» denik ere gezurtatu egin zuen UPNko hautagaiak. Bere iritziz, deklarazioan ez zen ezer zuzentzen, baizik eta «gaizki ulertutako zenbait puntu argitzen zirela».

Deklarazio politikoan azaldutakoari eutsiz, irratian esan zuen Allik bere Gobernua «irekia» izango dela eta elkarrizketarako prest egongo dela, baldintza bakar batekin: solaskideek ez dezatela erreferentzi puntu bakar bezala indarkeriarena eduki. Lehendakarigaiak ez zuen argitu Lurraldea koordinakundea maila horretako solaskideen artean sartzen duen ala ez. Izan ere, Lurraldearekin biltzeko konpremezua izan zen ostiraleko deklarazioa eragin duen polemikaren lehen kapituloa.

Herrilan ofizialen kontra azaltzen diren taldeekin elkarrizketatzeko eragozpenik ez duela azpimarratu zuen Allik, «ingurugiroa izango bait



Juan Cruz Alli.

da UPNren Gobernuaren ardatzetako bat».

Jaso dituen ustezko presioei dagokienez, «koakzio onartezina litzateke hori —adierazi zuen UPNkoak—, eta suposatzen dut haiek [ostiral arratsaldeko bileran egon zirenak] badakitela inola ez nukela onartuko tipo horretako txantaiarik, aspalditik ezagutzen naute eta».

Ostiralean egindako bileran PPkide ohi adina UPNkide egon zirela nabarmendu zuen Allik, deklarazioa Del Burgo eta bere jarraitzaileen eragina izan denik gezurtatu nahian.

Bere esanetan, «azkenaldian egindako adierazpenekin errealitate aldakorrera moldatu beharra dagoela eta inmobilismoan ezin dugula gelditu azaldu nahi zian dut».

PSOEk iragarritako oposizio «tinkoari» buruz, esan zuen lehendakarigaiak sozialistek ere jarreraz aldatuko dutela eta «bestela, nafarren aurrean erantzun beharko dute, horiek izango direlako kaltetuenak». UPNren Gobernua oztopatzen badute, ixilik ez direla geldituko aurreratu zuen Allik «eta hitzekin beraiek bezain maltzurrak izan gaitezkeela erakutsiko diegu».

PP-KOEKIN BILERA GAUR

Alliren adierazpenak ezezik, berak nahi duen Gobernuaren osaketa ere polemikoa ari da gertatzen. Ezagutzera eman diren izenen artean, bakarra da PPkoa izandakoa eta horrek haserrea piztu du Del Burgoren gizonen artean, UPN-PP fusioa hitzartu zutenean, kargu publikoen herena PPkoak izango zirelakoan gelditu bait ziren.

Gai horretaz negoziatzeko bilera egingo dute gaur Madrilen Juan Cruz Allik eta PPko burukideek eta UPNkoak ziurtzat jo zuen atzo ados jarriko direla.

Espainiak bere baitan dituen nazioen autodeterminazio eskubidea dela eta, egunotan dabilen polemikaz ere bazuen zer esana Allik. Bere iritziz, PPrekin PSOErekin baino hobeto ibiliko dira nazionalistak.

Independentziaren bila dabilen autodeterminazioak «zentzurik ez duela» ziurtatu zuen Allik, «bai ordea autodeterminazio deskafeinatuak, hau da, proiektu politiko propioaren onarpena nahi dutenen autodeterminazioak. EAEkoek nahi badute frogatu ez direla Extremadura, bere historia eta nortasuna dutelako, ez dago arazorik, Estatuak hori onar dezake, agian ez egungo eredu deszentralizatuan, baina bai eredu federalean».

Errenteriakoaren atzetik Donostia eta Irungo komisaldegiak zabalduko dituzte.

Ertzaintzak hil honetan irekiko du Errenteriako komisaldegia

DONOSTIA

Ertzaintzak Errenterian zabalduko duen komisaldegia Gipuzkoako haundiena izango da eta Pasaia, Lezo eta Oiartzungo herrietara ere zabalduko ditu bertako agenteak. Hilabete honen erdialdera, edo gehienez amaiera aldera, zabalduko da, Ertzaintzako iturriek jakitera eman dutenez.

Errenteriako komisaldegia urte honen hasieran zabaltzeko asmoa zegoen, baina Adolfo Fernandez Alustiza, Ertzaintzako Lurralde Unitateetako zuzendariak azaldu duenez, «mota desberdinetako arazoak egon dira». Batez ere eraikuntza lanei buruzko arazoak izan direla dio. Errenteriako komisaldegia Santa Clara enparantza ondoan egongo da, Victoriano Luzuriagaren lantokia zegoen lekuan. Komisaldegia bederatzi pisukoa izango da.

Dena den, Errenteriara destinaturiko ertzain asko bertan da dagoeneko eta azken egunotan izandako protesta ekintzen kontra komisaldegi honetakoek ihardun dute. Ingurunetako zerbitzuak Donostiako Amarako komisaldegitik hasi ziren betetzen, eta Errenteriakoa zaintzen ere aritu dira. Komisaldegi hau eraikitzeko asmoa aditzera eman zenetik protesta adierazpenik izan da, eta kontrako koordinadora ere martxan jarri da.

HIRUREHUN ERTZAIN LANEAN

Gipuzkoako Ertzaintzaren komisaldegirik haundiena izango da Errenteriakoa, Euskal Autonomi Elkarteko bigarrena, baina tamainagatik, bai ertzain kopuruagatik. Hirurehun ertzain izango da lanean bertan.

Polizia konpetentzia guztiak beteko dituzte Errenteria, Pasaia, Lezo eta Oiartzunen. Trafikoaren kontrola ere beregain hartuko du, hiribarrenetan ezik, eta baita delinkuentzia ere. Aurrerago Nortasun Agiriak egin eta berritzeaz ere arduratuko dira.

Ondorengo zerbitzuak beteko ditu: publikoarentzako bulegoa izango du, salaketa eta atestatuak jasotzea, komisaldegiaren operatibitate zona, administrazio bualegoak, ertzainentzako atseden leku eta aldalekuak, garaje eta kalabozoak.

Bertara destinatutako ertzain gehienak seigarren eta zazpigarren promoziokoak dira, baina bada esperientzia haundiagokoak ere, Adolfo Fernandez, Lurralde Unitateko zuzendariak azaldu zuenez.

Eusko Jaurlaritzak egoitza berria izango du 1993an Gasteizen bertan

GASTEIZ

Eusko Jaurlaritzak egoitza berria izango du Gasteizen, 1993ko udazkenerako amaituta egongo dena, exekutibo autonomoko iturrietatik Vasco Press albiste agentziari jakin erazi diotenez.

Eraikuntza berria gaur egungoaren ondoan eraikiko da, Lakuako poligonoan eta bertan Eusko Jaurlaritzak egun dituen lokalak zabaltzekoa da ideia.

Bost solairu eta bi soto izango ditu eta bere estiloa funtzionala eta modernoa izango da.

Obren lehenengo fasearen adjudikazioa 3.300 milioi pezetetan baloratu da. Egoitza berrian Gobernuko zeinbait departamenduk eta erakunde autonomok izango dute tokia.

Aurrikusita betetzen bada, Joseba Zubia, Lehendakaritza, Erregimen Juridiko eta Garapen autonomiko sailburua izango da hil honen 18an edifizio berriaren lehendabiziko harria ezarriko duena.

Arruti eta Larzabalek beste epaiketa bat izan zuten atzo

MADRIL

Juan Carlos Arruti Azpitarte «Patterra» atzo epaitu zuen Madrilen Epaitegi Nazionalak, ustez poliziaren konfidentea zen Juan Luis Agirreurreta Arzamendi hiltzeagatik. Epaiketa berean, Jesus Casanova Salazar Michelin enpresako arduradunaren kontra atentatua egiteagatik ere epaitu zuten Arruti. Arrutirekin batera Jesus Maria Larzabal eseri zen akusatuen aulkian, lehenengo atentatuarekin zerikusia duela uste bait du Epaitegiak.

Fiskalak 52 urteko gartzela zigorra eskatu zuen Arrutirentzat eta 29 Larzabalentzat. Atentatua 1979. urtean burutu zen Arrasaten, Arruti «Comandos Anticapitalistas» talde armatuko partaide zen garaian. Larzabalek talde armatuko militantea zela onartu zuen atzoko epaiketan, baina ez ordea, leporatzen dioten atentatuan parte hartu izana. Fiskalak esan zuenez, Arruti eta Baztarrika Iparraldetik Arrasateraino abiatu ziren, beste hirugarren kide batekin -Bixente Senar- atentatua egiteko.

Arrutiri egotzi dioten bigarren atentatua, Casanova Michelineko arduradunaren kontra egindakoa 1980. urtean burutu zen Gasteizen. Fiskalak dioenez, Arrutik ezezagun baten laguntzarekin Casanovaren aurka tiro egin zuen, eta zauri larrriak eragin zizkioten aurpegian. Arrutik onartu egin zuen, bata zein bestearen kontra tirokatu zuela, baina Larzabalek ez zuela parte hartu ziurtatu zuen.

Larzabalek 1983. urtean utzi egin zuen erakunde armatua, eta horregatik Arrutik salatu zuen bera Poliziak atxilotu zuenean. Arrutiren abokatuak ez zuen defentsarik egin, bai, ordea, Larrazabalenak. Biok absoluzioa eskatu zuten.

Ordoñez: «Pobrezia baino ez liguke ekarriko independentziak»

DONOSTIA

Euskal Herriaren independentzia «pobrezia baino ekarriko ez ligukeen zentzugabekeria da» Gregorio Ordoñez, Gipuzkoako PPko lehendariaren ustetan. Eusko Alkartasunari «erradikalismo abertzalearenganako joera berrestea» leporatu zion, Herri Batasunarekin batera zenbait udaletan independentziaren alde egin duen aldarrikapena dela eta.

Ordoñezen hitzetan, «autonomia ahalik eta gehien indartzea da egin beharrekoa, Espainiako gainontzeko lurraldeekin batera aritzeko eta zatiketarik ez eragiteko». Autodeterminazioari buruz «hainbeste esanak» herritar asko aspertu duela uste du, «beste ardura nagusiago batzuk dituztelako, lana edo etxebizitza aurkitzea, edota ETAko hiltzaileek tiro bat ez diezaietela jo» adierazi zuen atzo.

«ETAk hiltzeari utziko dio —jarraitu zuen— baina ez EAJ eta EAk eskua luzatuko diotelako, baizik eta beste irtenbiderik ez duelako izango eta gizartearen arbuioak eta polizia arrakastak eragingo dutelako». Alderdi nazionalistetako zenbait buruzagi politikorentzak ETAkideak «bide okerretik joandako anaiak» direla dio Gregorio Ordoñezek, «baina delitugile hutsak dira gure-tzat» gaineratu du.

PPko buruzagiak azkenik, Herri Batasuna kritikatu zuen, «ondo asko bait dakigu Epaitegiek emandako epaiak edo hauteskunde emaitzak beraien aldekoak direnean soilik onartzen dituztela, eta hori ez da inolaz ere, joko demokratikoaren arauak onartzea, guztiz kontrakoa baizik».

Dominique Thomas GALeko ustezko 'Dama Beltza' etzi epaituko dute

Baionan epaituko dute «gaizkile elkarteekiko kidetasuna» akusaziopean

Baionako Epaitegi Korrekzionalak, Dominique Thomas, ustezko 'Dama Beltza epaituko du datorren ostegunean. Dominique Thomas GAL erakundearen «gaizkile elkarteekiko kidetasuna» akusaziopean auzitaratua izango da.

M.ESTEBAN / **BAIONA**

Bere abokatuak, Georges Catalak EGUNKARIAri egin deklarazioetan zioen «beste akusazioak erori direnez, orain GALekin ukan zituzkeen harremanak direla eta epaituko dute. Ni GALez mintzatuko naiz, azpimarratzeko espainol erakunde parapolizial honen erantzukizunaz mugaz bi aldeetan».

Dominique Thomas akusatua izan zen, Jose Amedo Fouce, Christian Hittier eta Patrick Pironneau GALeko kideekin harremanak izateaz. Baiona, Ziburu eta Donibane Lohizunen 1983 eta 1985 bitartean GALek euskal errefuxiatuen aurka egindako atentatu batzuetan parte hartzeaz akusatua izan zen. Orain dela bi urte, 1989ko irailaren 22an Dominique Thomas libratua izan zen. Pabeko Akusazio Ganbarak askatu zuen, GALeko zulo batean aurkitu ziren arropak, oinetakoak eta ile faltsu horailak ez ziren Dominique Thomasen neurrikoak.

Datorren ostegunerako, Georges Catala abokatuak, Jean Marc Dufourg frantses inspektore ohiaren lekukotasuna eskatu zuen. Dominique Thomasen abokatuaren ustez: «Berak bere liburuan egiazko Dama Beltzaz hitzegiten zuen baina, berarekin hitzegin nuen eta badaki Dominique Thomas ez dela. Maleruski ez daiteke Baionara etorri datorren ostegunean».

Dominique Thomas, GALen ustezko «dama beltza».

> Baiona, Ziburu eta Donibane Lohizunen 1983 eta 1985 bitartean GALek euskal errefuxiatuen aurka egindako atentatu batzuetan parte hartzeaz akusatua izan zen. Orain bi urte utzi zuten libre.

MANIFESTALDIA AUZITEGI AURREAN

ESK-k, Errefuxiatuen Sustengu Komiteak, eta Gureak, euskal preso politikoen ahaide eta lagunek dei egin dute elkarretaratze batera Baionako auzitegi aitzinean, datorren ostegunean goizeko 9.00etan. Ageri batean ESK-k dio: «Epaitegi Korrekzionalean alderdi zibila izateko biktimak ez daitezke ordezkatuak izan, ez zuzenki eta ez elkartearen bidez. Berriz ere, justizia baino, frantses botereak espainol gobernuarekin kolaboratzea hautatu du».

Garaikoetxeak ETAri armak uzteko eskatu ziola ulertu du Cañok

MADRIL

Carlos Garaikoetxea EAko lehendakariak HBri Euskal Herriaren autodeterminazioari buruz berriki esandakoaren irakurketa «positiboa» ETAri armak uzteko esatea da, Javier Caño Eusko Jaurlaritzako Justizia kontseilariaren ustez.

Madrilen egindako adierazpenetan, kontseilariak esan zuenez, berak EAko lehendakariaren hitzetan ateratako irakurketa «pertsonal» eta «positiboa» zera da, «derrigorrezko baldintza armak uztea» litzatekeela, «eta hau esatea eta terrorismoa dagoen bitartean jaun-andere hauekin honetaz eta ezertaz ere ezin dela hitzegin esatea gauza bera da», erantsi zuen.

Cañok atzo sinatu zuen Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiaren (BJKN) egoitzan erakunde honen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko ituna, Euskal Autonomi Elkartera etorriko diren epaileek eta abokatuek bereziki hezitzeko. Akordio honek bi erakundeek hogeina milioi pezetatako (milioi bat libera baino gehixeago) inbertsioa egitea jasotzen du.

EUROPAKO GIROAN KOKATU BEHARRA

Garaikoetxearen adierazpenak «Europak une honetan bizi duen giroan» kokatu zituen Javier Cañok, «ondoko komunitate batean sortu den giroan eta HBk independentzia jarrera formaletara eragiten duten planteamenduez sortzen duen giroan», ituna sinatu ondoren emaniko prentsaurrekoan eta kazetariei erantzunez adierazitakoaren arabera.

Javier Caño.

Euskal Herrian diharduten epaileak ETAren atentatua jasan dezaketen beldur ote diren galdetuta, Cañok erantzun zuen «gizarte osoa» dagoela «metraileten ikuspuntuan».

Juan Alberto Belloch BJKNko partaideak eta heziketaz arduratzen denak, «terrorismoa ez balego bezala» lan egitearen beharra azpimarratu zuen.

Javier Cañok gainera, gogorarazi zuen «Estatutuaren ikuspuntutik» Justizia arloko konpetentzien igorpena ez dela osorik egin, «giza bitartekoak falta direlako».

Jose Antonio Ardanza EAEko lehendakariak berriki Egiagarai Administrazio Publikoetako ministroarekin izandako bileraz, «ezer zehatzik» ez zekiela esanda ere, komunite historikoen asmoak atzeratzeko eskakizuna egin zela azaldu zuen, «143. artikuluko komunitateen arazoak konpondu bitartean».

Hilaren 27an politika orokorraz eztabaida EAEko Legebiltzarrean

GASTEIZ

Gasteizko Legebiltzarrak hilaren 27an egingo du ziurrenik bere lehen bilkura politika orokorrari buruzko eztabaidarekin, Vasco Press ajentziak zabaldu duenez.

Jose Antonio Ardanza, EAEko lehendariaren hitzaldiarekin emango zaio hasiera eztabaidari. Azkenaldiotako hainbat gertaeren inguruan gobernuak duen jarrera azalduko du Ardanzak eta datorren kurtso politikoari begira lehentasuna duten gaiei buruz hitzegingo du.

Ardanzaren hitzaldiaren ostean, erantzuteko aukera izango dute alderdi politikoetako bozeramaleek. Ordezkaritza haundiena duen alderdik hasita, bakoitzak ordu erdia izango du horretarako.

Pentsatzekoa da baita ere, Euzko Alderdi Jeltzaleak, Eusko Alkartasunak eta Euskadiko Ezkerrak osatzen duten Gobernu taldea ere aipagai izatea politika orokorrari buruzko eztabaidan. Gobernu hirukoitzaren fruituak kritikatuko ditu oposizioak, PSE-PSOE bereziki, iragarria duen bezala.

Alderdi honek, Gasteizko Legebiltzarreko mahaiari eskatu zion orain egun gutxi, politika orokorrari buruzko eztabaida lehenbaitlehen egin zedila, irailaren 13an edo gehinera 2Oan. «Behar haundia dago politika orokorreko gaiak haundiak eztabaidatzeko, eta legebiltzarreko funtzio eta lanak arintzeko» zioen PSE-PSOEk bere eskakizunean.

Jose Antonio Ardanza. OLALDE

Lerro artean

Argibideak

Egun hauetan ez daude geldirik komunikabideak. Ez daude prest gertatzen denaren segimendu soila egiteko. Prozesuetan esku hartzeko ahalmena erabiltzen ari dira. Hor dugu, esate baterako, autobidearen auzia. Lurraldea-Galdosen arteko aurreakordioa momentu delikatu batean dagoenean komunikabide batzuek eskua sartu dute. ***El Correo Españolek*** igandean honako titularra zeraman artikulua argitaratu zuen: *«EAJk autobideari buruzko 'edozein erabaki' onartuko duen ala ez berresteko eskatu dio HBri»*. Egunkari honek bakarrik jakin omen zuen EAJren eskaera horren berri, beste inon argitaratu ez bait zen. Baina ustezko eskaera hori ez zen EAJko inongo buruzagi edo arduradunen adierazpenetan ezta alderdiaren inongo oharretan ezta inongo iturrietan oinarritzen. Guzti horiek eskaera bera benetakoa den zalantzan jartzera eta bere argitalpenaren intentzioaz galdetzera bultzatzen dute. ***El Mundo*** egunkariak Lurraldea koordinadoraren «eztabaidarako barne dokumentu baten» zati bat eman zuen atzo argitara, eta bertan azaltzen zen analisi bati buelta emanez honako titularra gauzatu zuen: *«Lurraldea taldeak ETAren ekintzan konfidantza zuen autobideari buruzko negoziaziorako»*.

Azken egunotako gai nagusietako bat Ertzaintzaren Bilboko operazioa izan da, eta Juan Maria Atutxa Barne kontseilariaren agerraldiarekin ezin da ukatu nolabaiteko auzia izan dela eta horretan komunikabide batzuek esku hartu nahi izan dutenak. Kasu honetan, besteetan bezala zaila da esku hartze horren autonomia. Prozesu honetan, ***Deia*** egunkaria nabarmendu egin da Barne Saileko iturrietatik zetozen albisteak osatzeagatik. Atzo bertan, «Ertzaintzaren ikerketaren iturriak» aipatuz, hiru albiste osatzen zituen. Esanguratsua da albiste horietako zati garrantzitsu batzuk —'Gadafiren arazoak', adibidez— ***Abc*** egunkariak joan zen astean argitaratu izatea. Horrez gain, aipatzekoa da «ikerketako iturriek» ***Deiaren*** bidez, eskaini duten Begoñako gertaeren bertsio berria: Mentxaka ertzainaren eskuinean zihoan ertzainak *«25 zentrimetrotatik»* tiro egin zion Ormazabali eta lokian eman zion, «goitik beherako norabidearekin». Segidan, «erematatzeko tirorik» ez zela egin azaldu zuten aipatutako iturriek, «tiro hori goitik behera egiten delako». Dirudienez, artikulugileak oker bat izan du eta justifikatu nahi zuena gehiago nahasi du. Gauzak argitu nahi badira, ordea, bertsio ofizialak ez erantzundako galderak eta zalantzak ugari ditu ***Egineko*** I. Iriondoren *«Argitzearen bila»* artikuluak ongi erakusten duenez.

PELLO URZELAI

Irakaskuntza eztabaidagai Adarraren Pedagogi Ihardunaldietan Bilbon

Adarraldien helburua euskal irakaskuntzak bizi duen egoera sakontzea da

Irakaskuntza sistema erreforma atarian dagoen une honetan. Euskal Autonomi Elkarteko (EAE) irakaskuntzak bizi duen egoera sakondu nahian Adarra talde pedagogikoak ikasturte hasierako Ihardunaldi Pedagogikoak —Adarraldiak— antolatzen ditu aste honetan zehar Bilbon.

G.A. / **BILBO**



Irakaskuntzaren zenbait arlo aztertuko dute Adarraldiek.

Astebeteko ihardunaldi hauekin Adarra taldeko partaideek irakasleen eztabaida, hezkuntza eta topagune ekintzak bultzatu nahi dituzte. Euskal irakaskuntzaren munduak bizi beharko duen aldaketa zaila aztertzeko asmoz Adarrakoek hiru zatitan banatu dituzte aurtengo Adarraldiak; hitzaldiak, erakusketa eta ikastaroak.

Atzo hasi ziren ikastaroak datorren larunbaterarte burutuko dira arratsaldero zortzietatik aurrera Bilboko Juan Larrean erakustaretoan. Catalunyako Pedagogiaren Berrikuntza Mugimenduen Federakundeko lehendakariak hasiera eman zien atzo hitzaldi hauei 'Hezkuntza: Europara hurbiltzen ari gara?' gaiaz.

Gaur, berriz, Angel Perez Malagako Unibertsitateko irakaslea 'Ikastetxearekiko lotura eta katedra askatasuna, gatazka?' gaiaz. Asteazkenean, Alvaro Marchesi MECeko Pedagogi Berrikuntzako zuzendariak hitzaldi bat emango du 'Batxilergoak' lemapean. 'Asko ikasi ala ondo ikasi?' izango da Josetxo Linaza Madrileko Unibertsitate Autonomoko irakasleak emango duen hitzaldia.

Miguel Fernandez Madrileko Complutense Unibertsitateko irakasleak 'Ebaluatu ala aukeratu egiten dugu?' gaia jorratuko du ostiralean. Larunbatean, azkenik, goizeko 10etan Anton Borja EHUko irakaslearen txanda izango da eta 'Ekonomi, teknologi eta kualifikazio aldaketak 80. hamarkadan; bere eragina profesionaltasunean' landuko du. Hitzaldien atalari bukaera emango diote egun berean, eguerdiko hamabietan egingo duten mahainguru batekin, bertan irakaskuntzako sindikatu eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntz saileko gonbidatuek 'Egitasmoak, proiektuak, proposamenak... 91-92 ikasturterako' gaia eztabaidatuko dute.

Aurtengo Adarraldien bigarren zatia Juan Larrea erakustokian jarritako erakusketak osatzen du. Goizeko hamaiketatik ordubatak t'erdietara eta arratsaldeko seietatik hitzaldiak bukatu arte zabalik izango den erakusketan 'Europako hezkuntz sistema ezberdinen' berri ematen da. 3. atala irakasleei mugatua dago, eta Adarraldi hauetan hezkuntz gai ezberdinen eztabaida eta esperientziak aztertuko dira arratsaldero Miguel de Unamuno Institutuan eratuko dituzten ikastaroetan.

Ikastolak

Hezkuntzak eta Ikastolek aurreakordioa zehaztuko dute gaur

DONOSTIA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Ikastolen Elkarteko ordezkariek aurreko egunetan akordatutako puntuak zehaztuko dituzte gaur Lakuan. Batzarra lan bilera izango da eta beraz ez da erabakiorra izango.

Alde biak ostegun arratsaldez elkartu ziren eta zazpi ordu luzez uda aurretik konpontzeke zeuden aferez hitzegin zuten. Azkenean aurreakordio batera heldu ziren. Adostasun honetan iazko zorrak —1.300 milioi pezeta— konpontzea sartu zen, baita aurtengo finantzaketa bideak aurkitzeko irizpideak ere.

Hitz hauek paperean jarri beharko dira gaurko lan bileran, «literaturan» Ikastoletako Federazioaren iturriek EGUNKARIAri atzo bertan adierazi ziotenez. Honen arabera, gaurko ihardunaldia «lan teknikoa» izango dela azpimarratu zuten iturri berberek. Ostegunean onartutako kontzeptuak «zehaztu» egingo dira, «prestaketa lana izango da». Gaurko lan bilera bi taldetan banatuko dira: Hezkuntza eta Federazioaren aldetik azalduko diren partaideak. Batean Iñaki Etxezarreta Federazioko gerrentea eta Mikel Olaziregi kontseilariordea izango dira; eta bestean alderdi de bakoitzeko ordezkariek ihardungo dute.

Gaurko lana amaituta, beste bilera baten eguna zehaztuko da, airean dagoen arazo bakarra eztabaidatzeko. Afera hau zenbait ikastolak BBB irakatsi ahal izateko baimenarena da. Ikastolek hamahiru zentrurentzako baimena eskatu dute baina Hezkuntzak seiri baino ez die eman nahi. Oliveri sailburuak ostiralean bertan esan zuenez.

Ikastolen ordezkariek adierazi bezala, «hobe da negoziaketak nola dauden ez esatea, oztopatu egin lezakeelako elkarrizketa hauen garapena. Gu horretan geratu ginen edo esandaskoa bete egingo dugu gauzak zailago ez jartzeko».



Inazio Oliveri, Hezkuntza sailburua.

CARLOS VILLAGRÁN

Telebistak arautzeko legea 1992ko uda baino lehen

L.K.G. / **SANTANDER**

Espainiako arautegia Europakoari egokitzearren, telebistaren igorpenerako sistemen legea datorren urteko uda baino lehenago onestea nahi du Jose Borrell Garraio eta Herrilan ministroak. Santanderren komentatu zuen atzo eta 1993ko urtarrila aurretik, «argia, malgua eta ziurra» izan behar duen marko arautzailea sortu beharko dela adierazi zuen, arautegi espainolak aurrikusten dituen erabakiak garatzeko.

Borrell-ek aipatu zuenez, Estatua eta Telefonicaren arteko kontratua berriztatzea, Telekomunikazio Plan Nazionalaren aurkezpena eta Telekomunikazio Legearen gaurkotzea dira laster hartu beharreko neurriak, urte amaieran egingo dituztenak.

Kablez, satelitez eta potentzia gutxiko telebista arautzeko legezko proposamen batean «jo ta ke» dihardutela komentatu zuen, 1992ko uda baino lehen onartuta izateko.

Kontseilariek baino gehiago irabazi zuten goi mailako kargu publikoek

GASTEIZ

Eusko Jaurlaritzako kontseilari batek baino gehiago irabazi izan zuten goi mailako zenbait kargu publikoek 1988. urtean, Euskal Kontu Publikoen Epaitegiak atzo aditzera eman zuenez.

Erakunde horren txostenaren arabera, EITB, Industriaren Sustapen eta Birmoldaketarako Zerbitzua eta Euskal Energiako goi karguek kontseilariak baino gehiago kobratu zuten, nahiz eta legeak espreski debekatzen duen hori. 1988ko aurrekontu Legeak 21. artikuluak dioenez, zerbitzu publikoetako gai mailako karguek ezin dute Eusko Jaurlaritzako sailburu batek baino gehiago irabazi.

Hori ezezik, goi mailako karguek ordaindu beharreko zerga guztiak ez zituztela ordaindu ere agertu du Kontu Epaitegiak. Izan ere, PFEZri zegozkion kenketak ez zituzten egin goi mailako karguen diru sariak pagatzerakoan. 1988. urtean Administrazioak ez zizkien egin legeak agintzen dituen kenketak postua utzi eta berriro hartu zuten karguei.

Bilboko udal kirol monitoreak protestan kontratua lortzeko

BILBO

Bilboko Udaleko monitore talde batek kontratuak berritzea eskatu zuten atzo La Casilla kiroldegiko terrazan lanean bizi izan duten «egoera irregularra» salatuz. Igaro den ekainean aurkeztu zuten Bilboko Gizarte Epaitegian eta epaiketaren lehen eguna hilaren 24ean izango da.

«Aspalditik gaude egoera irregularrean, urtero udaran kontratua amaitzen zitzaigun ondoren berriro kontratua lortuz, baina aurten gainontzeko langileen egoera berbera eskatu dugunean kontratua ez berriztatzea erabaki dute», azaldu zuten zazpi monitore ohiek. Protesta ekintzak uztailean hasi zituzten «Guedan» kirol zerbitzu enpresak subkontratatutako eta Udalak zuzenean kontratatutakoen arteko berdintasun egoera eskatuz soldata eta eskubideen arloetan. Monitoreek bi demanda ezarri dituzte Kirol Udal erakundea eta enpresa subkontratatzailearen aurka. Bihar hasiko dira monitoreak lan inspekzioan deklaratzen.

Osasuna

Osasun langile eta drogazaleek hepatitis B-a harrapatzeko arriskua dute

BILBO

Osasun munduko langile, drogazale eta beraien sexu harremanetan garbitasun kontrol eskasa duten pertsonek hepatitis B-a harrapatzeko aukera gehiago dituzte. Gaixotasun honek Estatu espainoleko hiritarren %1,2 eta %2rengan du eragina eta intzidentzia handiagoa da gizonezkoengan. Horrela adierazi zuen atzo Vicente Carreño Madrileko Jimenez Diaz Fundazioko hepatologoak eta hepatitisaren ikerkuntza adituak.

Carreñok azaldu zuenez, «Estatu espainolean hepatitis Baren portzentaia oso garrantzitsua eta altua da Alemania eta Britania Handiko kasu klinikoekin konparatzen baldin badugu. Dena den, portzentaia Italiakoa baino baxuagoa da, herrialde honetan hiritarren %4k gaixotasun hau pairatzen bait du kutsaturik izanagatik».

Hepatitis B-aren presentzia antzekoa omen da Estatu espainoleko elkarte autonomo ezberdinetan, diferentziak eskaxak bait dira. Hala ere, gaixotasun honek gizonezkoengan duen eragina azpimarratu zuen behin eta berriz Carreñonek, gaixoen %50 baino gehiago gizonezkoa delako.

Honen arrazoiak Madrileko hepatologoaren esanetan ezezagunak diren arren, Carreñonek bi azalpen posible azpimarratu zituen: alde batetik, sistema inmunologikoa; eta bestetik, gizonezkoen defentsa emakumezkoena baino ahulagoa izatea.

Hepatitis Baren transmisoa ekiditzeko metodorik eraginkorrena txertoa dela adierazi zuen doktoreak. Arlo honetan Estatu espainolean arrisku handia duten pertsonengan txertaketa kanpaina bat egin dela azpimarratu zuen.

Carreñonek esan zuenez, Estatu espainolean hepatitis Baren ikerkuntza maila «oso altua» da eta bere hitzetan «kasu larrien % 95 osatu egin da, baina hepatitisa kronikoa bada berriro gaixotzeko arriskua %15ekoa da».

'San Inazio eta bere garaia' kongresua hasi zen atzo Bilbon

Matrikula gutxi hogeitazazpi aditu bilduko dituzten ihardunaldietan

Entzule baino partehartzaile gehiago izango da Bilbon antolatu den 'San Inazio eta bere garaia' nazioarteko historia kongresuan. Joseba Arregi Kultura eta Turismo sailburua, Jesus Maria Egiluz errektorea eta Jose Alberto Pradera Bizkaiko diputatu nagusia izan ziren atzoko inaugurazioan.

BILBO

Oraindik udako oporren barruan koka daitezkeen egunak aukeratu izana eta matrikula prezioa —20.000 pezeta, 1.000 libera gutxi gorabehera— izan litezke ikastaro honetan matrikula gutxi izateko arrazoi nagusiak, Deustuko Unibertsitateko iturriek aditzera eman dutenez. Entzuleak hogeiren bat izango dira datu hauen arabera, eta hizlariak, hogeitamazazpi orotara.

Erakunde akademiko hau kongresuaren antolatzaileetarikoa da, Loiola 91 elkartearekin batera. Loiolako sainduari buruzko historiografia eta ikonografia, erreforma eta kontraerreforma, pentsamenduaren korronteak, Erdi Aroa eta Modernitatearen garaia eta beste solasaldiak izango dira Loiolako Inazioren jaiotzaren V mendeurrena ospatzeko.



Deustuko Unibertsitateak hogeitamazazpi aditu bilduko ditu.

Azken ihardunaldia ostiralean izango da Deustuko Unibertsitatean. Ekitaldi honetan Angel Sukia Espainiako Gotzainen Konferentziako presidentea eta Madril—Alcalako artzapezpikua mintzatuko da 'Loiolako Inazio eta Alcalako Unibertsitatea' izeneko gaiari buruz. Hitzaldia euskara hutsez egingo du zaldibiarrak bapateko itzulpen zerbitzuaren laguntzaz. Arregi ere izanen da kongresun. Ostiralean, hilak 13, egingo du berba saindu euskalduna eta Lutero erreformista protestanteari buruz antolatu den mahainguruan. Olivier Pariseko Institutu Katolikokoa; Kurt Victor Selge Berlineko Unibertsitatekoa; Heiko Oberman Arizonako Unibertsitatekoa; Hector Vall Barcelonako Teologia fakultatekoa; Adolfo Gonzalez Salamancako Unibertsitate Pontifizikoko ordezkaria; Andre Birmele Strasburg-eko Ikasketa Ekumenikoen Zentrukoa eta David C. Steinmetz EEBBetako Durham Unibertsitateko irakaslea.

Hirugarren adinekoen elikadurari buruzko ihardunaldiak Bilbon

G.A. / **BILBO**

Hirugarren adinekoek jarraitu beharko luketen elikadurari buruzko ihardunaldiak izango dira irailaren 16tik 20ra bitartean Bilbon. Ihardunaldi hauetan Europa zein Ertamerikako 36 adituk hartuko dute parte.

Antolatzaileen hitzetan, «ihardunaldien helburua hirugarren adinekoentzat elikadura egokia zein den eztabaidatu eta aztertzea da. Arazo honek garrantzi handia dauka, mendebaldeko herrialdeetan edadetuak gero eta gehiago direnean ezinbestekoa da elikadura estrategia berriak eztabaidatzea».

Ihardunaldi hauek Eusko Jaurlaritza eta Bilboko Udalak antolatu dituzte Munduko Osasun Elkartearekin batera. Eztabaida hauetako ondorioak Euskal Autonomi Elkarte osorako baliagarriak izango direla espero dute antolatzaileek.

Bost egun iraungo dituzten ihardunaldietan elikadura egokiaz gain, botiken eragina, psikiko eta fisikoki gaixo dauden zaharrentzat eskema dietetikoak eta egoera larrietan behar dituzten elikadura ekarpen bereziak ere aztertuko dituzte.

Ihardunaldiak hilaren 16an hasiko dira, hirugarren adineko pertsonentzako elikadurari buruzko hitzaldi batekin. Ekitaldi honetan, Bilboko Udaleko Elikadura Unitateko buru den Javier Aranceta 'Bilboko hirugarren adineko hiritarren elikadura egoeraz' mintzatuko da.

Bigarren saioan, agureen taldeko berreziketa eta beraien elikadura arazo zehatzak jorratuko dituzte Olga Moreiras Madrileko Unibertsitate Complutenseko medikuak eta Ana Sastre Ramon y Cajal ospitaleko medikuak. Hilaren hamazortziko ekitaldian egoera berezietako elikadura mota eta indarrean dauden programez arituko da Bangla Desheko Th. Bergmann irakaslea. Amaitzeko, Salas elikaduran aditua den medikua eta F. Grande Covian irakaslea arituko dira. Bi adituek, gero eta argiagoa omen den hiritarren bizi kalitate eta elikaduraren arteko harremana aztertuko dute. Ihardunaldi hauek erantzun zabala izan dute eta jadanik 150en bat lagunek izena eman dute.

Elikadurak adineko jendearengan duen garrantzia azpimarratuko da.

Zaraitzu eta Erronkariko artaldeekin Bardeetaraino, altxonbideetan barna

ALBERTO BARANDIARAN / **IRUÑEA**

Otsagiko Ekia elkarteak Zaraitzu eta Erronkariko altxonbideetan zehar ibilbide zenbait antolatu du irailerako, aintzinatik Pirinioetako ibarretatik Bardeetarainoko bidea egiten duten artaldeekin batera. Lehendabizikoa aste honetarako dago iragarrita, eta irailaren 12tik 18ra, Zaraitzuko artaldeek jorratutako bidaiari ekingo diete ibiltariek. Antolatzaileek jana, materiala eta bere garraioa eta laguntzarako pertsonak paratuko dituzte, baina partaideen kopurua mugatua izango da, artalde eta artzainaren eguneko ibilbidearentzako traba izan ez daitezen.

Ekitaldi hau ez da guztiz berria, iaz ere Erronkariko altxonbideetan barrena beste ibilbidea antolatu bait zuen talde berak. Orduan Uztarrozeko artzain baten laguntzaz egin zuten zeharkaldia, Erronkariko herritik Bardeetaraino. Aurten, Otsagiko kanpinean bilduko dira partaideak, eta antolatzaileek hor emango dituzte aditzera bidaiaren inguruko zehaztasun guztiak. Bestalde, hilaren 25tik 29ra arte, Erronkariko altxonbidearen zeharkaldia ere antolatu du Ekiak.

Zaraitzu eta Erronkariko artaldeak Bardeetara joateko ohitura aintzinetik dator, eta altxonbideak artaldeendako espreski egindako bideak dira, urte osoan errespetatu beharrekoak. Irailean hasten dituzte bidaiak artzainek, eta astebetez Bardeetarainoko bidea egiten dute, bertako zelaietan urte amaierara arte egoteko. Bidean trikuharri, zutarri, eta ondare artistiko eta natural franko ikus daitezke, landaretzaren aldaketa anitzekin.

Ardiak hegoaldeko pentzeetara eramaten dituzte sasoi honetan.

Eguna goizeko zortzietan hasten du taldeak, eta gabeko zortziak arte edo, hamar ordu inguru izaten da eguneko marka. Iaz hasi zen esperientzia «zeharo positiboa» izan zela dio partaide batek, «bereziki artzainen jarreragatik». Hala ere, badaude bete beharreko arauak, eta lehendabizikoa ardiei enbarazu ez egitea da. Hori eta, artzainek euren ohiturak badituztela onartzen bada, egun ederrak pasatzeko aukera ezin hobea eskaintzen dute Ostia Otsagiko kanpinetik.

EEk kontzientzi eragozpenaren arazoa konpon dezala eskatu dio Gobernuari

BILBO

EEk «borondate bakezalez» kontzientzi eragozpenaren arazoa konpon dezala eskatu dio Gobernuari. «Zerbitzu Militarra ez egitea erabaki duten gazteek horren ondorien jakitun izanik, desobedientzi zibilaren bidea hartzen dute, beraien kontzientziaren aurkako legedia bide demokratikoz errefusatzeko. Horregatik, objektoreen aurkako bide errepresiboa salatzen dugu», dio Euskadiko Ezkerrak igorritako prentsa agiriak.

Iturri berberen arabera, gazteen % 50ek Zerbitzu Militarra ez egitea erabaki du, «eta objekzioaren bidea hartu du Gobernuari Armadari buruzko iritzia emateko. Horregatik, Zerbitzu Militarraren lege berria Legebiltzarrean eztabaidatzekoa den une honetan, Gobernuak aukera ezin hobea du Zerbitzu Militarraren arazoari konponbidea aurkitzeko».

Kontzientzi eragozpenaren bidea hartu duten euskal gazteen kopurua «orain urte batzuk pentsaezina zela» adierazi du EEk. Talde antimilitarista eta bakezaleei Zerbitzu Militarraren legearen eztabaida «ondo prestatzeko deia egin» die, «Gobernuak ukatzen dituen jarrera bakezaleak batasun eta duintasunez defendatzeko».

DURANGOKO KURUTZIAGA IKASTOLAK

O.H.O.ko tutoretzarako ingelesaren ezaguera duen irakaslea behar du.
Interesatuek aurkez bezate curriculuma irailaren 12rako KURUTZIAGA IKASTOLAN: Bruno Maurizio Zabala, 11. DURANGO. 48200 BIZKAIA. 130 POSTAKUTXA.

Ikasturtea hasiko da gaur lehen protesta ekintza batzuekin

L.E. /

Nafarroa Beherean, Bastidan, eta Zuberoako Sohütan ikasturte honen hasierarekin batera protestak sortu dira. Lanpostuak eta gela falta dira aurten ere ohiturazko aitzakiak horrelako mugimenduentzat.

Bastidako eskolan, hirugarren gela bat ireki nahian, herriko hautetsiak eta gurasoak mobilizatu egin dira. Udaberrian eskatu gela berriarentzat haur aski badirela eta herriak utzitakoa gela egokia dela, baina Akademiako Inspekzioak ez duelako oraindik erantzunik eman, gaur jendeak protesta egingo du. Gurasoek gela berria okupatuko dute, eta hala beharrez, beraiek hasiko irakaskuntza, 'eskola basa' bat bideratuz, eta jakin arazi dutenez «horrela segiko dugu eskatu gela lortu arte». Sohütan, Zuberoako Lizeoan, iaz bezala greban hasi dira ATOS langileak, administrazio eta enplegatu postuetan daudenak. Bi lanpostu eskatzen dituzte, eta ez lortzeak arazoak sortuko ditu hasiera egun honetan.

Dietetika eta Nutrizio ikasketak beharrezko ofizialtasunaren zain

Hilabete honetan ez legezko proposamena aurkeztuko da hori lortzeko

Dietetika eta Nutrizio ikasketen titulazioa Madrileko Ministro Kontseiluak laster onestea espero da. Hilabete honetan aurkeztuko da ez legezko proposamena ikasketak onartzeko, atzo EHUko zenbait kidek nutrizioari buruzko liburu baten aurkezpenean esan zutenez.

LUIS KARLOS GARCIA / **GASTEIZ**

Espainiako Unibertsitateen Kontseiluak Dietetika eta Nutrizio ikasketen titulazioaren irizpideak onetsi baditu ere, Ministro Kontseiluaren onespena falta da oraindik orain. Horrek izaera ofiziala emango lieke ikasketa hauei eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) agintariek espero dute luze baino lehen aipatu ofizialtasuna lortzea, horretarako irailean bertan Cataluniako talde politikoek ez legezko proposamena aurkeztuko bait dute Madrileko Kongresuan.

EHU izan zen Dietetika eta Nutrizio ikasketen «titulazioa ezarri zuen aurrena», adierazi zuen atzo Gasteizen Ramon Diaz de Durana Arabako kanpuseko errektoreordeak. «Unibertsitateko Ikasketa-Planen Erreforman, Unibertsitateen Kontseiluak onetsi zituen gure planteamenduak», esan zuen eta dagoeneko diplomatura hau duen Nafarroaz gain, aurki Cordobak eta Barcelonak bide berdinari jarrai diezaioketela aipatu zuen.



Janari egokia nutrizio onari loturik dago.

ENPLEGUAK LORTZEKO OZTOPO

Atzo Gasteizen 'Nutricion y Tecnologia de los Alimentos' liburua aurkeztu zuen Alfredo Martinez katedratikoak Nutrizio eta Giza Elikadura ikasketak enplegua lortzeko dituen aukerak azpimarratu zituen. «Iragan ekainean atera zen lehendabiziko promozioan, ikasleen % 30 edo 40 batek enplegua lortu du», jakin erazi zuen Martinezek. Noski, ikasketei falta zaien ofizialtasuna dela medio, ez dute zentru ofizialetan lan egiten, «enpresa eta ospitale pribatuetan baizik».

> Dietetika eta Nutrizioa diplomaturak irtenbide ona du. Iragan ekainean atera zen lehen promozioko ikasleen % 30—40k aurkitu du lana.

Gasteizen ia hasi berriak diren ikasketetarako liburu baliogarria izatea espero du Martinezek, iaz EHUren Udako Ikastaroetatik ateratako materialeaz osatuta dagoena. «Elikagaien Zientzia eta Teknologiaren lizentziaturarako nahiz Nutrizio eta Giza Elikaduraren diplomaturako liburua lagungarri izatea nahi dut», azaldu zuen bildumaren zuzendariak. Liburuari dagokionez, nutrizio eta metabolismoa, elikagaien analisi bromatologikoa eta okela, arraultz, arrain edo ogiaren deskribapena agertzen du.

Droga

Poliziak 55 kilo hachis harrapatu ditu Portugaleten

DONOSTIA

Polizia Nazionalak 55 kilo hachis harrapatu dizkio Portugaleteko auzokide bati bere ibilgailuan. Ondorioz, Francisco B.P. 57 urtetako gizona —eskualdean 'Paco' izenaz ezaguna zena — atxilotu eta espetxeratu du epailearen aginduz, jakinerazi zuten atzo Polizia Nazionaleko iturriek. EAEn aurten hartutako harrapaketari handiena izan dela adierazi zuten bozeramale berberek.

Droga Afrikako hegoaldetik bidaltzen zizkioten Francisco B.P.ri. Poliziak ostegunean detenitu zuen 'Paco', trafikariari buruz aspaldidanik zerabilzkien susmoak baieztatuz. Poliziak 'Peugeot 5' bat aurkitu zuen garaje baten, detenituak Afrika aldera egiten zituen joan etorrietan erabiltzen zuena. Bertan 221 tableta hachis aurkitu zuten.

Gasteizen ere atxiloketak izan dira lapurretagatik, Goardia Zibilak aditzera eman duenez.

Joan zen ostiralean Briviescako gasolindegi batean 100.000 pezeta (5.000 libera) lapurtu zituzten bi pertsonak atxilotu ditu Gasteizko Goardia Zibilak, atzo jakin arazi zuenez. Abetxukon egin zituzten atxiloketak. Detenitu hauetako bat A.M.I. da, Badajozen lapurtzeagatik antezedeteak zituena, eta bigarrena J.A.P. da, estupefazienteak eduki eta trafikatzegatik aurretiekin.

HILDAKOAK

BIZKAIA

BILBO

Rosario Arrien Apraiz, 78 urte.
Juan Carlos Sedano Gomez, 31 urte.
Juana Muerza Ugarte.
Maria Angeles Camaras Bringas, 72 urte.
Maria Teresa Miranda Maldonado, 59 urte.
Jose Maria Iturriaga Landaida, 76 urte.
Fernando Leal Valbuena, 43 urte.

ALGORTA

Luis Alaba Urberuaga, 63 urte.

BARAKALDO

Eusebio Bravo Oller, 87 urte.

DURANGO

Fernando Revuelta Manuel, 49 urte.
Matias Barrutieta Berrio, 61 urte.

EREÑO

Juana Castaños Lekerika, 89 urte.

IGORRE

Jose Urkiaga Berrojalbiz, 66 urte.

PORTUGALETE

Daria Camara Camara, 90 urte.

SANTURTZI

Manuel Cañoto Lopez, 73 urte.
Manuel Hoyos Amenabar, 86 urte.

SOMORROSTRO

Begoña Arze Peña, 46 urte.

GIPUZKOA

DONOSTIA

Maria del Pilar Claver Samitier, 92 urte.
Maria Etxeberria Mendizabal, 95 urte.
Pilar Elorza Foronda, 72 urte.

ERRENTERIA

Fidel Ignacio Ropero, 54 urte.
Maria Goenaga Aranburu, 70 urte.

IRUN

Jose Manuel Rodriguez Huidobro, 42 urte.
Francisco Javier Costa Martinez, 27 urte.
Lucia Perez Martinez, 90 urte.

TOLOSA

Jose Domingo Garmendia Zunzunegi.

USURBIL

Estefania Alsua Lertxundi, 93 urte.

ARABA

GASTEIZ

Juan Aginaga Blanco, 62 urte.
Marcelino Segura Uriarte, 53 urte.
Angel Ocio Otxaran, 81 urte.

POBES

Feliciana Calderon Huelga, 84 urte.

NAFARROA

IRUÑEA

Eduardo Orkoien Romeo, 28 urte.
Julian Petri Arre, 71 urte.
Aldegunda Gonzalez Sanchez, 80 urte.
Juan Ruiz Urea, 55 urte.

ARRONITZ

Francisco Javier Mauleon Ganuza, 54 urte.

CINTRUENIGO

Emilio Sarasa Bermejo, 68 urte.

IRURITA

Agustina Etxenike Elizainzin, 82 urte.

LIZARRA

Tomas Azkona Sanz, 94 urte.
Antonio Orella Fernandino, 74 urte.

UZTEGI

Martin Jose Saralegi Arraztio, 88 urte.

LAPURDI

BAIONA

Andre Laterrade, 66 urte.
Francette Goikoetxea-Montangon, 54 urte.
Andre Bouchetel, 94 urte.

BOKALE

Martin Rekalt, 89 urte.

DONIBANE LOHIZUNE

Henri Ameztoi.

LEHUNZE

Marie Doihambure-Gamoy, 98 urte.

MIARRITZE

Renee Etxart-Labarrere, 80 urte.

UZTARITZE

Pierre Etxeberri, 69 urte.

ESKELAK HARTZEN DIRA: ARRATSALDEKO 4ak ARTE: (943) 46 90 22 4etatik 7etara: (943) 37 15 45

GERNIKAKO AZOKA

Jende asko baina salmenta gutxi atzo

MARIBI KANPILLO / **GERNIKA**

Jende asko inguratu zen atzokoan Gernikako azokara eta generoa ere ugari agertu zen. Hala ere, salmenta gutxi izan zen, ez aurreko asteetan adina behintzat. Aipagarrienak piper berde eta leka edo bainena izan zen, sasoi honetan ohi den bezala, tomate garaia izan arren, horren salmenta urria izan zen. Pipar sikua ez da oraindik agertu azokan eta ez omen da agertuko urria arte behintzat. Piper lodiari dagokionez, azkenekoak gelditzen dira eta salneurria ere igo egin dute, merke ibili ondoren.

Barazkiei dagokionez honako hauek izan ziren salneurriak: Piper berdea, 25-35 pezetan dozena; piper lodia, 350-400; babarrunak (beltza), 600-630; babarrun gorria, 700-800; babarrun tolosarra edo pinta, 700; babarrun txuria, 400; babarruna lekan, 350; bainak (kalitate eta motaren arabera), 100-250; porrua, (kalitateraren arabera), 100-140; tomate txiki heldua, 50; tomatea (besteak), 75-125; letxuga, 50-75; berenjena, 100; berakatzak, 250 dozena; kalabazina, 40 bakoitza; azelgak, 50; kipula gorriak, 600 dozena; patata handia, hirurogei; patata txikia, berrogei.

Bertako produktuak: madariak,150; sagarrak, 200; preskuak (melokotoi mota txikia), 100; okaranak, 100; melokotoia, 300; urrak, 500. Arrautzak, 140-190; gazta, 1000. **Hegaztiak**: indioilar gorria, 850 bakoitza, beltza, 1000; oilanda gorria, 800; oilasko txikia, 220; txitak, 70; galeperra, 200.

Landareak: porrua eta aza, 300; zientoa; bruselako azak, 600; azalorrea, 500; azelga, letxuga eta eskarola, 400.

XANTI BELAR "BEGI"

Kukua jo ta jo ari da kotoizko kantua
paisaiaren zazpi muiño orbeltsutan
Bizitza hain maite dugunoi berriro
Lurreko egunak maitatu eraziz
(B. Gandiaga)

SANTUTXUKO BERTSOLARI ESKOLA

Negutegiak

Urriaren 14tik aurrera eta datorren urteko maiatzaren 29 arte, Zabalegi nekazaritza eskolak negutegietako baratzegintza eta loragintza (jardineritza ere) aztertuko dituen ikastaro bat egingo du. Ikasketa hauen helburua Euskal Herrian alor hau bertako produkzioarekin osatzea, gaur egun kanpokoak nagusi diren bitartean. Iharduera honen arrakasta orohar negutegietan erabiltzen diren teknikak ezagutu eta aurrera eramatean datza eta asmo horrekin eskaini da ikastaroa. Konpetitibo izan nahi bada besteen parean edo gainetik izan behar da, abantaila guztiez baliatuz.

Nekazal bide berriak ikasgai Zabalegin

I. LETURIA / **DONOSTIA**

Aurtengoa negutegien gaiari buruz egingo den bederatzigarren ikastaroa izango da Zabalegi nekazaritza eskolaren 30 urteko historia luzean. Badira Euskal Herrian beste eskola batzuk, hala nola Gipuzkoan Fraisorokoa, Bizkaian Deriokoa eta Araban berriz Arkautekoa, baina hauek Hezkuntza Profesionala edo ikasketa erreglatuen bidetik badoaz Zabalegi ikastaroenetik doa Jaime Zubia bertako zuzendarian azaldu zuen bezala.

Beste batzuen artean negutegien ikastaroak baldintzak jarri ditu parte hartu nahi dutenentzat: batetik hemezortzi urtetik gorako adina izatea, oinarrizko heziketa agiria eta ikastaroaren ondoren praktikak aurrera eramateko lur zati bat edukitzea ere kontutan hartuko da. Baserri inguruko izango dira gehienak (industriatik datozenak ere badira) eta izan ere ikastaroaren egitasmoetako bat nekazaritza-baserri munduari irtenbide berri eta egokia ematea da, aurrekoak alde batera utzi gabe.

INBERTSIO ETA EMAITZAK

Zabaltegiren eskaintza zera da, diru sarrera polita lor daitekeela lur sail txikiak erabiliz, lanpostu bakoitzeko inbertsioa txikiagoa dela eta astialdi eta asteburuak hobe antolatzeko aukera ematen duela negutegietako iharduerak. Faktore ugari hauek dira Jaime Zubiaren esanetan negutegietako barazkigintza eta loragintza erakargarri egiten dutena.

Ehun egunetako ikastaro honetan ikasketa teoriko eta praktikoak landuko dira, azkenak bereziki. Ikasleen kopurua 25ekoa izango da, bakoitza bi monitoreren gidaritzapean. Ikastaroa bi epetan dago zatitua. Lehenengoan, urriaren 14tik abenduaren 20ra arte. Ikasleak Zabalegin ikasiko ditu gaiaren oinarrizko edukiak eta bigarrenean astebete Zabalegin eta bestea etxean igaroko du bertan ikasitakoa praktikara eramateko.

> Lur sail txikiak erabiliz, lanpostu bakoitzeko inbertsioa murriztu eta astialdia hobe antolatzeko aukera ematen du negutegietako iharduerak.

Ikastaroaren ondoren ere etengabe aurreratzen ari diren negutegiei buruzko ezagutza zabaltzeko hitzaldiak egongo dira Zabalegin Gipuzkoako barazkigintza elkartearekin batera (GILBE), etengabe prestatzeko.

Ikastaroa aurretik nekazal arloan ari zirenei eta bide errentagarriagoak aurkitu nahi dituztenei zuzendua dago. Negutegien sektorea zabalkuntza garaian dago eta Gipuzkoan iharduera honetan erabiltzen den lur saila 40 hektareatakoa da, duela hamar urteko azaleraren bikoitza. Jadanik 200 familiek negutegietako barazkigintza dute bizibide.





Negutegietan urte guztian lan egiten da eguraldia txarra izan arren.

CARLOS VILLAGRAN

Merkatua: 127 kiloko erronka

Negutegietako barazkigintza eta loragintzari buruzko Zabalegiko ikastaroak alor honetan Euskal Herriaren eskaerari bertako produktuekin erantzun bat proposatzen du. «Merkatua atzerriko produktuekin hornitua dago. Euskal Herrian biztanleko 150 kilo barazki kontsumitzen bada, Gipuzkoako produkzioak bertako biztanleko 23 kilo besterik ez du ekoizten (127 kiloko desberdintasuna kanpoko produkzioaz orekatua) eta hortaz hori da aurre egin behar diogun erronka», azaldu zuen Jaime Zubia Zabalegiko zuzendariak.

Horrez gain, barazkigintzaren merkatua hedatuz doa eta euskal negutegietako produktuan bereizgarrietako bat freskotasuna eta kalitatea dira, merkatuan finkatu eta bere tokia hartzeko garantiak.

«Kalitatea eta gertutasuna kanpoko hornidurari Euskal Herriko merkatuan aurre egiteko abantailak dira», nabarmendu zuen Zubiak. Merkatua konpetitiboak izateko prezioa zeinbesteko faktorea den arren aipatu abantailak garrantzitsuak dira etorkizunean egutegien garapena lortzeko, jendeari ez bait zaio axola kalitatea ordaintzea Zabalegiko zuzendariaren ustez.

Baina kalitatea lortu, areagotu eta mantentzeko ezin da ahaztu gaian beharrezko den ezagutza, bai produkzio teknika zein komerzializazio bideetan. Zabalegiko ikastaroak beharrizan hau betetzeko helburua dute. Ekoizpen eta komertzializazio sistemak, kontuak eta gestioa, ezagutza teknikoa eta planifikazioa oinarrizko gaiak dira ikastaroen programan ondorioz.

Acenorreko sindikatuek ez dute erregulazio espedientea onartu

Enpresaren plangintza estrategikoa ezagutu eta negoziatzea eskatu dute

Acenorreko zuzendaritza bost lantegietako enpresa batzordeekin bildu zen atzo, enplegu erregulaziorako espediente berria negoziatzeko. Sindikatuek atzera bota zuten espediente proposamena eta era berean plangintza estrategikoa negoziatzea exijitu zuten.

BILBO

Altzairu berezien enpresan enplegu erregulazio berria onartu aurretik «zuzendaritzak prestatu duen plangintza estrategikoa ezagutu eta negoziatu beharra» azpimarratu zuten ELA, CCOO eta UGT sindikatuetako ordezkariek. Hau izan da beren esanetan espedientea atzera botatzearen arrazoi nagusia. LAB sindikatuak «dokumentazio falta» salatu zuen, enpresa batzordeek ez bait dute espedienteen arrazoiak ez eta bere ezaugarriak zeintzuk izango diren idatziz jaso. Gainera, «etorkizunean enpresaren iharduera produktibo eta industriala nolakoa izango den jakin gabe oso larritzat» jo dute LABeko iturriek espedientea aurrera eramatea.

Acenorreko arduradunek, beren aldetik, onartzekotan aurtengo bigarren enplegu erregulazioa litzatekeena aurkeztea erabaki dute, «altzairu berezien sektoreak bizi duen krisialdi egoera azken hilabeteotan areagotzeaz gain, etorkizunerako aurrikuspen txarrak bait daude».

Gasteizko Lan sailak onartuz gero, espedientea urrian hasiko litzateke. OLALDE

Gasteizko Gobernuko Lan Sailak espedientea onartzen badu, urriaren hasieran sartuko litzateke indarrean eta sei hilabeteko iraupena izango luke. Epe honetan espedienteak eragindako langileen soldaten % 90 bermatuko duela agindu du enpresako zuzendaritzak.

3.100 LANGILERI ERAGIN DIEZAIOKE

Acenorreko arduradunek aurkeztu nahi duten enplegu erregulazio espediente berri honek, pasa den apiriletik uztaila bitartean indarrean egon zenaren antzeko ezaugarriak ditu, «enpresak idatziz izan beharrean ahoz azaldu duenez» LABek ezagutarazi duenez. 3.500 lagilek osaturiko plantilaren % 96ri eragingo lioke, hau da, 3.100 langile ingururi.

Espedienteak aurrera egiten badu, datorren apirilera arte izango da indarrean, abendua sei hilabeteetako iraupen teorikotik kanpo gelditzen bait da.

ELA sindikatuak zabaldu zuen prentsa agiriaren arabera, ELA, UGT eta CCOO sindikatuetako metalgintza arloko idazkari nagusiek enplegu erregulazio espedientea ez dute onartu, aurrekoarekin egin zuten bezala. Era berean, Juan Olaskoaga ELAko metalgintzako arduradunak, plangintza estrategikoaren aurkezpenak daraman ia hamar hilabetetako atzerapena salatu zuen, eta Madrileko Industria ministeritzari langile eta enpresaren etorkizunari buruzko zalantzazko egoera sortaraztea leporatu zion.

5.929 MILIOIKO GALERAK AURTEN

Aurtengo lehen sei hilabeteetan 5.929 milioi pezetako galerak izan ditu Acenorrek. Emaitza hauekin hirukoiztu egin ditu iazko epe berberean izandako 2.222 milioi pezetako emaitza negatiboak. Altzairu berezien enpresak% 27,2 gutxiago fakturatu du 1991ko lehen sei hilabeteetan.

Zuberoan Komunikazio Zentrua bultzatzen ari dira

M. ESTEBAN / **MAULE**

Datorren urterako, Mauleko Udalak Komunikazio Zentrua eraiki nahi du, batez ere Zuberoako enpresentzat, laborarientzat, turismoarentzat eta beste herritarrentzat. Mauleko Udalarekin batera, ADES (Zuberoako Ekonomi Garapenaren aldeko Elkartea), Baionako Merkatal Ganbara eta Zuberoako Industri Elkarteak xedearen partaide dira.

Komunikazio Zentruak lan mundua lagundu behar luke. Zuberoako enpresek tresna berriak erabiltzeko parada ona ukanen dute: telematika, informatika eta bideoa adibidez. Mauleko komunikazio Zentruan bideo gela eta tresnak, telemintzaldi gela, erakaskuntz gela eta telematikaren bankua izango dira.

Komunikazio Zentrua Zuberoako ekonomi sail guztiei irekita egongo da, hala nola industria, eskulangintza, nekazaritza, turismoa, tekniko irakaskuntza eta baita ere herri eta elkarteei.

MODERNIZAZIOA EZAGUTU BEHARRA

Xedearen ordezkarientzat, kenka txarrean dagoen Zuberoak «lan berriak eta modernizazioa ezagutu behar ditu» eta Komunikazio Zentruak Zuberoaren ekonomia hedatzeko bide izan behar luke. Gainera, Komunikazio Zentruak beste Mauleko Zerbitzu Zentru batekin lotuta egon beharko du. Horrek erran nahi du Zuberoak bere txokotik ateratzeko nahia eta ekonomiaren koordinazioalortzeko asmoa duela.

Komunikazio Zentruan egongo den telematika zerbitzu berria guztientzat irekita egongo da eta Zuberoari buruzko datuak eskainiko dira, hala nola presentaketa, zerbitzu publikoak, tokietako animazioen egitaraua, Mauleko Turismo Bulegoaren eta opor agentzietarako berriak.

✔ Mauleko komunikazio Zentruan bideo gela eta tresnak, telemintzaldi gela, erakaskuntz gela eta telematikaren bankua izango dira.

Nazioarteko uren kontrolaz aritu dira Arrantza ministroa

LA TOJA

Munduko 40 estatutako Arrantza ministroak La Tojan bildu dira sektorearen egoera aztertzeko. Atzokoan nazioarteko urak kontrolatzeko neurri posibleak landu zituzten.

Estatu espainiarreko Arrantza ministroa de Pedro Solbesek azaldu zuenez, «Konferentzia arrantz errekurtsoen eskasiagatik kezkaturik agertu da».

200 miletatik kanpo dauden arrain 'stockak' zein neurriraino zatika daitezkeen aztertu zuten atzoko bilera itxian. Era berean, Solbek neurri hauek ezartzeak ekarriko lukeen konplexutasun juridikoa azpimarratu zuen.

ELKARTE MIXTOAK BULTZATU

Madrileko Gobernuko Arrantza ministroak gaineratu zuenez, «garapen bidean dauden estatuek arrantz errekurtsoak dituzten arren, industria sendoak falta zaizkie». Arazo hau gainditzeko «elkarte mixtoen eredua» hobetuko dutela adierazi zuen.

Estatu ezberdinetako ordezkariak bat etorri ziren «arrantza produktuen merkatua liberatzeko bidean» jartzearen beharraz, «horrela oreka handiagoa lortzeko».

Arrantza ministroek merkatua «liberalizatu» beharra azpimarratu zuten.

La Casillako begirale ohiek bertako terraza hartu zuten

BILBO

Bilboko Udaleko Kirol Institutuko begirale ohi batzuek, La Casilla kiroldegiko terrazan itxialdi bat egin zuten atzo, aurrez aipaturiko Udal Institutuak, eta Guedan enpresak, kontratua berritu ez dielako. Goizeko hamarretan hartu zuten terraza, eta ia bi orduz, gutxi gorabehera eguerdiko hamabiak arte, izan ziren bertan. Aipatzekoa da, inolako iskanbilarik ez zela gertatu.

Joan zen ekainera arte, lan kontratuaren jabe ziren langile hauek, baina berritzeko garaia iristean ezezkoa eman zien enpresak. Horren arrazoia, begirale batek azaldutakoaren arabera, euren lanpostua ziurtatzeko egin dituzten eskaerak izan daitezke. «Urte askotan, ziurtasunik gabe egon gara. Uda hastean amaitzen zen gure kontratua, baina nolabait, oporraldiaren ondoren berrituko zigutenaren bermeaz. Hala ere, aurten beste langileekin parekatzea eskatu dugunean, ez digute berritu», arguditatu zuen.

Honez gain, kaleratua izan den langile talde honetako kideek, guztiak Guedan enpresak azpikontratatuak, orain arte jasan izan duten desberdintasun egoera salatu zuten. Izan ere, Institutuak zuzenean kontratatutakoek egindako lan berdina egin, eta ordutegi bera bete arren, hauen soldataren erdia jasotzen zuten, eta ez zuten aintzinakotasun eta berziklatzeko eskubiderik.

Ondorioz, iragandako uztailetik aurrera protesta ekintza ugari egin dituzte Udal Kirol Institutuko begirale hauek, eta salaketak egin dituzte gizarte gaietako epaitegian.

Errioxako mahasbiltzea aurreratzea gomendatu dute

GASTEIZ

Araba eta Nafarroako Errioxa barneratzen dituen 'Rioja' jatorrizko izendapenaren Kontseilu Erregulatzaileak mahasbiltzea urriaren lehen astera aurreratzea gomendatu du 'zonalde goiztiarra' deritzonaren kasuan. Zonalde ertainean hurrengo astean hastea komenigarria dela gaineratu du.

Mahasbiltzearen aurreratzea abuztuan izan den tenperatura beroek eta euririk ez egiteak eragin dute. Zenbait tokitan irailaren azken astean mahatsa biltzen hastea proposatu dute Kontseiluko adituek.

Industriaren egoera «jasanezina» da ELA, CCOO eta UGTren arabera

Protesta ekintzak iragarri dituzte administrazioen jarrera aldatzeko

Euskal Herriak, eta batez ere Durangaldeak industria arloan bizi duten egoera oso larria da, ELA, CCOO eta UGT sindikatuen ustez. Gainera, administrazioen jarrera utzikeriazkoa da hiru sindikatuen iritziz, eta ondorioz protesta ekintzak iragarri dituzte.

IDURRE ESKISABEL / **BILBO**

ELA, CCOO eta UGT sindikatuak, Industrialdeak bizi duen industri egoera larriarekin kezkatuta azaldu ziren, atzo egin zuten prentsaurrekoan. Sindikatu hauetako ordezkarien ustez, Euskal Herrian gertatzen ari den industri galera gero eta handiagoa da, eta Durangaldean neurri itzelak hartzen ditu, Juan Olaskoaga, ELAko metal arloko idazkariak azpimarratu zuenez.

Honekin batera, bai Madrileko administrazioak eta bai EAEkoak egoera honen aurrean hartutako «utzikeriazko» jarrera salatu zuten, eta berrindustrialtzea nahiz lanpostuen berreskurapena lortzeko «neurri zehatzak» hartzea beharrezkoa zela azpimarratu. Hiru sindikatu hauetako ordezkariek aipatu zutenez, eskaera horiek egiteko, eta industriaren egoera zuzentzeko, protesta ekintzak egingo dituzte epe laburrean, eta hauetatik lehenegoa, hilaren 12rako, Durangon deitu duten manifestazioa izango da.

Hilaren 12rako manifestazio deialdia egin dute ELA, UGT eta CCOO sindikatuetako ordezkariek. JOSE SIMAL ARGAZKIA

Olaskoagak emandako datuen arabera, azken hilabeteetan, 375 lanpostu galdu dira Durangaldean, eta 1.300 langile dira erregulazio motaren baten eragingo dituenak. Langabetu kopurua berriz, 6.000koa da. EAEko datuei dagokienean, erregulazio espedienteak % 35 igo dira aurtengo lehen sei hilabeteetan iazko datuekin alderatuta, eta epe berean, 191 enpresa itxi dira. Lanpostu galera berriz, 15.000koa izan da, iaz zeudenen % 6, eta gerora begira ere, antzekoa izango da joera, Olaskoagaren ustez.

ADMINISTRAZIOEK NEURRIRIK HARTU EZ

Hitz gogorrak izan zituzten gainera, ELA, CCOO, eta UGTko ordezkariek, Madril eta EAEko administrazioek, industriaren egoerari buruz hartutako jarrerak aztertzeko garaian. «Azken 10 urte hauetan, birmoldapenaz hitzegitean, Madrileko administrazioak etengabe aipatu du berrindustrialtzea, baina berrindustrialtzerik ez da egin. EAEko administrazioak berriz, oraindik ez du inolako neurririk hartu krisian dauden enpresi laguntzeko», esan zuen ELAko metal arloko ordezkariak.

Zentzu honetan Eusko Jaurlaritzak zailtasunean dauden enpresei laguntzeko aurkeztutako 'Plan Bereziaren' zirriborroak hutsune ugari dituela baieztatu zuten hiru sindikatuetako ordezkariek, eta proiektu horretan sindikatuen partehartzea beharrezkoa zela azpimarratu. «Bizi dugun egoerak, neurri zehatz eta berehalakoen beharra dauka, eta horregatik premiazkoa da sindikatuok geure iritzia eman ahal izatea», adierazi Adolfo Alonso UGTkoak.

ERREAGAIEN PREZIOAK

Irailak 9

Egungo prezio errealak		Gehienezkoa
89 (=)	*Gasolina superra*	90,8 (-0,1)
86,5 (=)	*Berunik gabekoa*	88,6 (=)
85 (=)	*Arrunta*	87,4 (-0,1)
69,2 (+0,5)	*A eta B gasolioak*	69,70 (+0,6)
42,7 (+0,6)	*C gasolioak*	43,5 (+0,6)

* Salneurriak pezetatan

Gasolinen prezioak mantendu eta gasolioenak igo dira

MADRIL

Gasolinen prezioak beren horretan uztea eta gasolioenak 0,5 eta 0,6 pezeta bitartean igotzea erabaki zuen atzo Campsa konpainiak. Prezio berriak datorren 23ra arte izango dira indarrean Estatu espainiarrean.

Horrela, gasolina super litroa 89 pezetan mantentzen da, normala 85etan eta berun gabekoak 86,5 pezeta kostatzen jarraituko du.

A eta B gasolioen prezio berria 69,2 pezetakoa da eta C motakoak, berriz, 42,7 pezeta balioko du gasolindegietan. Baimendutako gehienezko prezioei dagokienez, gasolina superrarena 90,8 pezetakoa izango da, normalarena 87,4ekoa eta berun gabekoak 88,6 pezeta balioko du gehienez.

CCOOk Lan Osasun eta Ingurugiro Institutua sor dezake

MADRIL

CCOOk datorren abenduan egingo duen kongresuan lan osasun eta ingurugiro sindikal institutua eratzea eztabaidatuko du. Institutu honek autonomoki egingo luke lan eta arlo tekniko eta zientifikoak landuko lituzke.

Neurri honen helburua, CCOOko iturrien arabera, sindikatuak Espainia eta nazioarte mailan jasotzen dituen osasun, lan segurantza eta ingurugiro arloko eskariei erantzutea litzateke.

ARRISKUEN AURRIKUSPENA BULTZATU

Lan eta ingurugiro arloetan segurantza eta higienea bultzatzeko CCOO sindikatuak jarraituko duen estrategia, proiektuen sorreran arriskuen aurrikuspenean oinarrituko da. Hau lortzeko enpresetako departamendu guztietako koordinazioa ezinbestekotzat jotzen du sindikatuak.

Era berean, prebentzio heziketa profesionalen birziklaia ikastaroetan sartzea proposatuko du CCOOk.

Lan istripuak ekiditzeko CCOOk proposatuko duen beste neurri batek moldatze epeen ezarketa jasotzen du. Neurri honen arabera, lanpostu berri batean hasi aurretik, langileak esperientziadun baten ondoan egingo du lan epe zehatz batez.

Moneta unitatea atzeratuko lukeen proposamena eztabaidagai

BRUSSELE

Europako moneta batasuna eta banku zentral bakarraren eraketa atzeratuko lituzkeen proposamena eztabaidatu zuten atzokoan Europako Komunitateko (EK) Hazienda eta Ekonomia ministroek Brusselen.

Holandak egindako proposamenak jasotzen duenez, 1994eko urtarrilaren 1ean hasiko den Ekonomi eta Moneta Batasunerako (EMB) bigarren fasean Moneta Institutua eratuko litzateke. Horrek gaur egungo EK-ko banku zentraletako Gobernadore Batzordearen lana beteko luke.

Iturri komunitarioen arabera, institutu horrek banku zentralen arteko elkarlan eta koordinazioa eta EMBaren funtzionamendua zainduko lituzke batetik, eta eku-aren erabileraz arduratuko litzateke bestetik.

Era berean, bigarren fase honetan EK-ko ekonomiek duten inflazio, defizit publiko eta interes tipoak jaitsi beharko lituzkete, hirugarren fasean sartu aurretik. Azken fase horretan banku eta moneta bakarra egongo lirateke EKn. Fase hori, gutxienez EK-ko sei estatuk baldintza egokiak lortzean hasiko litzateke.

Finantza arduraduna den Henning Cristophersen komisario europarra proposamen horren aurka agertu zen, «Erromako Europako Kontseiluan erabakitakotik aldentzen bait da». Erabaki horien arabera bankua bigarren fasean eratuko litzateke. Holandaren proposamena atzera pausoa da Luxenbourgen jaso izan diren beste proposamen batzurekin alderatuz. Banku Zentral Bakarra 1996aren urtarrilaren 1etik martxan hastea proposatu zen.

Fernandez Ordoñezen esanetan «proposamen horren bidez Europako herrialde desberdinetan denbora desberdinetan emango litzateke moneta batasuna». Estatu espainiarraren posizioa Grezia, Portugal eta Italiakoarena baino hobea izanik ere, proposamena aurrera aterako balitz interes tipoak eta inflazioa jaitsi egin beharko lituzke. Bere moneta politika aurrera eramaterako orduan ere ezingo luke askatasun osoz jokatu, pezetaren balioa gainontzeko monetekin alderatuz ezingo bait litzateke % 2,5 baino gehiago aldatu.

Nekazal elikaduraren kalitate eta merkataritza aztertuko da

DONOSTIA

Gasteizko Gobernuko Nekazaritza eta Arrantza Sailak, '90eko hamarkadarako EAEko Nekazal Politika Estrategia' plangintzaren barruan, nekazal elikaduraren kalitate eta merkataritza mintegia antolatu du. Getarian (Gipuzkoa) bihar eta etzi egingo den mintegian atzerriko zazpi adituk hartuko dute parte, Euskal Autonomi Elkarteko (EAE) arlo honetako erakundeetako ordezkari eta instituzio ofizialetako kideez gain, Nekazaritza Sailetik aditzera eman dutenez.

Biharko ekitaldian nekazal elikagai produktu bat nazioarteko merkatuetan sartzeko estrategia aztertuko du Ivar Schjulbergek, Norvegiako Izokina Sustatzeko Kontseiluko kideak. EAEn sektorearen merkataritza estrategiaren berri emango du ondoren Iñaki Ormaza Eroski Kooperatibako ordezkariak.

KALITATEZKO LABELEN ESPERIENTZIA

Intermat Inc EEB-Betako enpresako ordezkaria den Santiago Etxebarriak sektoreko frankizia eta Estatu Batuetan dauden kontsumo eta merkataritza joerak jorratuko ditu. Era berean, Branini italiarrak produktuaren promozioa eta Italiako esne sektorearen kasua aztertuko ditu. Frantses ordezkariak, berriz, kalitatezko labelen esperientzia eta Akitaniako Blonde kooperatibaren kasuaz arituko dira.

Plangintza estrategikoaren barruan guztira eztabaidatuko diren gainontzeko lau gai nagusietan bezala, nekazal elikaduraren kalitate eta merkataritza mintegian ere, EAEko zenbait adituk osatutako lan taldeek kalitate eta marketingean oinarritutako Nekazal Elikadura Politikaren diseinua eztabaidatuko dute.

Bost lan talde hauek mintegi ezberdinetan egindako planteamenduetan oinarrituko da 90eko hamarkadarako Nekazal Politikaren eztabaida.

Datozen egunotan beste bi mintegi egingo dira, Berrikuntza Teknologikoa eta Ikerkuntzari buruzkoa lehena eta Ingurugiroaren gaiaren ingurukoa bigarrena. Bi hauek, bihar hasiko denarekin eta pasa diren maiatza eta ekainean egin ziren Nekazal Errententzako Laguntza Zuzenak eta Nekazal Garapena aztertu zituzten biekin batera, plangintza estrategikoaren oinarria izango diren bost gaiak osatzen dituzte.

Euskal gizarteko hainbat ordezkarik mintegi hauetan ateratako ondorioak eztabaidatuko dituzte.

Kataluniako independentziaren debatea

Talde independentistak zatituta joango dira Kataluniako Diadara

Burujabetasunaren eztabaida da protagonista biharko Jai Nazionalean

Bihar ospatuko da Barcelonan Kataluniako Diada, Euskal Herriko Aberri Egunaren parekoa. Aurtengo ospakizunaren inguruan aspaldian ez bezalako interesa sortu da Katalunian eta kanpoan ere bai, independentziaren gaineko eztabaida dela eta.

DONOSTIA

Terra Lliure erakunde armatuko sektore nagusiak armak utzi eta gero eta Esquerra Republicana-n (ERC) integratu ondoren hasi zen berotzen giro politikoa Katalunian, uztailean. Abuztuan, Soviet Batasuneko prozesu berriarekin Baltikoko herrialdeen independentzia ebitaezina bihurtzean, Jordi Pujol lehendakari katalanak jarri zuen gaia berriro pilpilean Kataluniak eta Lituaniak eskubide berdinak dituztela esanez. Geroztik, ordea, asko moderatu ditu hitzak Pujolek, eta Espainiaren batasunaren alde ere mintzatu da. Azken kolpea hiru apezpiku katalanek burujabetasuna defendatzea izan da.

Hala ere, EGUNKARIAk kontsultatutako Kataluniako iturrien arabera, ekaitz politikoa ez da hainbesterakoa. «Independentziaz eztabaida badago, baina ez pentsa orain Katalunian denak horretaz mintzatzen ari direnik edo denak independentista bihurtu direnik», komentatu zigun Crida per la Solidaritat —'Elkartasunerako Deiadarra'— erakundeko partaide batek.

MDT ('Lurraren Defentsa Mugimendua') alderdiaren iritziz, bestetik, hauteskunde kanpainako giroan ulertu behar dira independentziaren buruzko adierazpenak, eta beraz, egoera ez da komunikabideek isladatutakoaren tamainakoa.

Euskaldunak 1978ko Diadan, Fossar de los Moreres-eko ekitaldian. ROBERT

Crida eta MDT ez doaz bat eginik Diadan. Cridak manifestaldi «bateraturako» deia egin du, eta ERCz gain, beste zenbait mugimendu eta elkarte ere gehitu zaizkio. MDTk eta Catalunya Lliure-k, borroka armatua defendatzen segitzen duten alderdiek, beste ekitaldi batzuk antolatu dituzte. Gobernu autonomoan agintean dagoen CiU koalizioarentzat, estatutua onartu zenetik ez dago kaleko erreibindikazio beharrik, «subiranotasuna egunero eragiten bait da Parlament-etik». Beraz, koalizioak ez du ezer berizirik konbokatzen, eta Legebiltzarrak antolatutako lore eskaintza eta biltzar publikoarekin konformatzen dira.

Galdutako askatasunaren oroigarri

Sant Jordi eguna baino, irailaren 11ko Diada da Kataluniako benetako egun nazionala, burujabetasunaren aldeko eduki erreibindikatibo markatuena daukana. Izan ere, garaipen baten ospakizuna beharrean, galdutako burujabetasunaren oroigarria da Diada: 1714ko irailaren 11an, Felipe V. tropa espainolak Barcelonan sartu ziren.

Diadako ekitaldiak bi tokitan izaten dira. Bata, Fossar de las Moreres deritzon lekuan, bertan hil bait ziren espainolen kontra borrokan Barcelonako azken defendatzaileak. Bestea, Rafael de Casanovas-en estatua. Casanovas izan zen Barcelonako azken *conseller en cap* edo buruzagia, 1714 hartan erresistentzia antolatu zuena.

1977an Diadak berriro ospatzen hasi zirenean, ia milioi bat lagun bildu ziren Barcelonan alderdi nagusi guztiekin, baita ere PSC-PSOErekin. Estatutua onartu eta gero, zatitu egin da azken hamar urteetan Diada. Ekitaldi institutzionala geratu da alde batetik, eta talde independentistena bestetik, hauek ere zatituta maiz.

CiUko buruek independentziari buruzko jarrerak bigundu dituzte

BARCELONA

CiUko buruak aurretik esandakoak biguntzen aritu dira azken egunotan. Koalizioa osatzen duten bi alderdietako buruek independentzia baztertu dute eta Konstituzioa eta autonomi estatutua garatzearen alde egin dute.

Unio Democratica de Catalunyako (UDC) lehendakariak, Josep Antoni Duran Lleidak, «Kataluniaren subirotasunaren zati bat Espainiari pasa behar zaiola» adierazi zuen, bere ustez «Espainia eta Europa maila altuago batean daudelako». Independentzia eskatzen dutenei «ulertzen diela» onartu ondoren, Espainia estatu konfederala bihurtzearen alde dagoela esan zuen, «1931etik UDCk defendatzen duen moduan».

Kataluniako hiru gotzainek autodeterminazioaren alde kaleratu zuten pastoralarekin oso ados ez dagoela azaldu zuen Josep Antoni Duranek, batez ere «Katalunia indarrik gabe sentitzen zela» esaten zuen zatiarekin. Berea egin zuen, ordea, gotzainek esandako esaldi bat, «Katalunia katalanek nahi dutena izango da», bere ustez «autodeterminazio eskubidearen definizio xumea bait da». CiU osatzen duen beste alderdiko idazkari nagusiak, CDCko Miquel Rocak, «lelokeri handitzat» jo zuen Kataluniak Lituaniaren bide berbera hartzea. Miquel Rocaren esanetan «Espainia eredua izan daiteke Europako beste herrientzat arazo nazionalak konpontzeko orduan». Hala ere, autonomien estatuarekin «oso pozik ez daudela» onartu zuen, «gobernu sozialistaren finantz politika guztiz diskriminatorioa delako eta gure beharrei aurre egiteko behar diren baliapideak ez ditugulako».

Joan Rigol eta Josep Antoni Duran Lleida UDCko buruzagiak. TONI ALBIR

Autodeterminazioa independentziaren lehen urratsa dela dio ERCk

BARCELONA

ERCk Kataluniaren autodeterminazio eskubidea onartzeko eskatu dio Madrileko Gobernuari, «independentzia lortzeko lehen urrats moduan». Independentzia lau urratsen bitartez eskuratzea proposatu zuen Angel Colom ERCko buruak: «Katalunia lurralde ez espainola dela onartzea; Kataluniak Telefonica eta Renfe bezalako enpresak beregain hartzeko behin-behineko egitura politikoak edukitzea; subirotasun fiskala eta azkenik Armada Espainiaren zatiezintasuna gorde behar duela esaten duen Konstituzioaren zortzigarren artikulua bertan behera uztea.

Kataluniako parlamentuan dauden alderdiei independentziari buruz pentsatze

Itun autonomikoa azkartzeko eskatu du PPk

MADRIL

PP itun autonomikoa ahal bezain laster egiteko eskatuko dio Gobernuari, «Eki Europako gertaerek Euskal Herrian eta Katalunian eragina izan ditzaketelako». Jose Maria Aznar PPko lehendakaria bere alderdiak gobernatzen dituen autonomi elkarteen lehendakariekin bildu zen, Madrileko Gobernuarekin negoziatu behar duten hitzarmen autonomikoaren aurrean jarrera bakarra zehazteko.

Federalismoa eta Konstituzioa aldatzearen aurka dago PP, «autonomien estatua azken punturaino garatu ez delako». Aznarren alderdiak beharrezkotzat jo du gobernu zentralak autonomien eskuduntzak gehitzea. Alderdiaren ustez, «autonomien arteko desberdintasunak leundu egin behar dira eta horretarako derrigorrezkoa da finantzazio sistema aldatzea». Europako Komunitateak hartzen dituen erabakietan autonomiek parte hartzearen alde azaldu zen alderdi eskuindarra.

Autonomiak «agorutik», Estatu federala eskatu du IUk

MADRIL

IUk Espainia estatu federal bat izan dadin proposamen bat prestatu du. Irailaren 16an bilduko da IUko lehendakaritza bateratua, eta Estatuaren federalizaziorako plangintza bat onartuko dute. «Autonomoen bidearen agorpenak aurrerapausu bat eskatzen du». Konstituzioan oinarriturik, autonomi Estatutuen aldaketa eta finantzabide sistemaren erreforma proposatu ditu IUk.

Kataluniako independentziaren debatea

Autonomiek konpetentzia gehiago eta berdintasuna eskatu dute

Elkarte ez historikoak ez dira fido «katalan eta euskal aberatsez»

Eztabaida bizia sortu da azken egunotan Espainiako autonomi historiko eta ez historikoen artean, Baltikoko errepublikek ekarritako independentziaren aldeko mugimenduaren ildotik. Elkarte ez historikoek autonomien arteko berdintasuna eta konpetentzien areagotzea eskatu dute hitzarmen autonomikoaren aurrean.

DONOSTIA

Katalunia eta EAEren «insolidaritatea» salatu dute behin eta berriro Espainiako lurralde ez historikoek. Juan Carlos Rodriguez Ibarra Extremadurako lehendakaria buru dutela, 'autonomi pobreek' nazionalitateek dituzten «pribilegio eta aberastasun berdinak» eskatu dituzte. Bere ustez, Katalunia eta EAEk independentzia mehatxu gisa erabiltzen dute Madrileko Gobernuaren aurrean konpetentzia gehiago lortu ahal izateko. «Txantaia» horren aurrean, autonomiek Finantzazio eta Lurraldeen arteko konpentsazio fondoaren legea aldatzea eskatu dute.

Eztabaida honetan dirua da protagonista. Autonomi elkarte gehienek, eta batez ere PPren gobernua dutenek, osasun eta hezkuntza eskuduntzak zabaltzea eskatu dute, baina horretarako diru gehiago beharrezkoa dute. Madrileko Gobernuak berrogei konpetentzia emateko prest dago transferentzi legeen bitartez.



I. MARTIARENA

Katalunia hasi da jadanik finantzazioa bere aldetik negoziatzen eta hau ez dute begi onez ikusi beste autonomietatik. Hego Euskal Herriko bi elkarte autonomikoek foruei esker duten kupoa -beraiek biltzen dituzte zergak eta jaso ez dituzten konpetentzien arabera Madrileko Gobernuari ordaintzen diote- zabaltzea eskatzen dute batzuek.

BERDINTZEAREN ALDEKO AHOTSAK

Espainiako hegoaldetik etorri dira Katalunia eta EAEren aurkako kritikarik gogorrenak. Partido Andalucistaren buru den Alejandro Rojas Marcok «autonomi guztien berdintasuna» exigitu du. Hitzarmen autonomikoak izango duen garrantzia argi ikusten da bere adierazpenetan, «gu ez gaude prest Katalunia eta Euskadiri emango zaiena baino gutxiago jasotzeko, hauei bere espainoltasuna erosi behar zaielako».

Era berdinean, baina ohizkoa duen hizkera gogorrarekin, mintzatu zen Juan Carlos Rodriguez Ibarra Extremadurako lehendakaria. Rodriguez Ibarraren iritziz, «mehatxu independitistak erabiliz Espainiako Estatutik abantail gehiago lortu nahi dituztenen aurka ahotsa altxatzeko ordua iritsi da. Hortaz, ni behartua nago bizilagunaren etxean sartzea, jatekoa kentzen saiatzen ari da eta». Konstituzioa zalantzan jartzeak Extremadurako lehendakaria urduritzen du, «sasinazionalisten mugimendu horrek nazionalitateen arazoa behin betirako konpontzen zuen araudia zelako».

> «Gu ez gaude prest Katalunia eta Euskadiri emango zaiena baino gutxiago jasotzeko, hauei bere espainoltasuna erosi behar zaielako».

Baimen ilegalak emateagatik epaitzen dute Burgoseko alkatea

BURGOS

Atzo hasi zen Burgoseko Entzutegi Probintzialean 'Eraikuntzaren afera' izenez ezagutzen den kasuaren epaiketa. Bertan Jose Maria Peña San Martin Burgoseko alkatea eta udal eta Castilla-Leoneko zenbait mandatari epaituko dituzte beste akusatu batzuen artean, eraikuntza baimen ilegalak emateagatik.

1988ko otsailean eman zen jakitera 'Eraikuntzaren afera', Burgoseko Enpresarien Elkarteko bi partaidek alkatea, bi alkateorde eta beste zenbait pertsonei eraikuntza lanen baimenak 'Rio Vena' enpresari ilegalki emateagatik salatu zituztenean. Jesus de las Heras eta Juan Renedo enpresariek egindako salaketari talde politiko eta bizilagunen elkarte ugari gehitu zitzaizkion.

Fiskalak eta akusazio partikularraren arabera, Jose Maria Peñak, beste akusatuen laguntzarekin, bi mila miloi pezetako (ehun miloi libera inguru) balioa zuten eraikuntza lanen baimena ilegalki eman zion Antonio Miguel Mendez Pozo bere lagunari. Baimen horiek zabaldu ahal izateko, akusatuei agiri publikoak faltsutu izana leporatzen zaie, lur zolu publikoa ematea eta planuen aldaketa justifikatuz.

Delitu horiengatik fiskalak bederatzi urteko gartzela zigorra eskatu du eta akusazio partikularrak hogeitamar. Beste akusatuentzat sei hilabete eta hamaika urteko gartzela zigorra eskatu du fiskalak. Defentsak akusatu guztiak bere karguetatik libre uztea eskatu du, bere esanetan ekintza kriminalik egin ez dutelako, administrazioko irregulartasunak egin direla onartu arren. Hau ez da lehen aldia PPkoa den Burgoseko alkatea epaitzen dutena. Martxoan epaile batek errugabetzat jo zuen 'Campofrio kasuan' lur zolu publikoa irregularki saltzeagatik.

Tarregako larunbat gaueko gertakarien ondorioak. GOMEZ VIDAL

Gau iskanbilatsuaren ondorioz hamazazpi atxilotu Katalunian

TARREGA

Asteburuan gertaera larriak izan dira Kataluniako Tarrega herrian, antzerki ihardunaldi batzuen inguruan gazte talde bat udaletxea hartzen saiatu zenean. Ondoren, denda askotan kalteak eragin zituzten gazteek.

Erasoaren arrazoiak ez daude oso argi, baina gazteak mozkortuta egon zitezkeela eman du aditzera bertako poliziak. Goardia Zibilak eta Mossos d'Esquadrakoek —polizia autonomoak— hartu zuten parte istiluetan eta 86 gazte atxilotu zituzten guztira. Horietako 64 libre utzi zituzten baina gainerakoak espetxeratu egin dituzte. Atzo Tarregako udalak kondenatu egin zituen gertaera horiek.

LABURREAN

KATALUNIAko polizia autonomoa finantzatzeko ituna

Kataluniako agintari autonomoek eta Madrileko Gobernuak gaur berretsiko dute Kataluniako polizia autonomoaren —Mossos d'Esquadra direlakoak— finantzamendu akordioa. Polizia autonomoaren 1.125 mosso-etarik, 800en soldatak Estatuak ordainduko ditu. 3.000 milioi pezetako hitzarmena da gaur sinatuko dena. Hala ere, Mossoak hedatu arren, ez dira Kataluniatik joango gaur han dauden Polizia Nazional eta Goardia Zibileko indarrak ●

LURREKO Armada espainola handiegia dela diote

Espainiako Senatuko Defentsa batzordearen burua den Ignacio Diaz Gonzalezen iritziz, «Espiniako Lurreko Armada handiegia da eta ez dator bat Espainiaren defentsa eta segurtasun premiekin». PSOEkoa den Diaz Gonzalezek Armadaren berregituraketa eskatu du. «Ekintza azkarrerako indarrak» sortu beharko liratekeela esan du PSOEko politikari honek ●

CHIRAC sozialisten eta FNren kontra gogor

Jacques Chirac Pariseko alkate eta Frantziako oposizioko buruak hauteskunde kanpaina giroan barneratu zuen igandean. RPR alderdiko gazteriaren udako unibertsitatea amaitzeko ekitaldian, sozialisten politika gogor kritikatu zuen. Sozialisten agintearen hamar urteak biziki kaltegarriak izan dira Frantzia rentzat, Chiracen iritziz. Le Pen -en FNren kontrako hitzak ere izan zituen, FNk ez daukala eran tzunik Frantziaren benetako gal derentzat adierazi bait zuen ●

MAGREBeko 45 etorkin atxilotu zituen Espainiako Poliziak

Espainiara ilegalki sartu nahi zuten 45 magrebiar atxilotu zituen atzo Poliziak Almuñecarren (Granada). Bi txalupetan iritsi ziren etorkinak Almuñecarreko hondartzara eta bertan atxilotu zituzten. Gehienak Nadorretik zetozen marokkiarrak dira. Poliziaren susmoen arabera, Espainiara sartu nahi zuten etorkin magrebiar gehiago egon daitezke oraindik hondartza inguruan ezkutatuak, oraindik ez bait dute bigarren txalupa aurkitu ●

Mazedoniak bere independentzia erabaki du erreferendumean

Ante Markovicek Jugoslaviako Gobernuan aldaketak egingo ditu egungoa geldituta bait dago

Igandean eginiko erreferendumaren ondoren, Mazedonia Jugoslaviako Federaziotik bereiztu den hirugarren errepublika bihurtu da. Atzo eman ziren bozketaren emaitzak, eta oraindik % 100 emaitzak jakin ez baziren ere, botoemaleetatik % 74,17k independentziaren aldeko botoa eman zuen. Errepubliak honen independentziarekin gauzak nahaspilatsuagoak geratu dira desegiten ari den Federazio jugoslaviarrean.

DONOSTIA

Eslovenia eta Kroaziaren atzetik hirugarren Errepublika independiente bihurtu arren, adituek diote ez dutela beren independentziaz aske gozatuko, interes desberdinez inguraturik bait dago, Serbia, Bulgaria, Grezia eta Albaniaren artean.

Armada Federal jugoslaviarraren iritziz, nahikoak dira inguruko herriek Mazedoniaren jabe egiteko duten nahia, Errepublika honek bere independentziaz osoki ez gozatzeko.

Albaniak lurralde mazedoniarreko zati bat eskatzen du, bertoko gutxiengo albaniarra (biztanlegoaren % 30) bizi dena hain zuzen. Lurralde honetan izan da bestalde, independentziaren gogoak botorik gutxiena jaso duena, bertoko biztanleek ez bait dute uste independienteak izanda orain bizi duten egoera kaxkarra hobetuko denik.

Bulgaria izan da Mazedoniaren independentzia onartuko duela esan duen lehen Estatua. Bulgariarrek eta mazedoniarrek ia hizkuntza bera egiten dute, bariante txiki batzuren aldearekin. Sofiak orain arte Mazedoniako Errepublika Jugoslaviarra onartzen zuen, baina ez zituen mazedoniarrak bulgariarretatik bereizten. Adituen ustez, nazionalismo mazedoniar jugoslaviarrak Jugoslavian serbiarren nagusitasuna onartzen zuen «gaitzerdi bezala», Bulgariak bera ez irensteko, ez bait zizkion bere berezitasun etnikoak kontutan hartuko. Dena den, bulgariarren etniari lotuago sentitzen dira jugoslaviarrenari baino.

Jugoslaviaren egoera berria dela eta, Ante Markovic, Jugoslaviako lehen ministro federala bere gabinetean aldaketak prestatzen hasi da.

Egunargiz ez zen Osijeken erasorik egon, eta bi goardia nazional hauek erosketak egiteko astia izan zuten.

GOBERNU JUGOSLAVIARREAN ALDAKETAK

Esloveniak eta Kroaziak, eta orain Mazedoniak beren independentzia prozesuarekin jarraitzeko asmoa agertu dutenez, kartera batzuk aldatu behar dituela adierazi zuen lehen ministro jugoslaviarrak. Izan ere, Gobernua erabat geldituta dago, bere ministroek ez bait dute beren errepubliken aurkako erabakirik hartu nahi.

Enfrentamenduak atzo egun argiz geratu egin ziren, igandean Armada Federalak eraso gogorrak egin ondoren. Stijepan Mesic, lehendakari federalaren mehatxuak eraginik izan dezake borroken etetean, baina dena den, gauean izan ohi dira erasorik gogorrenak. Mesicek gerra kontseiluarekin mehatxu egin zien Armada federaleko agintari nagusiei eraso gehiago egiteko aginduko balute.

> ✓ Mazedonia independiente bihurtu arren, adituek diote ez dutela bere independentziaz aske gozatuko.



Milan Martic.

Milizia serbiarren buruzagia atxilotu eta aske utzi zuten Bosnia Herzegovinan

BEOGRAD

Milan Martic, Kroaziako Krajina eskualdeko serbiarren altxamendua antolatu zuen liderra, atzo 12 ordu atxilotuta egon ondoren libre utzi zuten Bosnia Herzegovinako agintariek. Martic Bosanski Otok hirian atxilotu zuten, Bosnia Herzegovina eta Kroaziako muga ondoan. Izan ere, lurralde hau Bosnia Herzegovinan badago ere, serbiar asko bizi da bertan eta Krajinaren barruan dago. Martic-ek altxamendua mugaren beste aldean antolatu zuen, Kroazian eta atxilotu zutenean zer egiten zuen ez zuten bertako iturriek jakitera eman.

Bertako kroaziarrek Martic atxilotuta zeramatenean autoa inguratu eta Unac ibaira botatzen saiatu ziren. Dena dela, atxiloketa jendearen haserretik ateratzeko egin zela ere esan zuten iturri ez ofizialek. Bosnia Herzegovinan serbiarrak % 31 dira eta adituek azaldu dutenez, errepublika honetan Martic-ek altxamendu bat antolatuko balu gerra zibila hedatzeko arriskua handia legoke.

Bake Konferentzia dela eta

Jugoslaviari buruzko Bake Konferentziaren hasierak frogatu du Federazio honetako krisia uste baino konplexuagoa dela. Hagan hasitako konferentzia honek borroken etetea exigitzen du, baina orain arte egindako ahalegin guztiek porrot egin dute. Serbiako errepublika eta Armada Federala dira suetena izan dadin galerazten duten faktoreak. Serbia eta bere aliatuen jokaeraren aurrean, Europako Komunitateak behartu egin dituzte errepublika hauetako agintariak EK-k berak proposaturiko suetena sinatzera.

Baina honek ere ez du balio izan. Saiatu arren, diplomazia europarrak etengabe arazoekin egiten du topo. Serbiarrek hartutako lurralde bakoitzean beren Gobernua eratu dute eta exigitu dute hitzarmen guztiak agintari kroaziarrek sinatzea eta ez agintari lokalek. Hauek lurralde serbiar berrien onarpentzat hartu dituzte EKren ekintzak. Dena den, EK-k lortu du zenbait kasutan serbiarrek ere suetena sinatzea. Azkenengo gertakizunek frogatu egin dute Europaren partehartzea beranduegi iritsi dela edota ez dela eraginkorra izan.

Baina alde serbiarrak ere badu zeresanik Konferentzian. Milosevic lehendakari serbiarrak ez du inolako ahaleginik egingo EKren Bake Konferentzia desegiteko, alderantziz baizik, propaganda neurri gisa erabiltzen saiatuko bait da. Helburua munduari frogatzea da serbiarrak defendatu besterik ez direla egiten kroaziarrengandik, eta horregatik behar direla aldatu barne mugak.

EK-k aldioro eginiko mehatxuek, Serbiari zigor ekonomikoak ezartzeak eta Eslovenia eta Kroaziaren independentziak onartzeak, dirudienez eragina izan dute. Kroazia eta Esloveniaren independentzia ez onartzeak serbiarrek konkistatutako lurrak negoziatzea baimentzen dio nazioarteko laguntzarekin.

Era berean, Eslovenia, edozein unetan joka dezakeen karta bihurtu da. Serbiak eta bere aliatuek eta agian Gobernu Federalak Eslovenia herri subirano onar dezakete. Kolpe hau ez du EK-k espero, baina gertatuko balitz, diplomazia europarrak bere presiobide bat galduko luke eta bere barne batasuna arriskuan gera liteke.

Almorabideen garaietara itzul daitezkeela esan du Polisarioak

DONOSTIA

Bachir Mustafa Sayed Polisario Fronteko liderrak esan zuenez, Saharako autodeterminazio erreferendumean Marokkok aurkeztutako zentsua onartzen bada almorabideen garaietara itzuliko ziren. Sayed-ek hitz gogorrak izan zituen Marokkoko Erregearentzat. Nazio Batuen Erakundeak (NBE) proposatutako zentsuari 50.000 botoemale gehitzea atzerapausu ikaragarria izango zela iragarri zuen.

Sayedek Sahararen egoera almorabideen inperioarekin konparatu zuen. XII mendean, almorabideek Marokko, Aljeria, Libia eta Espainiaren hegoaldea okupatu zuten, inperio musulmana ezarriz. Sayedek esan zuenez, Marokkok aurkeztutako zerrendan azaltzen zirenek botoa emateko eskubidea bazuten, «ez dakit zergatik Tunizia, Aljeria edo Espainiako hegoaldekoek ezin izango zuketen botorik eman».

Polisario Fronteko Kanpo Harremanetarako arduraduna izan zenak azaldu zuenez NBEren Segurtasun Kontseiluak arrazoiaren indarra inposatuko du eta bakearen logika ezarriko da.

Marokko eta Polisario Frontea bake akordio batera iristeko ados jarri zirenean, marokkiarrek 1974ean espainiarrek eginiko zentsua onartu zuten autodeterminazio erreferenduma egiteko. Gaur egun, ordea, Marokkok zentsu askoz handiago aurkezten du eta saharauiarrak beldur dira Hassan II erregeak erreferendumaren kontra duen jarrerarekin.

Aljeriako komunikabide eta adituen artean nazioartean dagoen giroak Marokkoren posizioa ahultzen dutela azaltzen dute. Soviet Batasunaren desagerpena eta nazionalismoen berpizkundeak Polisario Frontearen tesiak indarberritu ditu. Sayed iritzi berekoa da eta Abdelatif Filali Marokkoko Atzerri ministroak EEBBetara eginiko bisitak jasan zuen porrota aurkeztu zuen froga moduan. Aljerian esaten denez, Hassan II erregeak ez du aukera gehiegirik erreferendumean berak nahi duen botoemaleen lista ez bada erabiltzen. Irtenbide bakarra sinatutako akordioei jaramonik ez egitea eta okupazio militarra areagotzea liratteke.

> ✓ Sayed: «NBEren Segurtasun Kontseiluak arrazoiaren indarra inposatuko du eta bakearen logika ezarriko da».

Moskun Europako Segurtasun eta Kooperazio Kontseilua bildu da

SESBeko hiriburuan 35 naziotako Atzerri ministroak aurkituko dira

Atzo Mosku-n Europako Kooperazio eta Segurtasun Kontseiluko 34 naziotako ordezkariak bildu ziren. Kontseiluaren bilera demokrazien finkapenaz hitzegiteko egin zen eta partaideen artean SESB eta Baltikoko errepubliketako Atzerri ministroak zeuden. Bilera hau Kooperazio eta Segurtasun Kontseiluak giza eskubideen inguruan egiten duen hirugarrena eta azkena da. Lituania, Letonia eta Estoniak lehen aldiz hartuko dute parte Kontseiluko bileretan.

MOSKU

Segurtasun eta Kooperazio Kontseiluaren bilerak helburu nagusia du: Vienako Kartak giza eskubideari garrantzi handia ematen bazion, oraingoan estatuen izaera demokratikoa sakontasunez tratatu nahi da. Horrela, atzo hasi zen bilerak hiru ardatz edukiko ditu: Kontseiluaren partaide diren nazioen ekintzak eztabaidatu, beti ere nazioartean sinatutako akordioak errespetatuz, nazio bakoitzak giza eskubideak bermatzeko dituen baliabideak aztertu eta esperientzien elkartrukaketa egin.

Kooperazio eta Segurtasun Kontseiluaren bilera hauek Viena-ko Karta egiterakoan antolatu ziren. Lehen bi bilerak Kobenhavn eta Paris-en egitea erabaki bazen, hirugarren bilerarako Mosku proposatu zenean tirabirak sortu ziren.

AZERBAIDJANEKO HAUTESKUNDEETAN ISTILUAK

Soviet Batasuneko hiriburuan Kooperazio eta Segurtasun Kontseilua biltzen zen bitartean, Kaukasoko errepubliketan egoera ez zen oso lasaia. Georgiako borroka armatuak alde batera utzita, Azerbaidjanen hautagai bakarreko hauteskundeak egin zituzten. Botoemaleek aldeko ala kontrako botoa baino ezin zioten eman Aiaz Mutalibov bertako lehendakariari. Hauteskundeak kalean lehendakariaren kontrako manifestaldiak zeudenean egin ziren.

Hautagai bakarra aurkezteaz gain, Azerbaidjaneko hauteskundeak bazuen berezitasunik: aukeraketak balio zedin biztanlegoaren % 50ek baino gehiagok botoa eman behar zuen. Azerbaidjaneko Fronte Herrikoiak Mutalibov-en dimisioa eskatu eta hauteskundeen indargabetzea eskatu zuen. Herenegun Azerbaidjaneko hiriburuan 25.000 lagun bildu ziren.

ARMADA LITUANIATIK IRTETEN

Armada sovietarreko soldaduak atzo hasi ziren Lituaniatik irteten bertako irratiak adierai zuenez. Atzo irten ziren soldaduak Vilnius hiritik Kalinigrad, Errusiako errepublikako lurraldera joan ziren. Lituaniako agintariek behin eta berriro azaldu zuten armada sovietarrak aurten irten behar zela.

Van den Broek eta Delorsekin dauden Baltikoko errepubliken Atzerri ministroek CSCEko bileran parte hartuko dute.

✓ Bilera hau Kooperazio eta Segurtasun Kontseiluak giza eskubideen inguruan egiten duen hirugarrena eta azkena da.

Ustez IRAko kide bat atxilotu du Holandako Poliziak

AMSTERDAM

Holandako Poliziak irlandar bat atxilotu zuten herenegun gauean, ustez Irlandako Armada Errepublikarreko (IRA) partaidea izatearen akusaziopean. Atxilotutako irlandarrari Antwerpen-en (Belgika) egindako atentatu bateko partaideetako bat izatea egotzi diote Polizia agintari holandarrek, atzo Holandako prentsak zioenaren arabera.

Atxilotutakoa Peter McNally da, eta Holandako Poliziako bozeramale batek adierazi zuenez, bere izena, Anthony Kerr irlandarrarenarekin batera «ekintza terroristak egiteagatik bilaketa agindua duen pertsonarik bilatuena da nazioarteko zerrenda batean».

Belgikako agintariek McNallyren estradizioa eskatu zuten, 1989an gertaturiko tiroketa batean, ustez Antewarpeneko gendarme bati lepoan labanaz zauritu zuena izateagatik. 1989ko azaroan, McNally eta Kerr zeuden automobilaren behaketa egitera zihoala zauritu zuten gendarmea.

IRAko ustezko partaidea, Amsterdam-eko kaleetan atxilotu zuten emakumezko batekin zihoala, baino oraindik ez da jakitera eman McNallyrekin batera zihoan emakume horrek ekintza deliktiborekin zerikusirik duen. McNally eta Kerrek Belgikako Postaren bulego baten lapurretan ere zerikusia dutela uste dute Belgikako agintariek.

Tadjikistan-eko Legebiltzarrak independentzia aldarrikatu zuen

MOSKU

Tadjikistan-ek atzo aldarrikatu zuen bere independentzia, Legebiltzarrean egindako pleno berezian ebazpen bat onartu ondoren. Ebazpenak zioenez, Tadjikistan eskubidezko estatu subirano eta demokratikoa zen. 'Interfax' agentziak azaldu zuenez, Tadjikistaneko Legebiltzarrak irailaren 9an Independentziaren Eguna ospatzea erabaki zuen. Horrela Soviet Batasuneko hamabost errepubliketatik hamaika independentziaren alde azaldu ziren.

Tadjikistan Ertasiako errepublika musulmana da. Bere ondoan Uzbekistan, Kirgizistan, Afghanistan eta Txina daude. Errepublikan 5.112.000 lagun bizi badira, 3 milioi inguru tadjikak dira eta biztanlegoaren % 23 berriz uzbeka. Tadjikistaneko Badakhxan eskualde autonomoan tadjikak gehiengoa dira, biztanlegoaren % 83 tadjikak dira eta % 11 kirgizak. Errepublikako hiria Duxanbe da eta 600.000 biztanle bizi dira bertan.

✓ Tadjikak garai batean karabanak pasatzen ziren tokietan hiriak eraiki zituzten, 7.000 metroko mendien artean zeuden haranetan.

Tadjikistan 1924ean bihurtu zuten SESBeko errepublika. Ordura arte inguruan sortu ziren inperioen menpe egon zen: mongoliarrak, pertsiarrak, afghanoak eta azkenik errusiarrak. Tadjikak musulmanak izan arren, batzuk sunitak dira eta besteak txiitak. Azken hauek Afghanistanen bizi dira gehienbat. Tadjikistan oso menditsua izanik zenbait herriren pasabidea ere izan da.

Tadjikek garai batean karabanak pasatzen ziren tokietan hiriak eraiki zituzten, 7.000 metroko mendien artean zeuden haranetan. Bertan tadjikek kultura berezia sortu zuten, pertsiar inperioaren eraginpean. Tadjikek literatura aberatsa dute: beraien lehen poeta nazionala Muxfiki da, 1525 jaio eta 1588 urtean hil zena.

Shamirrek soilik atsegin dituen palestinarrekin negoziatuko du

DONOSTIA

Yitzhak Shamir-ek, Israeleko lehen ministroak atzo adierazi zuen, bere «herriak ez duela Ekialde Erdiko Bake Konferentzian parte hartuko Zisjordanai eta Gazzah lurralde okupatuetako ordezkaritza palestinarrarekin ados ez bagaude». Lehen ministro israeldarrak gaineratu zuen «Estatu Batuekin konpondu dugun gaia dela hau». Shamirrek Israeleko irrati estatalean egin zituen adierazpenok, juduen urte berri ospakizunean.

Palestinaren Askatasunerako Erakundeak (PAE) parte hartzen badu, eta Jerusalemeko arabiarrak Bake Konferentzira joango balira, Israelek ez luke partaideratzik bidaliko. Shamirrek esan zuen oraindik ez dela urrian egitekoa den Bake Konferentziarako egunik jarri, «jordaniar-palestinar ordezkaritza oraindik osatu gabe dagoelako eta agian konpontzeke dauden arazoak sor daitezkeelako».

Israelek 1967az geroztik okupatutako lurralde arabiarreko ordezkariak Kontseilu Nazionalak edo «Exilioko Legebiltzar palestinarrak» izendatuko ditu datorren irailaren 23an. Shamirrek ez zuen erantzun nahi izan sartu berri diren 5752. urtean Israel arabiarrekin negoziatzeko prest dagoen, horren ordez, lehen ministro israeldarrak ihardetsi zuen «pozten naizela .751. urtean Israelen lau milioi judutik gora izatea eta espero dut urte honen amaierarako bost milioira iritsiko garela».

✓ Kontseilu Nazionalak edo «Exilioko Legebiltzar Palestinarrak» izendatuko ditu datorren irailaren 23an lurralde okupatuetako ordezkari arabiarrak

Joan den astean George Bush lehendakari iparramerikarrak Washington-eko Kongresuari eskatu zion lau hilabetez atzeratzea Israelek EEBBei eskatutako maileguari buruzko eztabaida. EEBBetako lehendakariaren erabakia ez zitzaion batere gustatu Shamirri. Hoene iritziz, «arabiarrak teilatuetan dantzan hasiko» dira erabaki honekin.

Chilen iskanbila latza sortu dute Pinocheten hitzek

SANTIAGO DE CHILE

Augusto Pinochet jeneralaren inguruan berriro ere iskanbila sortu da. Ohi zen bezala Patricio Aylwin Chileko lehendakariak jenerala ohartzeaz arduratu beharra izan zuen. Bere azken hitzek, Santiago de Chileko hilerrian aurkitu ziren zerraldoak lurperatzeko modu egokia goraipatzean chiletarren kontzientzia astindu zuten. Duela 18 urte bere alde atera ziren sektore eskuindarrek ere gogor kritikatu zituzten diktadore ohiaren hitzak.

Ezaguna zen Pinochetek hitz gogorrei zien zaletasuna. Aylwin lehendakariak jeneralaren hitzak zirela eta behin baino gehiago estutasunetan aurkitu zen. Diktadore ohiak Alemaniako Armadaz hitzegiterakoan «homosexual, ileluze, sindikalista, marihuana eta drogazaleak» zirela esan zuen inolako lotsarik gabe. Eliza Katolikoak bere erregimenean eginiko torturak eta desagerpenak salatzean bera katoliko, apostoliko eta erromatarra izan arren inozoa ez zela esan zien bertako gotzainei. Estatu kolpearen 18. urtemugarako egun gutxi falta direnean Pinochetek garbi utzi du bere harrokeria komunismoa kentzean eskarmentu paregabea eman zuela esatean.

EKn integratzea eztabaidagai nagusia Norvegiako bozketetan

Atzoko hauteskundeetan batasun europarraren aldekoak porrotaren arriskuan

Europako Komunitatean sartu ala ez izan da atzo Norvegian egin ziren hauteskundeetako kanpainaren eztabaidagai nagusia. Hauteskunde hauetan Udalen eta Kontseiluen osaketa erabakiko da, Legebiltzarra bere agintaldiaren erdialdera iritsi den honetan. Emaitza ofizialen zain, Gobernuan dagoen Alderdi Laboristaren beherakada iragarri dute inkestek.

OSLO

Hauteslegoa (3,3 milioi lagun eta horietatik 81.000 duela hiru urtetik gora Norvegian bizi diren atzerritarrak) Europan integratzea proposatzen duten alderdien aurka jarri da, eta horiek jasoko dute jipoirik handiena, Gobernuko Alderdi Laboristak eta Hoyre kontserbadoreak, oposizioko talderik handienak, hain zuzen.

Eztabaida europarrak ezkerreko sozialistak eta zentrukoak aurrera bultzatu ditu. Bi talde hauek Europako Komunitatean sartzeari uko egiten diote eta beren mitinetako diskurtsoek hauteslegoaren nazionalismoa indartu dute.

Igandean agertutako inkestek, Gobernuko alderdiari botoen % 32,7 ematen diote, duela lau urte % 35,9 lortu bazuen ere. Hoyrek berriz, % 22,7 lortuko luke 1987tik 1,2 puntu jaitsiz. Ezkerreko sozialistek ordea, beren boto kopurua bikoiztuko lukete, % 13,2ra igoko lirateke eta.

Brundtlanden Alderdi Laboristak porrot egin dezake hauteskundeotan.

LEHEN MINISTROAREN MEHATXUA

Europako Komunitatearen integrazioarako debateak istiluak sortu ditu, eta Gro Harlem Brundtland-ek, Norvegiako gobernuburuak bere dimisioa eta bere exekutibarena aurkeztearekin mehatxatu du. Brundtlandek hauteskundeen ondoren dimititu egingo zuela esan zuen, beste alderdi politikoek Gobernuari laguntzen ez bazioten Komertzio Askerako Elkarte Europarra eta Europako Komunitatearen arteko negoziaketetan. Negoziaketa hauekin lurralde ekonomiko europarra osatu nahi da. Baina azkenean, lehen ministroaren mehatxua Legebiltzarreko Atzerri Komisioarekin biltzeko deialdira mugatu zen.

Norvegiak 1972an EKn sartzeari uko egin zion erreferendum baten bidez, % 53,5ek ezezkoa esan bait zion, eta gai honek bertoko biztanleria zatitzen segitzen du, duela gutxi bere aldameneko Suediak EKn sartzeko eskaera egin ondoren.

Inkestek diotena betetzen den ala ez gaur emango du jakitera Oslok, baina EK-ko eztabaidagaiak gerra ondorengo desenplegu tasarik handiena estaltzea lortu du.

Polizia hegoafrikar bat borroketan hildako bat estaltzen.

Johanesburgeko heriotzak 57ra igo dira igandeko borroketan

JOHANESBURG

52 lagun hil ziren herenegun Hego Afrikan, Afrikako Kongresu Nazional (ANC) eta Inkata talde zuluaren jarraitzaileen arteko enfrentamenduetan, Johanesburgeko auzo beltzetan, iturri polizialek atzo adierazi zuenez. Enfrentamenduak, ustez ANCko hiru jarraitzaileek Johanesburgeko estadio batean egin behar zen mitinera zihoazen Inkata taldeko jarraitzaileak tirokatu zituztenean hasi ziren. Tiroketaren ondorioz hemezortzi lagun hil ziren.

Ondoren iskanbilak Johanesburg guztira zabaldu ziren, Inkatakoek lehen hildako lagunen mendekua hartzeko hasitako borrokekin. Azken emaitzaren arabera, 57 dira hildako lagunak, baina gehiago izan daitezke. Azken hilabeteotako borrokarik gogorrena den honek, ANC, Inkata eta De Klerken Gobernua egiten ari diren Bake Konferentzia arriskuan jar dezake.

Argentinan Menemen Alderdi Justizialistak irabazi zuen

BUENOS AIRES

Argentinako hauteskundeetan Carlos Menem lehendakariaren Alderdi Justizialistak garaipen nabarmena lortu zuen. Atzean gelditu zen Raul Alfonsinen UCR, Alderdi Erradikala. Ultraeskuindarrak hirugarren postua lortu zuten Buenos Aires hiriburuan. Argentinarrek botoa emateko orduan ez zuten kontutan izan Menemen familiaren inguruan diru beltza zuritzeagatik sortu zen iskanbila.

Garaipenaren arrazoien artean, adituak ados agertu ziren Domingo Cavallo Ekonomia ministroak inflazioaren aurka egindako kanpaina erabakiorra izan zela argentinarrentzat botoa ematerakoan. Cavallok abuztuko inflazioa % 1,3ra jaistea lortu zuen, azken 17 urteetan inork lortu ez zuena. Ekonomiako ministroa legegizon, esportatzaile eta enpresariekin bildu eta bere estabilizazio plana ezartzeko laguntza lortu zuen.

Raul Alfonsin, Argentinako lehendakari ohiaren Alderdi Erradikalak Cordobako probintzian eta Buenos Airesen botoen gehiengoa lortu zuen. Beste Probintzia guztietan Neuquen-en ezik, Alderdi Justizialista inposatu zen. Neuquen probintzian bertako 'Mugimendu Herrikoi Neuquendarrak' lortu zuen garaipena. Aldo Rico, 1987 eta 1988an Estatu kolpeak egin zituen koronelaren 'Duintasun eta Independentziarako Mugimenduak' hirugarren postua lortu zuen Buenos Airesen.

Aipatzekoa da Carlos Reutemann F-1eko pilotuak eta Ramon 'Palito' Ortega abeslariek lortutako garaipena Santa Fe eta Tucuman probintzietan. Biak Alderdi Justizialistaren hautagaiak ziren hauteskundeetan.

> Raul Alfonsin, Argentinako lehendakari ohiaren Alderdi Erradikalak Cordobako probintzian eta Buenos Airesen lortu zuen botoen gehiengoa.

LABURREAN

ESCOBAR kokaina saltzetik txerriak zaintzera pasa da

Pablo Escobar, 'Medellineko Kartelaren' buruzagi nagusia Colombiako agintarien eskuetan jarri zenean bere kokaina negozioa utzi eta txerri, ahate eta amuarrainak hazten hasi zen. Colombiako lehendakariak Estatu Batuetara ez zutela bidaliko eta espetxe berezia eraikiko ziotela agindu ondoren, Escobarrek entregatzea erabaki zuen. Escobarren abokatuek Estatuak presoen errehabilitaziorako bideak jarri behar zituela adierazi ondoren, abereak erosteko dirua lortu zuten ●

AUSTRALIAKO krisi ekonomikoa gainditu zen

Australia eta New Zealand-eko Bankuak egindako txosten batean adierazten zenez, Australiako ekonomiak azken urteotan jasaten zuen krisia gainditzen hasi zen. Txostenak lanpostuen eskaintzak eta etxebizitzen salneurriek goraka egin zutela zioen. Era berean joan zen urtean inflazioa % 7,7koa izan bazen, aurten berriz % 3,4 ez gainditzea espero zela adierazi zuten ●

TXINAN hasi dira disidenteak askatzen

Luo Haixing, Hong Kong-eko enpresaria libre utzi zuten Txinako agintariek. Luo Haixing Tiananmen plazako gazte disidentei laguntzeagatik giltzaperatu zuten. John Major Lehen ministro britainiarrak Txinara egin zuen bisitan Luo Haixing-en askapena eskatu zuen, beste disidente askoren artean. Tiananmen plazan egindako protesten ondorioz zenbait gazte hil, eta atxilotu zituzten Txinako agintariek ●

MALVINA Irletako gerran britainiarrek exekuzioak egin omen zituzten

Vince Bramley, Malvina irletako gerran borrokatu zuen soldadu britainiarrak adierazi zuenez, bere konpainiako batzuek bi soldadu argentinar exekutatu zituzten. Erresuma Batuko Defentsa Ministeritzak Bramley-k idatzitako 'Excursion to Hell' liburuan azaltzen diren gertakizunak ikertzen ari zen. Bramleyk 'The People' aldizkariari eginiko adierazpenetan hiru mertzenari estatubatuar hil zituztela ere azaldu zuen ●

FUTBOLA

Athletic sailkapeneko azkena da Sportingen kontra galdu ondoren

Osasunaren hondamendia Burgosen eta Reala iaz bezala Atotxan

Puntu bakar bat lortu zuten hiru euskal taldeen artean, azken asteburu honetan jokatutako liga txapelketako bigarren ihardunaldian. Osasunak sekulako jipoia hartu zuen Plantion, eta Realak ere iaz Atotxan erakutsi zuen gaixotasuna du aurten ere. Tabuenkaren bi golek ez zuten ezertarako balio izan eta Athletic sailkapeneko azkena dugu.

RAMON BASALDUA / **BILBO**

Ander Garitanok ez zuen ondo jokatu El Molinonen.

Hiru euskal taldeen artean ez dituzte, orain arte jokatu diren bi ihardunaldietan, sailkapeneko buru den Sevillak beste puntu lortu. Osasuna ondo baino hobeto ibili da azken denboraldietan, eta inork gutxik gogoratzen du, gorritxoek Plantion jaso zuten jipoia bezalakorik. Partidu bat galtzen denean beti agertzen da galdera berdina. Guk jokatu dugu gaizki edo beste taldeak jokatu du ondo?. Burgos-Osasuna partiduan, etxekoek gauza handirik egin ez zuten arren, Osasuna inoiz baino okerrago jokatu zuen Plantio futbol zelaian eta merezimedu osoz izan zen galtzaile. Etxetik kanpoko partidu bat galtzea ez da ez kezkatzekoa, bai ordea lau eta hutsezko emaitzaz izatea, joko negargarria erakutsi ondoren. Datorren igandean, orain arte puntu bat bera ere lortu ez duen Mallorca izango da gorritxoen etsaia Sadarren. Ezin dute huts egin Pedro Mari Zabalzaren mutilek.

EZ DA ENTRENATZAILEAREN ERRUA

Askotan esaten da, talde bat partiduak irabazi ezinik dabilenean, entrenatzailea erruduna izateaz gain, errazagoa dela gizon bat aldatzea, hamaika aldatzea baino. Athleticek ez du oso ondo hasi aurtengo liga txapelketa, baina errua ezin zaio Iñaki Saezi bota, jokalariak bait dira kasu honetan errudun bakarrak.

Patxi Ripodasen falta gehiegi nabaritzen du Athletic honek, nafarra, jokalari ona izateaz gain, nortasun handiko gizona delako. Zurigorri gehienak gazteak dira, baina ezin da inondik eta inora aitzakia hori onartu, Gijoneko Sportingeko jokalariak ere gazteak izan arren, punta puntan dabiltza eta. Athleticeko jokalariek ez dute futbolean jokatzeko eduki behar dena erakusten. Athleticek Real Madrid gainditu dezake, datorren larunbatean San Mamesen, gaitasunik badu eta, baina horretarako amorruz jokatu behar dute Saezen mutilek eta ez Sevilla eta Sportingen kontra jokatu zuten bezala. Ez dago aitzakiarik, profesionalak dira eta zalegoak emaitzak eskatzeko eskubide osoa du.

GOLIK SARTU EZINIK

Realak ez zuen partidu txarra jokatu Zaragozaren kontra, baina iaz gertatu zitzaion bezala, badirudi txuriurdinek zailtasun handiak dituztela Atotxan golak sartzeko. John Benjamin Toshackek gazte asko sartu zituen hasierako hamaikakoan, eta egia esateko, Reala ondo baino hobeto ibili zen partiduko lehen minutuetan.

Dena den, etxeko taldeak aukera garbi batzuk galtzen dituenean, joko erritmoa jaitsi ezezik, beste taldearen berpiztea ere dakar. Zaragoza hasieran Zedrunen atea zaintzen aritu bazen ere, pixkanaka aurrera jo zuten Gonzalezen atea zulatu nahian. Zorionez ez zuen bere helburua lortu, aukera garbi batzuk izan zituen arren. Realak puntu bakar bat lortu du orain arte jokatutako bi partiduetan eta gauzak gaizki jar daitezke, Sarrian irabazle izan den Oviedoren kontra Carlos Tartieren punturen bat lortzen ez badu datorren igandean.

Ezda ez, erraza izan, aste honetako euskal selekzio hau osatzea, izan ere, Osasuna, Reala eta Athleticek partidu zein baino zein txarragoak jokatu bait dituzte. Kike gaztea izan zen onena Athleticek Molinonen jokatu zuen partiduan. Andrinua, Lakabeg Tabuenka eta Valverde izan ziren betokerrak itsuen artean. Realeko jokalariak izan ziren onenak ihardunaldi honetan, etxean berdindu zuten arren. Osasunari dagokionez, Cholok bakarrik sortu zuen arrisku apur bat. Selekzio honetan sartzen ez diren arren, azpimarratzekoa da benetan, Joseba Agirre eta Lorenek Osasunaren kontra burutu zuten lan bikaina.

JOSE IRAGORRI

Farolilo zurigorria

Gijonen ezinezkoa gertatu zen. Sevillaren aurka jokatutako ligako lehendabiziko partiduan baino hobexeago ihardun zuen Athleticek, baina Saezen mutilek pott egin zuten baita ere Sportingen talde gazte baina ausartaren aurrean.

Urte ikaragarri da Athletic sailkapeneko farolilo gorria ez zela. Eta larunbatean Real Madrid dator. Zurigorriek dituzten aukerak neurtzeko benetako proba izango da. Hiru egun aurretik, bihar, Alavesen kontrako kopako partidua jokatu beharko du Athleticek Mendizorrozan. Konpetizio horretan bilbotarrei lan handiak eman izan dizkiete beti gasteiztarrek. Hori horrela, hobe lukete Real Madriden kontrako partiduarekin ez obsesionatzea, eta konpetizioari datorren bezala aurre egitea: lehendabizi Alavesa eta ondoren Antic-en taldea; badaezpadaere. Gogora itzazue bestela, iaz At. Marbella talde koskorra kaleratzeko Athleticek izan zituen lanak.

Denboraldia txukun osatzeko talderik ba ote dagoen da orain galdera nagusia; aurrekoan izandako estutasunik gabe. Zaletuek badute nahikoa zalantza. Tekniko eta zuzendaritzak ere gauzak oso argi ez dituztena erakusten dute Luis de la Fuente azken orduan fitxatu izanak, eta Patxi Ferreira errekuperatzeko gorabehera horiek. Athleticek txispa falta duela nabarmena da. Jokalariek abiadura handiegirik ez dutela, baita ere.

Begibistakoa da zuzentzeko gauza bastante dagoela, eta batez ere, bi partidutan bost gol ekarri dituzten hutsegite horiek alde batera utzi beharra. Athleticek zereginik ez dauka buruz —nork pentsatuko zuen horrelakorik orain laupabost urte—. Lehoiak, lehoi hauek, juxtu juxtu dabiltza buruz. Kikek hartu duen atean ezik, gainontzeko lerroetan ez dago presentzia fisikorik. Baina Iñaki Saezek ateratzen asmatu beharko duen beste bertuteak badituzte: gaztetasuna, ilusioa eta kalitate teknikoa. Ardurak hartu, eta heldutasunez jokatuz, taldeak lan egiteko eta partiduak irabazteko gai dela erakutsi zuen aurreko denboraldian. Negatibo gehiegi hartu baino lehen, erreakzionatu egin behar du Athleticek.

ATHLETIC CLUB

ATHLETIC CLUB

OHIZKO BILTZARRE OROKORRA

BAZKIDE KONPROMISARIEI gomuta eragin nahi zaie, Ohizko Biltzarre Orokorra gaur, irailak 10, izango dela, 19.00 orduetan, Bilboko Goi-Mailako Ingeniari Eskolaren Areto Nagusian (Urkijo zumardia, 99).

Bilbon, 1991ko irailaren 10ean

LANCIA BILASA rekin dabil Athletic

Banatzaile Ofiziala - Autonomia, 53 ● Tel. (94) 427 58 20 ● Bilbo

FLASHAK

PASAI SAN PEDROko Libia traineruak irabazi zuen Kontxako Bandera bigarren ihardunaldian izugarrizko estropada egin ondoren. Sanpedrotarrak ez zuten beste hiru traineruak atzean uzteko arazorik izan. Arraun Lagunak sailkatu zen Libiaren atzetik bigarren ihardunaldi honetan.

URIARTE-Zulaika II bikoteak eskuratu zuen Plentziako Zesta Torneoa, finalean Txikito de Bolibar eta Zabaleta menperatu ondoren. Uriartek bikain jokatu zuen eta egun dagoen jokalaririk onenetarikoa dela erakutsi zuen. Txikito de Bolibarrek aldiz ez zen espero bezain ondo ibili.

EUGI-ARRETXEk jipoi handia eman zioten Bengoetxea IV eta Errandoneari (22-5) Ceniceroko pilotalekuan. Patxi Eugik ederki jokatu zuen eta ez zuen Arretxeren laguntzarik behar izan partiduan nagusi izateko. Errandoneak partidu eskasa egin zuen.

NIGEL MANSELL britainiarrak irabazi zuen Italiako F-1 Sari Nagusia, Ayrton Sennaren aurretik. Garaipen honen ondoren, Senna agertzen da sailkapeneko orokorreko lehen postuan 77 punturekin eta Nigel Mansell bigarren postuan 59 punturekin.

WAYNE RAINEY estatubatuarra eta Luca Cadalora italiarra dira aurtengo motoziklismo mundialeko txapeldunak, 500 z.k. eta 250 z.k.etan. Kevin Schwantz estatubatuarra eta Helmut Bradl alemaniarra izan ziren Le Mansen korritutako probako irabazleak.

MAURICIO FONDRIEST italiarrak eskuratu zuen lidergoa Volta a Catalunyan, igandean korritutako bi sektoreak irabazi ondoren. Sailkapen orokorrean, Panasonic taldeko txirrindulariak segundu bateko aldea ateratzen dio bigarren sailkatuari, Rudy Dhaenens holandarra.

ONE TO TWO zaldiak irabazi zuen Donostia Saria egun dagoen zaldirik azkarrena dela erakutsiz. El Ventorrillo zalditegikoak izugarrizko karrera egin zuen hipodromoko zaldirik onenen aurka eta ez zuen saria eskuratzeko arazo handirik izan.

MACCABI TEL AVIV taldeak eskuratu zuen Hector Quiroga Torneoko garaipena, finalean Montigala Joventut gainditu ondoren. Israeleko jokalariak ziren torneoa irabazteko aukera gutxien zutenak, baina seriotasun handiz jokatu zuten, talde sendoa dela erakutsiz.

MERLENE OTTEY jamaicarrak lasterketa bikaina egin zuen Coloniako mitinean eta erraz nagusitu zen 200 metroko proban. Katrin Krabbe alemaniarrak, berriz, bigarren postua besterik ez zuen lortu 100 metroko proban, Gwen Torrance estatubatuarrak menperatu bait zuen.

ARRAUNA



San Pedrok aro handi bati bukaera eman diezaioke garaipen honekin.

San Pedroren garaipenak aro berriari eman dio hasiera

Arraun Lagunak taldeak baikortasunez begiratzen die datozen urteei

San Pedroko Libia untziak ezustean lortutako garaipenak «amaiera» eman dio traineru denboraldiari. Getaria-Donostia, El Corte Ingles... estropadek ez dute lau handien arteko norgehiagoka ikusteko aukera izango. Arraun Lagunak eta San Juan trainerua zintzilikatzeko zorian daude.

DONOSTIA

Kontxako estropadaren ostean, era guztietako iritziak entzun zitezkeen Donostiako kaian. Aditu eta arraunlari gehienek Kontxan amaitzen dute denboraldia, nahiz eta oraindik Nerbioi, El Corte Ingles eta Getaria-Donostia estropadak jokatzeke dauden.

Talde gehienek ordea etorkizunari begiratzen diote. Guztiek 1992. urteko Kontxa dute buruan jadanik. Aurten lehen postuetan aritu diren San Pedro, Orio, Arraun Lagunak eta San Juanek etorkizun ezberdina dute. Pasaitarren kasuan, 80ko hamarkadaren erdialdean hasi zuten nagusitasuna hautsi zorian daude. San Pedro eta San Juanek «bloke» bera mantendu dute azken urteotan, baina badirudi atzetik datozen gazteak gogor jotzen dutela. Kalparra eta Yolako arraunlariek protagonismo berezia har dezakete datozen urteotan.

Orioko traineruaren etorkizuna «ziurtatuta» dago. Jose Luis Kortaren zuzendaritzapean jarraituko dute agilutxoek, eta zenbait baja izango dituzten arren, batez ere arraunlari «beteranoen» aldetik, aurten egin duten lan bikainari segida eman nahi diote.

ARRAUNEK TALDE GAZTEA

Guztien artean Donostiako Arraun Lagunak da arraunlaririk gazteenak dituen taldea. Josean Jauregi eta Benito Elizalde entrenatzaile-arraunlari «beteranoen» inguruan bildu dituzte Arraun Lagunakekoek Donostiako talde ezberdinetatik etorritako arraunlari onenak.

Arraun Lagunakeko arraunlariek baikortasunez begiratzen diote datorren denboraldiari. Aurten jadanik trainerua zintzilikatu dute.

GOLFA

Olazabal Europako taldean Ryder Cup txapelketarako

DONOSTIA

Txema Olazabal hondarribitarrak Ryder Cup txapelketa jokatuko du hilaren 27tik 29ra bitartean, Bernard Gallagher Europako taldeko kapitainak hamabi gizoneko zerrendan sartu ondoren. Bederatzi jokalarik zuten Estatu Batuetako taldearen aurkako txapelketa honetan jokatzeko txartela, denboraldian lortutako emaitzen ondorioz.

Eskoziarrak Nick Faldo eta Mark James britainiarrak eta Txema Olazabal hondarribitarra aukeratu ditu Kiawaw Islanden estatubatuarren aurka jokatzeko. Nick Faldo inglesa, 1990eko jokalaririk onena, da aurreko sei aldietan Europako taldearekin jokatu duen bakarra. Olazabali dagokionez, joko bikaina erakutsi zuen 1989an eta aurtengo denboraldian espero bezain emaitza onik egin ez badu ere, Europako jokalari onenekin batera aritzeko aukera izango du.

Severiano Ballesteros, Collin Montgomerie, Steven Richardson, Ian Woosnam, Paul Broadhurst, Bernhard Langer, David Feherty, D. Gilford eta Sam Torrance izango dira Europa ordezkatuko duten gainontzeko bederatzi jokalariak.

EUROPAKO JOKALARIAK GAZTEENAK

Europako ordezkariak izango dira txapelketa honetan parte hartuko dutenen artean gazteenak. Europako jokalariek 373 urte dituzte guztien artean, Estatu Batuarrek baino 58 urte gutxiago, hain zuzen ere. Steven Richardson eta Txema Olazabal 25 urterekin, dira jokalari gazteenak. Sam Torrance (38) eta Mark James (37) dira Europako taldeko jokalaririk beteranoenak.

Estatubatuarrei dagokionez, hamabi gizonek pasatzen dituzte 30 urteak eta horietatik hiru gizonek 40tik gora dituzte. Payne Stewart, Fred Couples, Hale Irwin, Lanny Wadkins, Paul Azinger, Wayne J. Levi, Mark O'Mara, Mark Calcavecchia, Corey Pavin, Steve Pate, Ray Floyd eta Chip Beck dira Estatu Batuetako taldea osatzen duten hamabi gizonak.

MOTOZIKLISMOA

Herri Torrontegik Suzuki taldearekin korrituko du

LE MANS

Herri Torrontegi bizkaitarrak Suzuki moto ofiziala izango du datorren urtean 250 z.k.tan. Gorlizeko pilotuak San Marinoko Sari Nagusian probatu zuen Lukcy Strike taldearen Suzuki RGV motoa, eta emaitza bikaina izan zen. Lukcy Strike taldeko zuzendariak Le Manseko zirkuitoan erantzutekotan geratu ziren, eta badirudi erantzuna baiezkoa izan dela.

Torrontegi berak oraindik ez du adierazpenik egin. Dena den Le Mansen ga uzak guztiz argitu dira, eta sinadura besterik ez da falta. Azken orduan ezusterik gertatzen ez baldin bada, Torrontegik Zeelenberg holandarrarekin Lukcy Strike taldean korrituko du.

Le Manseko Sarian Gorlizekoak Aprilia motoarekin korritu zuen, baina Saria bukatzeko zortzi itzuli falta zirenean proba utzi behar izan zuen. Suzuki taldearekin orainarte eduki ez duen estabilitatea lordezake Herrik.

Suzukiren eskutik Torrontegi garaipenetara itzul daiteke. RAMON BASALDUA

TENISA



Stefan Edbergek ATPko lehen postua berreskuratu du.

Edbergek ATPko lehen postua berreskuratu du U.S. Openean

NEW YORK

Stefan Edberg suediarrak Tenislari Profesionalen sailkapeneko (ATP) lehen postua berreskuratu zuen U.S. Open Torneoan lortutako garaipenaren ondoren. Torneoa hasi aurretik Edberg ATPko bigarren postuan zegoen, Boris Becker alemaniarraren atzetik. Suediarrak Wimbledonen galdu zuen lidergoa torneo kaskarra egin ondoren, eta zenbait unetan gertu ibili bada ere, ez du orain arte berreskuratzerik izan.

Flushing Meadowseko zelai nagusian jokatutako finala azkenaldi honetako laburrena izan zen, Edbergek erraz gainditu bait zuen Jim Courier estatubatuarra 6-2, 6-4, 6-0ko emaitzaz. Suediarrak izugarrizko jokoa erakutsi du aurtengo Grand Slameko azken torneoan, denboraldi guztian motel ibili bada ere. Finala amaitu ondoren adierazi zuenez, Michael Chang estatubatuarraren aurka jokatutako kanporaketa izan zen torneoko partidurik garrantzitsuena. «Michael Changen aurrkako partidua izan da torneoko garrantzitsuena, bertan hasi bait nintzen nire benetako jokoa erakusten».

Hortik aurrera, Edbergek arazo handirik gabe irabazi ditu bere partiduak, aurrean arerio bikainak eduki arren. «Ivan Lendlen aurka oso ondo jokatu nuen, Changen aurkako partiduan baino hobeto eta Courierren aurka egin dut dudarik gabe torneo guztiko partidurik onena». Garaipen hau oso garrantzitsua da Edbergentzat, aurten Grand Slameko torneoetan nahiko motel ibili bait da. «Hau da U.S. Open torneoa irabazten dudan lehenengo aldia eta oso pozik nago, orain arte ez bait dut nire jokoa eman. Azkenean egunero egindako lan guztiak bere emaitzak izan ditu eta hori da orain garrantzitsuena».

Etorkizunari begira, Edbergek Roland Garros Torneoa eskuratzeko desioa agertu zuen, hori bait da Grand Slameko torneoen artean falta zaion bakarra. «Australiako Irekia, Wimbledon eta U.S. Open irabazi ditut jadanik eta datorren denboraldian Roland Garros irabazi nahi nuke. Hori da torneo handien artean falta zaidan torneo bakarra eta beraz, Parisen irabazi nahi dut».

Hala ere, suediarrak lan asko egin beharko du Frantziako Irekian nagusitu nahi badu, lur harrotuko torneotan ez bait da berak nahi bezala moldatzen. Azken urteotan asko entrenatu du moeta horretako zelaietan eta hobekuntza nabaria izan da. «Azken urte hauetan lan asko egin dut nire jokoa lur harrotuko zelairetara egokitzeko eta uste dut lortzen ari naizela. Zaila izango da Agassi, Courier, Lendl edo Becker bezalako jokalariak menperatzea, baina dena den horretarako lan egingo djt hemendik aurrera».

SASKIBALOIA

Askatuak eta Caja Bilbaok porrot egin zuten lehen ihardunaldian

Bilbotarrek sekulako jipoia jaso zuten Basketmarren kontra

Futbolean gertatu den legez, saskibaloiko bi euskal taldeek ez diote hasiera ona eman lehen mailako 1991-1992 denboraldiari. Aldalurren mutilek ezin izan zuten lehen zatian lortutako aldeari eutsi Guadalajararen kontra, eta Caja Bilbaok ordea, 19 puntuz galdu zuen A Coruñan igo berria den Basketmar taldearen kontra jokatutako partiduan.

RAMON BASALDUA / **BILBO**



Askatuakek makal hasi du denboraldia. MITXELENA

Lehen maila honetako lehen partidutik ikusi da, Caja Bilbaok ACB mailara itzultzeko bete behar duen bidea oso gogorra izango dela, gainerako taldeek ere, lehen maila utzi nahi dute eta. Txema Gonzalez Capetillok sekulako plantila osatu du, baina izen ospetsuak edukitzeak (Kopicki, Ortega, Carbajo) ez du igoera berez ekarriko, A Coruñako Riazor pabilioian argi geratu zenez.

Etxean edo etxetik kanpo jokatzeak sekulako garrantzia du saskibaloian. Hori dela eta, kanpoko partiduak izaten dira talde baten denboraldia zehazten dutenak. Caja Bilbaok eta Athleticek antza handia dute, bi taldeetan jokalari onak egon arren, ez bait dira partidu bat aurrera ateratzeko gai. Iaz inork ez zuen uste Cajak ACB maila galduko zuenik baina azkenean, lehen mailara jaitsi zen. Aurten ez dago aitzakiarik. Jorge Linaresek zuzentzen duen taldeak aurrekontua handia du eta ezin du lehen maila honetan jarraitu, izan ere igoera lortzen ez badu, desagertzeko arriskuan egon daitekeelako. Basketmarren kontra gertatu dena ezin da inondik eta inora errepikatu, bigarren mailatik igo berria den taldea baten kontra galtzea ezin da onartu eta.

KASIK BAINA EZIN

Josean Aldalurren zuzentzen duen Askatuakek ezin izan zion Chuchi Carrerasek entrenatzen duen Guadalajara taldeari irabazi, Anoetan jokatutako lehen mailako lehen partiduan. Donostiarrak hamabi puntuko aldea lortu ondoren, ezin izan zuten partidua kontrolatu eta Guadalajarakoek emaitzari buelta eman zioten, atsedenaldirako bost puntuko aldea lortuz.

Bigarren zatia hasi bezain laster, hamalau puntuko aldea lortu zuten Carrera entrenatzaile gaztearen mutilek, Askatuakekoak erdi lotan zeuden bitartean. Dena den Aldalurren mutilek ez zuten amore eman eta hiru puntura jarri ziren partidua amaitzeko bi minutu geratzen zirenean. Azkenean ezin izan zioten emaitzari buelta eman eta Guadalajara izan zen garaipena, hiru puntuz, eskuratu zuena.

Slobodna Dalmaciak istiluak izan ditu aurredenboraldi honetan

DONOSTIA

Jugoslaviako egoera politikoak ondorio larriak izan ditzake saskibaloi munduan. Slobodna Dalmacia taldeak (iazko Jugoplastika) momentu latzak bizi ditu aurrendeboraldi honetan, bertako jokalarien arteko harremanak oso berotu bait dira politikaren ondorioz.

Ranko Zeravikak entrenatzen duen taldeak izugarri ondo jokatu zuen aurredenboraldiko lehen partiduetan, hiru Europako Kopa jarraian irabaztearen arrazoia erakutsiz. Baina Jugoslaviako egoera okertuz joan ala, Slobodna Dalmaciako jokalarien artean istiluak hasi ziren eta horrek ondorioak izan zituen taldearen jokoan. Azken aste hauetan, Jugoslaviako taldeak jokatutako partidu guztiak galdu egin ditu, oso joko motela eginez.

Aurreko asteburuan, Slobodna Dalmaciak Hector Quiroga Torneoan parte hartu du eta itxura kaskarra erakutsi du benetan. Serbiarren eta kroaziarren arteko gatazkak konpondu nahian, Ranko Zeravikak bilera berezia antolatu zuen zeuden hoteleko lorategian, baina dirudienez gauzak ez ziren espero bezala joan. Jokalariek bi ordutan hitzegin zuten eta bilera amaitu ondoren beren arteko haserrea zen nagusi.

EUROPAKO NAGUSITASUNA ARRISKUAN

Jugoslaviako taldeek eta batez ere Jugoplastikak nagusitasun osoa erakutsi dute Europan azken denboraldi hauetan. Baina egungo egoera aldatzen ez bada, arazo larriak izango dituzte nagusitasun horri eusteko Taldeko jokalarien arteko adiskidetasuna zen orain arte jugoslaviarren ezaugarrietako bat, orain galtzeko arriskuan dagoena, alegia.

Azken urteetan, Jugoslaviak selekzio bikaina osatu du eta itxaropen handiak jarri ditu Barcelona'92 Joko Olinpikoetan. Jugoslaviako federazioko agintariek azkar mugitu beharko dute arazoak argitzeko edo bestela, horrenbeste lan egin ondoren lortutakoak porrot egingo du ezbairik gabe. Europako gainontzeko herriek ere zer esanik izango dute arazo horretan.

Jugoslaviako selekzioa.

TXIRRINDULARITZA

Alfonso Gutierrez.

Gutierrezentzat Volta Catalunyako laugarren etapa

MOLLERUSA

Paternina taldeko Alfonso Gutierrezek irabazi zuen atzo sprintean Volta Catalunyako laugarren etapa. Rubi eta Mollerusaartean jokatu zen 172 kilometroko etapan normaltasuna izan zen nagusi, faboritoen taldeek ederki kontrolatu bait zuten tropela. Irabazleak 4.05.30 ordu behar izan zituen Rubi eta Mollerusa arteko ibilbidea betetzeko.

Sailkapen orokorreko lehen postuetan jarraitzen duten Maurizio Fondriest, Rudy Dhaenens eta Marino Lejarretak ez zuten inolako arazorik izan. Etapa guztian ihesaldi saio ugari egin ziren, baina tropelak ez zuen inoiz tarte handirik onartu. Era honetan, faborito guztiek lehen postuetan diraute.

Wigarma taldeko Cruz Martin izan zen lehen ihesaldia burutu zuena. Momentu horretan Fondriest liderrak izan zituen arazo mekanikoak, erabakiorrak izan ziren. Tropekeo faboritoek lan handia egin zuten Fondriestekiko aldea handitu asmoz, eta hau kaltegarria izan zen Wigarma taldeko txirrindulariarentzat. Sailkapen orokorreko liderrak segituan egin zuen bat tropel nagusiarekin.

Hortik aurrera Clas taldea izan zen tropelburuan ardura hartu zuena. Lehenik Cabestany eta gero Camarillo eta Etxabe izan ziren saiatu zirenak, baina ezin izan zuten tropelarekiko aldea handitu.

GAUR ERLOJUPEKO PROBA

Volta Catalunya gaur eta bihar erabakiko da. Txirrindulariek 25,2 kilometroko erlojupeko etapa korritu beharko dute gaur. Erlojupeko etaparen ibilbidea guztiz laua da, eta ondorioz Melchor Mauri eta Miguel Indurain dira faborito nagusiak. Espainiako Itzuliko txapeldunak bere burua gaizki ikusten du, eta ez du uste irabazteko gai izango denik. Honek aukera bereziak ematen dizkio Miguel Indurain nafarrari.

Banesto taldeko nafarrak, hilaren hogeitalauean jokatuko den Barcelon Hiria Sarian korrituko duela esan du. Tourreko txapeldunarekin batera Delgado, Lejarreta eta Mauri izango dira bertan.

RUGBYA

Frantziako Ligan ihardunaldi beltza euskal taldeentzat

Cote Basquek Frantziaren aurka jokatuko du gaur Miarritzen

Miarritze, Baiona eta Donibane Lohitzune galtzaile irten dira Frantziako Ligako bigarren ihardunaldian. Miarritzek 12-27ko emaitzaz galdu zuen etxean Valence D'ageneken aurka, eta Baionak 25-19 Montpellierren zelaian. Iparraldeko jokalari onenak Frantziako selekzioarekin neurtuko dira gaur.

KOLDO ALDUNTZIN / **DONOSTIA**

Aurreko ihardunaldian gertaturikoaren antzekoa gertatu zitzaien Miarritzekoei larunbatean Aguilerako zelaian. Aurrean ongi, batez ere, touchetan Sanokorekin baina, atzean makal. Arrietak eta Lekuonek jokatu bazuten ere, ez ordea Hontas, Blanco eta Ondartsek. Azken hau neurketaren azkeneko laurdenean irten zen eta hobekuntza txiki bat nabaritu zen. Miarritzek honako hamabostekoa zelairatu zuen: Rourre; Dicharry, B. Dagerre, Guerrecague, G. Dagerre; Arrieta, Lekuona; Deliart, G. Talat, Guinet, Condom, Sanoko; Mondela, Audap eta Bigot.

Kanpotarrak ez ziren punta-puntakoak baina, joko hobea egin zuten. Badu kezka ugari eta zertan pentsatu Miarritzekoen entrenatzaileak joko ahul hori hobetzeko. Badaezpada ere eta beharrean gertatuko balitz, hiru atzelari atzerritar ekarri ditu atzekaldea sendotzeko: bi britainiar eta zelandar bat. Espero dezagun ahalik eta azkarren bukatzea mundialak eta beraien joko onera itzultzea.

CAZABONEN LANA ALFERRIK

Baionak 25-19ko emaitzaz galdu zuen Montpellierren zelaian. Ez ziren nahikoa izan Cazabon joko zabaltzaile euskaldunak lortu zituen bost zigor kolpeak, ez eta Lagisketen partehartzea ere, garaipena lortzeko.



Euskal taldeek emaitza Kaskarrak lortu zituzten. BOB

Lehen zatia nahiko ona egin zuten lapurtarrek eta hamaikagarren minuturako 3-4 aurreratu ziren Lagisketen entseiu bati esker. Bigarren zatian, ordea, etxekoak nagusitu ziren bi entseiu gehiago lortuz eta horiekin nahikoa ez bazen, bi zigor kolpe eta drop bat gehiago ere bai. Boxeo konbate baten antzera, puntuka irabazi zuten Montpellierrekoek.

Oloronek, berriz, 16-12 irabazi zion Donibane Lohitzuneri. Zorte txarra izan zuten euskaldunek. Lehen zati bikaina egin zuten touchetan eta meleetan nagusituz. Hamasei minutu bete ez zirenean aurreratu ziren donibanetarrak haizea alde zutela aprobetxatuz Podarescuren drop bati esker 0-3. 32. minutuan Junikotenaren entseiua eta zegokion transformaketaren ondorioz 0-9. Horrela amaitu zen lehen zatia.

Bigarren zatian ere ongi aritu ziren baina, etxekoen ostikariek erabaki zuten, azkeneko hamabost minututan bi zigor kolpe eta drop bikain bat gauzatuz. Beste emaitza garrantzitsuak: Beglesek 49 - La Rochellek 12; Nimesek 21 - Toulousek 17.

Prentsa handia eman ez bazaio ere neurketa honi, zer esanik ez dago ikuskizun dotorea dasta dezakegula gaur Aguilera zelaian, Cote Basque eta Frantziako selekzioen arteko partiduan.

MENDIA

Azpeitia-Everest'91 espedizioak bigarren kanpamendua jarriko du

DONOSTIA

Azpeitia-Everest'91 espedizioak bigarren kanpamendua ezartzeko azken prestaketak egingo dituzte gaur. Beharrezko materialea (oxigenoa, janaria) joan zen ostiralean igo zuten lehen kanpamenduraino eta biharko bidea irekitzeko saioa ere egin zuten. Espedizioko zortzi partaideek ez dute orain arte arazo handirik izan, aurreko egunetan egindako prestakuntza gogorrak emaitza onak eman bait ditu.

Azpeitiarrek bihar egingo dute bigarren kanpamendua jartzeko ahalegina, 6.000 metroak pasatuz. Joan zen ostiralean Euskadi Irratiko kazetariekin izandako elkarrizketan, Azpeitia-Everesteko partaideek bidearen egoera nahiko kaskarra zela azpimarratu zuten.

Eguraldiari dagokionez, elurra da azken egunotan nagusi eta horrek lan gehiago emango dizkie gipuzkoarrei. Dena den, espedizioko kideek bigarren kanpamendua lehenbailehen jartzeko itxaropena dituzte. Horretarako lau sherpen laguntza izango dute.



Azpeitia-Everesteko partaidea.

LABURREAN

USOC elkarteko lehendakariak erasoak salatu ditu

Robert Helmick, Estatu Batuetako Batzorde Olinpikoko (USOC) lehendakariak erasotua izan dela esan zuen atzo USOCeko batzorde bereziaren aurrean. Helmickek azaldu zuenez, egunkarietan berari buruz azaldutako albisteak ez dira zuzenak eta horrekin kargutik botatzea bilatzen dute. «Lotsatuta nago, nik egunkarietan azaldutakorik ez bait dut egin» ●

LAURENT FIGNONek txirrindularitza utzi dezake aurten

Laurent Fignon frantziarrak txirrindularitza utzi dezake denboraldi amaieran, hurrengo urterako talderik ez bait du aurkitu. Fignonek ez du datorren denboraldirako eskaintzarik izan eta azkenaldi honetan Frantziako lau talde profesionalekin negoziatzen ari da. L'Equipe egunkariak azaldu duenez, Pariseko txirrindulariak ez du talde bat aurkitzeko aukera handirik. «Ez dakigu zergatik, baina talde guztietako zuzendariek alde batera utzi dute Laurent Fignon eta Parisekoak arazoak izango ditu taldea aurkitzeko» ●

IAN WOOSNAM da munduko golf jokalari onena

Ian Woosnam galesa dago Munduko Golf Jokalarien sailkapeneko lehen postuan 18,33 punturekin, Canadako Irekia eta Suitzako Irekia jokatu ondoren. Txema Olazabal hondarribiarra dago zerrenda honetako bigarren postuan, 16,86 punturekin. Nick Faldo (Inglaterra), Greg Norman (Australia), Severiano Ballesteros (Espainia), Payne Stewart (Estatu Batuak), Paul Azinger (Estatu Batuak), Fred Couples (Estatu Batuak) eta Bernhard Langer (Alemania) jokalariek osatzen dute lehen hamarren zerrenda ●

ELENA NEMASHKALOk CBM Bilbao taldean jokatuko du aurten

Elena Nemashkalo sovietarrak CBM Bilbao eskubaloi taldean jokatuko du denboraldi honetan. Nemashkalok 210 partidu jokatu ditu SESBeko selekzioarekin eta 1990 Munduko Txapelketako urrezko domina irabazi zuen. 26 urte ditu eta Spartak Kiev taldetik dator. Horrekin batera, Liliana Gadzon atezain lituaniarrak jokatuko du bilbotarrekin ●

'Paisaiarekin topaketan' izenburupean bildu dira lanak. OLALDE

San Romanen koadro erakusketa Gasteizen hamaika urte ondoren

I.K.G. / **GASTEIZ**

San Prudencio aretoan ikus daitezke joan zen ostegunetik eta iraila amaitu arte, Miguel Gonzalez de San Roman pintore gasteiztarraren koadroak. Oleoak, akrilikoak, 'Paisaiarekin Topaketa' lemapean bildu ditu autoreak.

Miguel Gonzalez de San Romanen lanen agerpena ikusteko aukera oso gutxitan izaten da eta hilabete honetan dugu horretarako parada ezin hobea. Izan ere, «orain dela hamaika urte egin nuen Gasteizen nere azkeneko erakusketa indibiduala», aitortu du pintoreak.

Pintoreak berak bereziki gogoratzen duen erakusketa Bilbon 1976an egin zuena da. «Ospe handia duen Rekalde aretoan izan zen eta erakusketa Toño Montiel-ekin batera egin nuen». Gonzalez de San Roman-en oroitzapenak, erakusketaren inaugurapen egunetik datoz, «koadro bat bera ere ez zegoela, hasiera eman bait genion, eta gero bi hilabetetan programatu zuten». Pintoreok, kabailete, pintura eta traste guztiak galeriara eraman eta bertan egin zuten obra. Aitzitik, egunotan Gasteizen duen erakusketa ez da horrenbesteko inprobisazioan oinarritu, baina erakartzeko modua ere badu.



LUIS CANDAUDAPen erakusketa Bilboko Windsor galerian. Luis Candaudap artista bilbotarrak bere azken lanak erakusten ditu egun hauetan Bilboko Windsor galerian, J.SIMALen argazkia ikus daitekeen bezala. Candaudap-en erakusketa 28 obraz osatuta dago, hamalau mihise eta eta hamalau irudi paper gainean. 1964. urtean jaiotako artista honek, italiar eta errusiar kubofuturismo historikoaren abanguardia izan ziren artisten bideari heldu dio. EHUko Arte Ederretan lizentziatu zen artista honek, 1986. urtean ekin zion erakusketak antolatzeari eta geroztik 22 erakusketa egin ditu.

Palestinar zinemagintzari buruzko zikloa atzo zabaldu zen Donostian

Gaurtik ostiralera arte lau filme eta erakusketa bat ikusgai izango dira

Zinema palestinarreko filmerik famatuenak zabaldu zuen atzo zinemagintza horren gainean Donostiako Okendo kultur etxean osaturiko zikloa. 'Noce en Galilée' (Ezkontza Galilean) pelikulak egin zuen estreinaldia.

DONOSTIA

'Noce en Galilée' filmeak, alabaren ezkontzak nola 24 orduz galerazi dezakeen gerra kontatzen du, (1987. urteko Donostiako Zinemaldiko Urrezko Maskorraren irabazlea). Gaur ere izango du segidarik Donostiako Kultur Patronatoak antolaturiko 'Zinemagintza palestinarrari buruzko zikloak'. Ikus ahal izango diren filme guztiak bezala, gaurkoa espainierazko bertsioan eskainiko da: 'Los niños del fuego'. Mai-ALmsrio-k zuzendutako dokumentala dugu eta *Intifadako* haurrak dira protagonista.

Bihar, Galeb Shaat zuzenduriko 'Yaum El Ard' (Lurraren eguna) aurkeztuko da. Luzemetraia horren mamia lur desjabetzapenaren arazoa da. Etzi, irailaren 12an, ostegunez, Michel Kheifi-ren, 'Noce en Galilée' filmearen zuzendariaren, lehenengo lana pantailaratuko da, 'La Mémoire fertile' (Oroimen aberatsa) izeneko pelikula. Bertan Palestinako oraina eta geroaldia eta gizaki, lurra eta ohituren arteko harremanak erakusten da.

Azkenik, zikloari amaiera emateko, Galeb Shaat-en beste filme bat ikus ahal izango da: 'Al-Muffa' (Giltza) erdimetraia (45 minututakoa). Tragedia eta sentimenduz beteriko pasadizua kontatzen du filme horrek. Istorioak orain 40 urte bere etxetik botata izan arren, etxeko giltza gordetzen duen palestinarraren sufrimendua erakusten du. Arratsaldero, 7.30etan, Groseko Kultur etxean izango diren filmeetaz gain, zikloak arte erakusketa bat ere jasotzen du. Bertan, Palestinako egoeraren lekuko gisa, hainbat marrazki eta argazki bildu dira eta egunero 17.00etatik 20.30etara dira ikusgai.

Argazki eta marrazkiez osaturiko erakusketa ere izango da ikusgai.

Zinema eta arte ikusgai

Irailaren 10ean
'Suaren umeak', Mai-Almsrio-rena (dokumentala)
Irailaren 11ean
'Yaum El Ard' (Lurraren eguna), Galeb Shaat-ena (luzemetraia)
Irailaren 12ean
'La Mémoire fertile' (Oroimen aberatsa), Michel Kheifi-rena (luzemetraia)
Irailaren 13ean
'Al-Muffa' (Giltza), Galeb Shaatena (erdimetraia)
Irailaren 13 arte
Erakusketa egunero 17.00etatik 20.30etara

Zinemaldiak Anthony Perkins aktoreari emango dio aurtengo 'Donostia' saria

DONOSTIA

Anthony Perkins aktore iparramerikarrak jasoko du aurten iharduera artistikoari eskaintzen zaion 'Donostia' saria. Seigarren urtea da Donostiako Zinemaldiak sari hau ematen duena. Orain arte Gregory Peck, Glenn Ford, Vittorio Gassman, Bette Davis eta Claudette Colbert-i eman zaie sari hau. Anthony Perkinsek Hitchcock-en 'Psicosis' (1960) filmean Norman Bates-en papera egin zuenean eman zuen bere burua ezagutzera.

New York-en 1932an jaiotako aktore honek George Cucor-en 'The actress' filmean hasi zuen Hollywood-eko bere ibilia. Broadway-en antzoki ospetsuenetan ibili eta gero zinemagintzari heldu zion berriro. Nabarmentzekoa da 'Psicosis' filmean egindako lana. Zoro rola egitea benetan barru barrura sartu zitzaion eta Richard Franklin-ekin 'Psicosis'-en bigarren eta hirugarren parteak egin zituen 1973 eta 1976an. 'Adiorik ez' filmean Anatole Litvak-ek zuzendu zuen eta Cannes-eko zinemaldian aktorerik onenari emandako saria bereganatu zuen. Orson Welles-ek 'El proceso' filmean 'K jauna-ren' rola egiteko hartu zuen 1962an. Jules Dassin-en 'Txanpaina hiltzailearentzat' (1966), Molinaro-ren 'Idiota agurgarria' (1963), Claude Chabrol-en 'Hamarkada miragarria' (1971), Stuart Rosenberg-en 'Gaurko gizon bat' (1971), Sidney Lumet-en 'Orient Express-eko hilketa' (1974) eta Ken Russel-en 'China Blue-ko pasioa' (1985) filmeetan parte hartu zuen arrakasta handiz.

Perkins 'Sikosian'.

Broadway-en aktore nahiz zuzendari lanetan dihardu oraindik, Universal-entzat ere idatzi zian ditu gidoiak eta 1986an 'Lucky Stiff' filmea zuzendu zuen.

Orain 'Harrek ez dute bufandarik jazten' komedian dihardu lanean Javier Elorrietaren esanetara. Cristine Piaget, Clayton Ronher, José Luis López Vázquez eta Roddy MacDowell aktoreekin ari da Anthony Perkins iparramerikarra komedia honetako errodaia egiten.

GOGOETARI LEIHO

UPVtik Euskal Unibertsitatera?

ITXIALDIAK ETA GREBAK ezagutu ziren UPVn joan den ikastaroan. Irakasle asoziatuen kontratu laborala dela kausa alde batetik, eta bestetik, ikasleen eskakizunak direla bide, UPVn esperientzia ederra gertatu zen.

UPVn aipaturiko bi gatazka horiek garrantzitsu izan dira oso, zeren biharko *Euskal Unibertsitatea* eraiki nahi dugunok Baskongadetan dagoen unibertsitate publikoa, UPV alegia, ikertzeko, kritikatzeko eta berorrek daukan egitura zaharkitua alda dadin projektu berriak aurkezteko parada izan baitugu.

UPVtik askok nahi dugun *Euskal Unibertsitate-ra* alde handia dagoela (lurraldetasunez, naziotasunez, hizkuntzaz eta abarrez) ezin uka. Hori dela eta, hain zuzen ere, euskara soilean arituko den *Euskal Unibertsitate* berriaren nolabaiteko aurreproiektua eztabaidatzeko batzorde bat osaturik dago jadanik. «Balizko olak burdinarik ez», dio esaera zaharrak.

UPV ez da; ezta hurrik eman ere, inolako eredurik eraiki behar dugun unibertsitaterako. UPVn batek pentsa lezakeen baino arazo gehiago daude, espainolkeria eta mediokritate izugarriaren artean.

UPVri dagokionez, gauza pare bat esan nahiko nuke:

1) Batzuk, agian askotxok, pentsa dezakete *orain* dela garaia UPVn benetako (?) politika egiteko.

Aspaldiko iritzi okerrean mugitzen dira holaxe pentsatzen dutenak, zeren unibertsitatea, edozein unibertsitate delarik, beti izan eta izanen baita politika egiteko gunea. Kontua zera da, batzuk holako edo halako politika egiten ez badute, besteek bestelakoa eginen dutela.

Zientzi eta teknologia, irakatsi dugunaren kontra, ez dira neutrorik. Teknologia eta zientzia ikertzerakoan, edo eta ikerketa zientifikoa erabiltzerakoan, balore zehatz batzuren bidez egiten da. Gauzak horrela izanik, *kapitalak* beti kontu handia izan du unibertsitatea, beste gauza asko bezalaxe, «bere» bilakatzeko. Honela produkzioa eta birprodukzioa bateratuz, sistema kapitalista garatu honetan kapitala *kapital* soziala *bilakatu da*.



JUAN LUIS BAROJA

UPVko gatazkek, etorkizunerako, eta onerako nere ustez, zein bere lekuan utzi eta kokatu dute.

Kapitala sozialdu den heinean, produkzioa, birprodukzioa eta zirkulazioa bateratuz, hau da, ohizko «fabrika» hedatu, barreiatu eta sozialdu den arabera, gizarte osoa, unibertsitatea barne, «fabrika» handi eta hedatu bihurtu da.

Kapital hedatze honetan, kapitalarekiko eta Estatuarekiko antagoniko bezala eta autonomo legez, langile mota berri bat agertzen da, *langile sozialdua* alegia, zeina gizarte osora ere hedatzen baita.

Ezaguna da, bestalde, unibertsitateak kapitalarekiko birprodukzioan daukan funtzioan, zer nolako arazoak eta gorabeherak izan dituzten irakasle eta ikasle kritikoak bertan sartzeko edo bertan ikasteko.

Beraz, argi gera bedi, unibertsitatea berez esparru politikoa dela.

2) Marxismo zaharkitu, antzu eta merke mota batek aldarrikatzen duenaren aurka, alegia unibertsitatearen eginkizun nagusia Estatuaren aparailu ideologikoak birproduzitzea delako baieztapenaren kontra, hauxe esan beharko:

Unibertsitatea, lehen esan bezala, gizarte osora hedatu den fabrika sozialduaren arloa da, etxea, eskola, auzoa edo entrepresak diren bezalaxe.

Sozialitate horrek langile sozialdua sortzen du, hala irakasle nola ikasle, etxekoandre zein hiritarren artean. Sujektu berri horiek beren buruak antolatuz, kontzienteki kapital eta Estatuarekiko antagoniko direnean, gaur egungo sistemaren kontrako subjektu historiko berriak bilakatzen dira. Zeinek bere projektuarekin, bere berezitasunarekin. Bakoitzak bere mugimendua sortuz, bere erreibindikazioei eutsiz.

Horixe da UPVn ikusi dena. Irakasle asoziatuak alde batetik, eta ikasleak beste aldetik beren espazio propioak sortu, bereganatu nahi izan dituzte (kontratu laboralarena batzuk, ikasleen eskakizuna besteak). Zenbait unetan, gainera, bi mugimenduak beteratu dira, nolabait UPVri beste projektu berri bat kontrajartzeko. Honela, biak bat eginez, beraien potentzialtasunak handituz, gehituz eta hedatuz, UPVren egitura zaharkitua aldatzen saiatu dira.

Irakasleei dagokienez, UPVk daukan egitura feudalarekiko antagoniko eta autonomo den irakasle kontratatuen mugimenduak bere burua antolatuz eta autobaloratuz egin du bere bidea. Irakaslego multzo batek apostua egin zuen 1987an. Sasi guztien gainetik eta hodei guztien azpitik irakasle batzuk bere hartan diraute. Bidean jende asko bazterretan geratu da; ohizko sindikatuen mugak eta tristurak ere ikusi dira behin baino gehiago. Burruka autonomo hauek ez dira izan arrosa kolorekoak, arantzaz beterikoak baizik; eta zenbait jenderentzat, gainditu ezinezko oztopoez beterik. Baina, bizi garen gizartea aldatzeko prest baldin bagaude, honelakoxeak dira bideak.

UPVko gatazkak, etorkizunerako, eta onerako nere ustez, zein bere lekuan utzi eta kokatu dute. Euskal Herri beria sortzeak euskal unibertsitate berria eskatzen duenez, maila guztietako eredu zaharkiturik laga dira bazterretan.

JOSEBA TOBAR ARBULU

BIDEZIDORRAK

Baztandarren Biltzarra (eta II)

MARIANO IZETA

Bazkalondoko jaialdia urteroko euskal giro ederrez inguraturik. Txistulariak, Agustin Eraso eta Felix Iriarte. Kantariak, Niko Etxart, Martikorena, Anje Duhalde, Josune Galarregi, Izeta anaiak, Jose Mari eta Eusebio. Bertsolariak, Argiñarena, Bittor Elizagoien, Mixel Xalbador eta Lesakako gazte bat, Xabier Silveira.

Omenaldi maitekorra eskeini zitzaion Felix Iriarte aizkundar atabalariari. Edergailu eta opariak hartu zituen, hoien artean euskal makila. Iriarte adiskideak merezimendu handia du, gure Biltzarra sortuzenetik 1963 garren urtetik, hutsik egin gabe etorri izan da atabalarekin eta horrek aunitz balio du. Zorionak Felix eta Jaunak urte aunitzez zaindu zaitzala.

Jaialdiaren ondotik Herri Kirolak erreboteko plazan. Interesgarria hau ere. Irabaztaleak, Labaien Taldea. Bigarren Baztan, hirugarren Ultzama eta laugarren Sunbilla.

'Baztandarren Biltzarra 91' joan zaiku zoriontasun osoan. Har ditzatela gure goresmen eta laudorio, Orga apaindu hoien egile guziek, Biltzarraren antolatzaileek eta nolapaitere Biltzarraren alde lana egin duten guziek.

Bertzalde, joan den 14ean ospatu zen Donamariako plazan Laxoa Txapelketako azken partida edo Finala. Hor ari izanak dira norgehiagoka bi hoberenak: Irurita A eta Doneztebe. Partida atakatua izan zen eta azkenean Irurita txapeldun, partida 9-7 irabazirik. Zorionak iruritar taldeari.

ORAIN DELA HEMERETZI URTE



Pablo Fermin Irigarai Goizueta 'Larreko' omendu zuten Auritzen

Pablo Fermin Irigarai Goizueta 'Larreko' omendu zuen Auritz herri nafarrak, 1972ko irailaren 10ean, orain dela hemeretzi urte, Euskaltzaindiak eratutako jai egun berezi batean, Nafarroako Aldundiaren eta Aurizko Udaletxearen laguntzaz. Goizeko 11etan, herri meza, 12etan 'Muttikoak' dantza taldearen emanaldia eta jaiotetxeko irudiaren agertzea. Euskaltaindiaren bilera irekia eguerdiko 12.30etan. Damaso Intzak Larrekoren garaia aipatu zuen. Piarres Laffittek Larreko euskal idazlea izan zuen mintzagai eta Eusebio Erkiagak Larreko gizona. Arratsalde partean, herri jolasak herriko enparantzan.

1869ko urtarrilaren 25ean jaio zen Larreko, Auritzeko maisuaren seme: Ramon Irigarai Gurpide. Felixe Irigarai Apatekin ezkondu zen, eta bion seme izan zen Aingeru Irigarai euskaltzain eta idazle ospetsua. Iruñean ikasi zuen batxilergoa. Medikuntza ikasketak, berriz, Zaragoza eta Madrilen egin zituen. Auritzen izan zen mediku lehendabizi, eta Beran eta Iruritan gero. Lan ugari idatzi zuen medikuntzaz.

Baina bere lanik gustokoenak euskaraz idatzitakoak izan ziren. «Berdinik gabeko prosa du Larrekok», esan zuen Piarres Lafittek.

Laurogei urte zituela hil zen, 1949ko irailaren 3an.

Komunikabideak

Getxoko komunikabideak, informazio lokalak duen garrantziaren eredu

Enpresa pribatu zein instituzioek beren informazio tresnak kaleratzen dituzte

Duela urte batzu, ez asko egia esan, informazio lokalean aritzen ziren kazetariak bigarren mailakoak ziren: fakultateko ikasleak, kolaboratzaileak, herriko idazlegaiak... eta ematen ziren albisteek ere ez zuten garrantzi eta leku handirik izaten. Gero eta gehiago, berri lokalak ere beren lekua irabazten ari dira kazeta guztietan eta orain informazio orokorraren krisiaz mintzatzen hasi da.

ARANTZA GUTIERREZ / **GETXO**



Komunikabide sare ugaria da, dudarik gabe, Getxok duena. JOSE SIMAL

Egunkariek herriko 'kotilla' edo 'berriemale-en' lekua hartzen dute. Herritarrak ez daude asko beren etxean eta lehenengo eskuko informazioa lortzea zaila da, beraz kazetetan ere haien inguruan gertatuaren berri aurkitu nahi dute.

Estatu Batuetan duela asko honetaz konturatu ziren eta normalak dira herriko egunkari, irrati eta telebistak, askotan hauen azpiegitura Estatu espainiarreko telebista handiek dutena baino zabalagoa delarik, nahiz eta hedapena herri edo auzo batekoa izan.

Getxon ez dago telebista edo egunkari handirik, baina Bizkaiko herri horretan existitzen den komunikabide sarea ez da batere arrunta, batez ere kontutan harturik bertan 80.000 biztanle inguru bizi dela.

Hiru irrati, hauetako bi komertzialak, beste hainbeste egunkarietako edizio lokal, aldizkari eta sasi-egunkariek osatzen dute getxotar informazio azpiegitura.

GETXO PRENTSA IDATZIAN

Prentsa idatziari dagokionez, Getxon hiru komunikabide mota ditugu. Alde batetik, 'Egin', 'Deia' eta 'El Correo Español' egunkariek edizio lokal bana kaleratzen dute egunero: bestetik, iniziatiba pribatuen eskutik bi egunkari-aldizkari argitaratzen dira eta, azkenik, Udaletxeko astekaria dugu.

Edizio lokalei buruz esan behar, 'Deia' eta 'El Correo-k' Uribe Kosta eskualdeari orrialde bana ematen dioten bitartean, 'Egin-Uribealdeak' Getxori orrialde eta erdi dedikatzen diola. Hiruren arteko ezberdintasunak, estilo liburuak markatzen ditu batez ere, informazioak nahiko antzekoak bait dira, batez ere instituzioei dagokienez, iturriak berberak izaten dituzte eta. Ezbedintasunak informazio hauen tratamenduan oinarritzen dira. Era berean, aipatu behar, Eginen kasuan erreportaia generoa gehiago lantzen dela, baita korrespontsalaren sormena ere.

Bitxiagoa da, dudarik gabe, 'El Correo-ren' entrepresak kaleratutako 'Vecinos de Getxo' astekaria. Honek Europan arrakasta handia duten T.M.C.-en ereduari jarraitzen dio: egunkari itxura, dohainekoa, kolorez eta buzoietan sartuta, herritar guztiei nahitanahiez heltzen zaiena.

Komunikabide honen helburua ez da informatzea, zeren eta ez da ia albisterik ematen. Erreportaia arinak, atseginak, argazki politak, gida zabal bat..., den dena publizitate soporte bat eskeintzeko, honen helburua herriko publizitatea jasotzea delarik. Herri dendari eta enpresek ez dute dirurik egunkari handienetan promozio kanpainak egiteko, baina bai herri mailan egiteko. Hurrengo abenduan lehen urtea beteko du, arrakastaz.

Duela zortzi urte 'Galea' izeneko sasi-egunkaria jaio zen, kazetaren antzaz eta hamabost eguneroko aldizkatasunez. 70eko hamarkadako prentsa «serioaren» eredua hartu du, eboluzionatu barik. Getxoko informazioa, iritziak eta literatur lanek osatzen dute edukia. Hitz bat ere ez dago euskaraz, aurreko kasuan bezala. Salmenta eta publizitatetik bizi da, baita langileek ez kobratzetik ere; azken urtean beherakada nabaria izan da.

Hauetaz gain, Udaletxeak 'Getxoberri' izeneko astekari bat kaleratzen du; elebiduna, DIN-A-4 tamainuko eta 4 orrialdetako boletin bat, zeinetan informazio instituzionala nagusia den, herritarren gutunak ere argitaratu arren. Udal aurrekontutik finantziatzen da eta helburua zerbitzu publikoa izatea da.

Baina, badirudi 'Getxoberrik' ez duela bere xedea guztiz bete eta Kultur-Etxeak beren ekitaldien berri emateko «gida» baten argitarapenari ekin dio, hau ere getxotar komunikabide sare zabalean sartu da.

IRRATIA ETA TELEBISTA

Telebistarik oraingoz ez badago ere, zurrumurruen arabera projektu bi daude bat osatzeko, hauetako bat instituzionala eta bestea pribatuak izango omen direlarik.

Irratiak bai daudela. Emandegi baten erreibindikazioa urte asko aldarrikatu zen. Erantzuna emateko, herriko kolektibo eta talde batzuk 'Bost Axola' irrati askea eraiki zuten. Euskara hutsean emititzen zuen, duela urtebete gutxi gora behera utzi arte. Legetasunaren zaintzaileekin tira-birak izan arren, uzteko arrazoia lokalik gabe gelditzea izan zen ez isun baten beldurra. Berriro hasten denentz erabakitzen den bitartean, 'Kolu' izeneko fanzine bat kaleratzen dute.

Udaletxeak ere bere emandegia muntatu zuen duela hiru urte, 'Getxo Irratia', 1986an zabaldu zen udal irratietarako baimena eskatzeko epea probetxatuz. Alegaltasun egoeran ibiltzen hasi bazen ere, inauguraketa ofiziala laster egitea espero da.

Hasiera batean herritar guztien partaidetasuna bultzatzea helburutzat markatu arren, lan-arazoak izan zirenez, taldeen kontratazioaz egiten dira programak, hauetaz gain informatiboak egiteko langilego finko bat izanik.

Elebiduna nahi badu ere, euskara anekdota baino ez da; informatiboetan, elkarrizketa batzutan edota 'irrati-formularen' esaldi batzutan agertzen da. Programazio eskemak konbentzionalak dira eta euskal kulturak leku txikia du, kirol eta informazio nagusitasunaren alde. Albisteak gehienbat instituzionalak dira.

Emandegi komertzialei dagokienez, Kosta Irratiak bere lehenengo urtea bete du martxan. Inork ez zuen Getxoko Itxartu Taldearen berri Irrati komertzialen baimenak emateko orduan elkarte horri bat tokatu zitzaiola ezagutu arte. Garai hartan ez zuten ez emandegirik, ez lekurik, ez projekturik ez ezer... eta guztien usteak Leioako KV-30 edo Areetako J.M.C. emandegietan jarrita zeuden, hauen esperientzia urte askotakoa zen eta.

Getxon kokaturik egon arren, Bilbo Handia deritzon zonalde osoa betetzen du. Estatuko kate batean sartuta dago eta eredua musikala da, F.M.ko emandegiekiko ezberdintasuna kalitatezko musika eskaintzen saiatzen dela izanik. Informazio lokala sartzen dute, baina landu gabe.

Amaitzeko, aipatu behar J.M.C. emandegi komertzialak errekurtsoa aurkeztu duela baimenik gabe utzi zion dekretuaren aurka; bitartean ez ditu guztiz itxi.

Komunikabide asko, informazio gutxi

Getxon ere informazio aniztasunak ez du esan nahi hiritarrek benetan beren inguruan gertatzen dena ezagutzen dutenik. Udaletxeak inkesta bat egin zuen getxotarrek instituzioekiko zer nolako harremanak zituzten jakiteko, baita zenbateraino ezagutzen zituzten hauen funtzionamendu, ekitaldiak eta abarrak. Emaitzak ez ziren batere baikorrak izan, hiritarrek informazio falta azaltzen zuten eta gehienek ez zekiten benetan zer gertatzen zen herrian edo nola egin jestio bat Udaletxean...

Aniztasuna, kantitateak ez du ezagutzarik esan nahi. Getxon dauden komunikabide guztiak irakurri edo aditzen baditugu, zera ikusten da: guztietan ematen den informazioa berdina dela. Udaletxeak ez dakit zer egin du, Kultur Etxeak kontzertu bat emango du, dantzari batek sari bat irabazi zuen...

Ez daude teletipoak komunikabide lokaletan, egia da, baina instituzioek ikasi dute eta prentsaurrekoak antolatzen dituzte, oharrak bidaltzen fax-ez edo deitzen diote lagunari esateko zer gertatzn den. Batzuk ez dute informazioa lantzen, beste batzuk bai, gehiago edo gutxiago sakonduz..., baina iturriak berberak dira eta askotan esaldiak ere errepikatzen dira.

Egiari ez faltatzeko, aitortu behar da hau ez dela beti gertatzen. Badaude informazio lokala bestea bezain garrantzitsuagoa izan daitekelakoan dauden korrespontsal batzu, eta erreportaia berriak bilatzen dituztenak, inon agertu ez den informazioa alegia.

Komunikabdie lokaletan genero guztiak sartzen dira, baita beste komunikabideetan garrantzirik ez duten informazioak ere. Adibidez, askok eskertuko lukete batek azaltzea nola demontre egiten da udal batzar batean galdera bat aurkezteko, baita ere bere auzoan hutsik dagoen lekuan zer jarriko duten edo zergatik gaur bi orduz itxoin behar izan duen etxera heltzeko. Beharbada erantzun guztiak ez daude kazetariaren eskuetan, baina batzu bai edo bilatu behar ditu, horretarako tresnak ditu eta..., arduradunek prentsaurreko bat eman arte itxoin gabe. Bitartean, hiritarrak auzokide bati galdetzen dio.

KOORDINATZAILEA
Lorea Agirre
LAGUNTZAILEAK
Josu Amezaga
Edorta Arana
J.I. Armentia
Patxi Azpillaga
Sabin Oregi
Gorka Palazio
Rosa M. Sabaris
J.M. Zalakain

ALBISTEGIA

■ **VISA POUR L'IMAGE** izeneko ihardunaldi fotografikoak joan den larunbatean zabaldu ziren Perpiñanen. Kazetal argazkigintzaren inguruan egiten den bilkurarik garrantzitsuenetako bat da Perpiñanekoa, nahiz eta aurtengoa bere hirugarren edizioa besterik ez duen. Hogeitamar erakusketa, emanaldiak, hitzaldiak eta mahai inguru ugariak dira ihardunaldi hauen osagarri aipagarrienak.

■ **ESTATU BATUETAKO** telebista kateetan, 72 telesail berri estreinatuko dira udazken honetan hasiko den denboraldi berrian, eta komediak dira horien arteko gehientsuenak. Telebista katerik handienek ere gogoz eutsi diote telesailak emititzeko joera honi, ikusentzule asko erakartzen dituztela, eta informatiboek baino ere arrakasta handiagoa dutela ikusirik. Pasatako denboraldian gehien ikusitako telesaila 'Roseanne' izan da.

Aia Harriak 34. Literatur Saria Kanbon eman zen lehengo asteburuan

Delaunay prefeta ohiak frantsesaren baloreak goretsi zituen

Kanboko Arnagan, literatur sari hau eman zen. Michel Marty mediku donibandarrak jaso zuen saria 'Debruaren ederra' nobelarentzat. Delaunay prefeta ohiak eta Pierre Espilek zuzendu epaimahaiak Francis Roberti eman zion Pierre Daguerre Saria eta Louis Ducla Saria, berriz, Gilles Brocharderi.

L. ETXEZAHARRETA / **KANBO**

Kanbon, Edmond Rostand idazlearen egoitza izan zen Arnagan, 'Trois Couronnes', Aia Harriak Literatur Saria eman zuten. Ipar Euskal Herriko frantses literatur saririk handiena, Akitaniako garrantzitsuenetarikoa da Mauriac Sariarekin. Pierre Dagerrek duela 33 urte sortu zuen sari hau «gure eskualdean oinarri intelektuala bultzatzeko», zioen Gabriel Delaunay Akitaniako prefeta ohiak. Urtez urte, 60 lagunek jaso dituzte sariak.

Sari nagusiaz gain, beste bi ere ematen dira. Aurten Pierre Daguerre Saria Francis Robert Bordelekoak, Pauen irakasle denak jaso du 'Lainozko lur muturra-rentzat'. Gilles Brochardek, Le Figaron literatur kronikalari denak, aldiz, Louis Ducla Saria 'Tea tinta ontzian' nobelarentzat jaso du.

Michel Martyk bere lehen liburuaz lortu du saria. L.E.

Epaimahaia 20 urte hauetan Pierre Espil hazpandarrarekin zuzentzen duen Delaunayek frantses mintzairaz dituen grinak azaldu zituen. Mintzaira hau mehatxatzen dutela «ezagutzen ez dutenek, arrunkeriagatik eta, ideien ordez ezpatak botatzeko erabiltzen dutenek».

«Herri baten izpiritua adierazten duen espresabidea» izan behar lukeela zioen.

> Frantsez mintzaira mehatxatua da, ezagutzen ez dutenengandik, arrunkeriagatik, eta ideien ordez, ezpatak botatzeko erabiltzen dutenengandik. (Delaunay)

Michel Marty: «idaztea zerbait grabea da»

Sortzez biarnesa naiz, baina Donibanen bizi naiz, Claude Farrère idazle zenaren 'Zeruko Zubia' etxean. Nere lehen liburu publikatua saristatua izan da, hori premiazkoa zait, zure ahaletan baiesten bait zaitu. Itsasoa, Lohizune hiri zaharra, nobela gune bezala sentitzen ditut. Idazle bat, ene ustez mintzairaren artesaua da, zehazki. Hitzak, irudiak, altzari bat zizelkatzen balitz bezala erabiltzen dira. Baina idaztea, zerbait grabea da: heriotzarekin edo heriotzaren ukatzearekin zerikusia dauka. Kreazio den guztia, idaztea, pintatzea, musika egitea, kreatzea, hiltzearen alderantzizko zera da.

Getxoko Musika Banden Txapelketa Donostiara doa bihar

GETXO

Alemaniako Friedberg hiriko 'Bayerishe Stimungskapelle Haltemeir' musika banda Donostiako kaleetan barrena arituko da bihar eta Getxoko VII Musika Banden Txapelketak hiri gipuzkoarrean oihartzunik izango du.

Musikari alemaniarrak eguerdiko ordubatean abiatuko dira Victoria Eugenia antzokitik. Banda hau hogei musikariz osotutako taldea da, alemanian hain ohizkoak diren banda herrikoi horietakoa, metalezko instrumentuduna.

Milaka bisitari Donostiako Liburu Zahar eta Okasiozkoen Azoka

DONOSTIA

Lehengo asteburuan Donostian itxitako Liburu Zahar eta Okasiozkoen Azoka 91ek emaitza onak izan ditu antolatzaileen ustez. Denetara, hamabi egunez zabalik izan diren 31 saltokiek 25 milioi pezeta (1.250.000 libera) fakturatu dituzte eta 70.000 lagun bildu.

IRAGARKI MERKEAK (943) 46 90 22

Euskarari ateak zabaltzen
✔ ALFABETATZEN
✔ EGA
✔ IKASTARO BEREZIAK
HABEren diru-laguntzaz / IRALE programa
LEGAZPI 6 euskaltegia
Lasala Enparantza 3, behea ☎ 42 43 66 DONOSTIA

NESKA BEHAR DUT 6 HILEKO UMEA ZAINTZEKO IRUNEN, GOIZEKO 9ETATIK 1ERA. Deitu gaueko 9etatik aurrera. Tfna.: 63.27.65.

EGUN BAT 840pta/42l.
ASTEBETE 4.160pta/208l.
BI ASTE 7.200pta/360l.

SENDAGILE DENTISTA
J. M. ARIZALA
ASEGUROAK: Lagun Aro, Diputazioa, Previasa, Asisa, Capisa, Ipresa, Medifiata, Salud Data
Ferrerias plaza, 5-entr.
Tfna.: 45 90 45
Amara DONOSTIA

UNDERGROUND ENGLISH
ENTZUN, IKASLE OHIAK!
HAMAR URTE JADA UNDERGROUND LANEAN HASI ZENETIK
FESTA DENONTZAKO IRAILAK 18, 8 p.m. ZAIN GAITUZUE!
MATRIKULA ZABALIK INGELESA IKASI NAHI DUEN EDONORENTZAT BESTELAKO ERA BATEAN
ELKANO, 8 BEHEA
Tfn.: 42.08.31 DONOSTIA

34x37mm
34x37 MODULOA
EGUN BAT 1.680pta/84l.
ASTEBETE 8.320pta/416l.
BI ASTE 14.400pta/720l.
HILABETE 20.200pta/1.010l.

Bidaiak TRINDOKI, S.A.

PORTUGAL OSOA 9 EGUN	38.900 pta.
MAROKKO HIRI INPERIALAK 10 EGUN	47.100 pta.
MAROKKO ATLAS SAHARA 12 EGUN	55.900 pta.
ITALIA 12 EGUN	55.700 pta.
ITALIA BUSA + HOTELA 11 EGUN	64.900 pta.
PARIS HERBEHEREAK 10 EGUN	48.900 pta.
EUROPAKO MUINA ABIOIA + BUSA 12 EGUN	74.600 pta.
INGALATERRA ESKOZIA ABIOIA + BUSA 11 EGUN	76.300 pta.
ESKANDINAVIA ABIOIA 10 EGUN	95.300 pta.
ESKANDINAVIA FIORDOAK ABIOIA 10 EGUN	102.900 pta.
IPAR LURMUTURRA ABIOIA 15 EGUN	143.600 pta.
TURKIA ABIOIA 15 EGUN	94.400 pta.
GREZIA ISTANBUL CAPADOZIA ABIOIA 15 EGUN	94.700 pta.
GREZIA ISTANBUL ABIOIA 15 EGUN	92.700 pta.
KENIA ABIOIA 10 EGUN	167.000 pta.
INDIA NEPAL ABIOIA 20 EGUN	198.400 pta.
INDIA NEPAL ABIOIA 16 EGUN	203.600 pta.
TAILANDIA ABIOIA 13 EGUN	143.700 pta.
SINGAPUR MALAYSIA TAILANDIA ABIOIA 15 EGUN	189.400 pta.
TXINA ABIOIA 21 EGUN	212.000 pta.
TXINA TIBET NEPAL ABIOIA 23 EGUN	293.000 pta.
ESTATU BATUAK KANADA ABIOIA 15 EGUN	157.000 pta.
MEXIKO NEW YORK ABIOIA 15 EGUN	189.000 pta.
MEXIKO GUATEMALA ABIOIA 22 EGUN	229.000 pta.

FRANZISKO GASKUE, 1 / Telf.: 52 45 12 / 20100 ERRENTERIA
ETXAGUE GENERALA, 14 / Telf.: 42 38 84 / 20003 DONOSTIA
URDANETA, 11 Behea / Telf.: 88 72 00 / ORDIZIA
LEGAZPI, 8 Behea / Telf.: 72 37 76 / ZUMARRAGA

Rafael Moneo arkitekto nafarrak egingo du Veneziako zine jauregia

VENEZIA

Rafael Moneo arkitekto nafarrak egindako proiektua aukeratu dute Veneziako zinemaldiko palazioa egiteko lehiaketan. James Stirling britainiarra, Fumihiko Maki japoniarra eta Jean Nouvel frantziarrak aurkeztutako proiektuak alde batera utzi eta Tuterako arkitektoaren lana hobetsi dute. Berezitasun gisa, Veneziara begira duen txapel erako sapai zabal bat du, kanaletan zehar ontziz etorritako bisitariak hartuko dituena.

'Arkitektura biurterokoa-k' 1995ean hamar urte beteko ditu eta ordurako eraikuntzak egiteko asmoa dago. Italiako Turismo eta Ikuskizun Ministeritzak 4250 miloi pezeta (212'5 miloi libera inguru) emango ditu eraikuntza egin dadin, baina beste 800 miloi pezeta ere beharrezkoak izango dira proiektua erabat gorpuzteko. Bi zine areto handi (1.800 eta 1.200 jarleku izango dituzte) prentsa bulegoa eta beste hainbat gela izango ditu. Veneziako Zinemaldia 1995. urtetik aurrera eraikuntza berrian egingo da, 1932an Luigi Quagliata ingeniariak egin aretoaren funtzioak bereganatuz.

LUIS URRUTIKOETXEA VILLALABEITIA
Gatikako Udaleko langilea

GOIAN BEGO

Bilbon hil zen, 1991ko irailaren 9an. Bere lankideek eta Udal arduradunak, gaur arratsaldeko 7.30etan, Gatikako Santa Maria elizan izango diren elizkizunetara deitzen zaituegu.

MUSIKA

• **BERMEO**
Bolero Orkestra Bandaren kontzertua. Lameran 19.30etan.

• **GETXO**
Nazioarteko VII Folk Jaialdia. Tapia eta Leturia, eta Etxamendi eta Larralde. Erromoko Santa Eujenia plazan 21.30etan.

• **HONDARRIBIA**
Txanpa Soinu taldearen kontzertua. Gipuzkoa Plazan 20.30etan.
Peio eta Pantxoaren kantaldia. Gaueko 10etatik aurrera Bentan. **Ondoren, Minxoriak taldearekin dantzaldia,** goizaldeko hirurak arte.

• **LEIOA**
Los Cinco Bilbainos. Udondo auzoan 20.00etan.

ERAKUSKETAK

• **AZPEITIA**
San Agustin Eliza. Hausnarketa Barrokoak. Jesus Mº Corman eta Koldobika Jauregi. Urrira arte.

• **BAIONA**
Ducéré aretoan. Ramiro Arrueren lanak. Irailaren 28a arte.

• **BILBO**
BBKko erakusgela. 'La Rabia' argazkia. Irailaren 21a arte.

• **DONOSTIA**
San Telmo museoa. Dinosauruak. Irailaren 15a arte. **Boresen lanak.** Irailaren 29a arte. **Jon Santosen** pintura erakusketa.
Arteleku. Arsuaga, Azpeitia, Barea del Pozo eta Olaetxearen lanak. Irailaren 20a arte.

• **ELGOIBAR**
Kultur Etxea. Max Pam argazkilari australiarraren obrak. Irailaren 14a arte.

• **FITERO**
Monastegia. Isidro Lopez pintorearen eta Cirbonero Boregan eskultorearen lanak. Irailaren 15a arte.

• **GASTEIZ**
Artelarre. Vicens, Giner Bueno, Basterra, Vidaurre, Segrelles, Campo Cortazar, Vila, Rodes, Fiestras, Mompó-Roca, Garcia Barrena, Rosales, Gurrea, Pagespetit, Apellaniz... artisten lanak. Irailaren 21a arte.

• **LEGAZPI**
Kurtur Etxea. Argazkiak. Irailaren 15a arte.

• **TUTERA**
Castel-Ruiz erakusgela. Angel Pascual-en 'Kililai' obra. Irailaren 13 arte.

• **ORDIZIA**
Barrena Kultur Etxea. Biologi Premia Erakusketa. Eskulturak eta pinturak. Irailaren 20a arte.

• **ZALDUONDO**
Lazarraga Jauregia. Julio Galdós eta Fide López-en portzelanazko panpinak. Irailaren 15a arte.

• **ZARAUTZ**
Sanz Enea. Bienabe Artiaren pinturak. Azken eguna.

• **ZUMAIA**
Foronda Kultur Etxea. Herriko Artisten Erakusketa Iraunkorra. Irailaren 22a arte.
Lanbide Hezkuntza Egoitza Zaharrean. Keixeta, Arantza Santamaria, Ander Hormazuri eta Aitor Baioren lanak. Irailaren 15a arte.

• **ZUMARRAGA**
Itarte Etxea. Santa Isabel 1991ko argazki lehiaketako erakusketa. Irailaren 15a arte.

LEHIAKETAK

• **ANTSOAIN**
'Giza Eskubideak' Pintura Lehiaketa. Nahi duenak hartu dezake parte, baina gaia 'Giza Eskubideak' izan behar da. Lanak bidaltzeko epea irailaren 30an amaitzen da, eta helbide honetara bidali behar dira: 'Gazte Berriak' Udal Patronatoa. Mendikale Karrika. Antsoain. Euskadiko Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatu du, eta Antsoaingo Udalaren laguntza izan du. Babeslea: 'Bianako Printzea' erakundea.

• **ARRIGORRIAGA**
Baporea Haur Liburu IV Lehiaketa. Izena emateko epea azaroaren 15a arte izango da zabalik. Informazio gehiago jakin nahi izanez gero, ☎671 17 54 telefono zenbakira deitu.

• **DEBA**
Tene Mujika Lehiaketa. Euskarazko narrazioak. Gaia librea izango da. Lanak aurkezteko epea: azaroaren 29a. Lekua: Debako Udaletxea. Informazio gehiago bertan.

• **DONOSTIA**
Donostiako Euskal Dantzen Lehiaketa. Irailaren 28an izango da Konstituzio Plazan arratsaldeko 7.30etan. 14 urtez gorako guztiek hartu dezakete parte. Aurrez, zozketa egin ondoren, bikote bakoitzarentzat fandango eta arin arin bat joko da txistu eta trikitixa musikarekin. Izen ematea irailaren 20eko arratsaldeko 7ak arte egin daiteke Donostiako Kultur eta Turismo Ekintza Etxeko bulegoetan. Informazio gehiago bertan edo telefono zenbaki honetan: ☎ 48 11 66.
Bilintx VI Haur eta Gazte Literatur Saria. Bi sail egongo dira, OHO eta BBBko ikasleentzat alegia. Lehiakide bakoitzak nahi hainbat lan aurkez ditzake. Narrazio, ipuin luze edo nobela. Lanak aurkezteko epea irailaren 30ean, eguerdiko hamabietan amaituko da. Helbide honetara bidali behar dira: Bilintx Liburudenda. Fermin Calbeton Kalea. 20003 Donostia. Informazio gehiago liburudendan edo bi telefono zenbaki hauetan: ☎ 42 02 24 edo 42 09 30.

• **EIBAR**
Indalecio Ojanguren IV Argazki Lehiaketa. Lehiaketa horretan parte hartzea nahi duenak Eibarreko Udal Kultur batzordera jo dezala. Lanak aurkezteko epea, urriaren 25ean amaituko da.

• **ERRENTERIA**
Koldo Mitxelena 2. Saria. Jatorrizko lanak euskaraz, gaztelaniaz edo frantsesez aurkez daitezke. Lanak, 50 eta 150 orrialde bitartekoa behar du izan. Lanok Errenteriako Udaletxean, Kultura Departamentua dagoen Kapitan Etxean entregatu behar dira eta, jatorrizko lanak hartzeko data azaroaren 20a izango da. Informazio gehiago jakin nahi izanez gero, ☎ 51 28 00 telefono zenbakira deitu edo udaletxera jo.

• **EUSKAL HERRIA**
Euskaltzaindiak Elizanbururen ohoretan bi sari antolatu ditu. Lanak aurkezteko epea: urriak 31.
Euskal Herriko Literatur Sariak. Euskal Literatura eta liburuen 'Euskadi' sariak eta gazteleraz idatzitako lanak argitaratuz, literatur eta zientzi alorreko sorkuntza-lanentzako laguntzak, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo sailak antolatua. Lanak, Kultura Lurralde Ordezkaritzen bidez aurkeztu beharko dituzte, irailaren 15a baino lehen, hiru aldakitan, orri zenbakituetan eta gutunazal itxiaren kanpokaldean lema jarriz.
Gizarte Zerbitzuak Sustatzeko Euskadi Sariak. Argazkigintza, Prentsa, Irratia, Ikusentzuteko Bideak, Ikerketa eta Instituzio-lana espezialitateak daude. Lanak eta kandidaturak helbide honetara bidali behar dira: Lan eta Gizarte Segurantza Saila, Gizarte-Ongizaterako Zuzendaritza. Wellington Dukearen Kalea 2, 01011 Gasteiz. Lanak aurkezteko epea urriaren 31an, eguerdiko 12etan bukatuko da.

• **GASTEIZ**
'Baporea' Haur Liburu IV Lehiaketarako epea zabalik dago azaroaren 15a arte. Idazlanak euskaraz izan behar du, gaia librea izanez, baina narrazio edo elaberriaren barruan jeneroei dagokienez. Lehenengo sariak milioi bat pezetako (50.000 libera) kopurua du dirutan eta Santa Maria Fundazioak argitaratuko du. Bigarren sarituak, argitarapenaz gain, 200.000 pezeta hartuko ditu. Argibideak izateko nahiz idazlanak bidaltzeko Santa Maria Fundaziora jo behar da, Txako auzoan 3, 48480 Arrigorriaga. ☎ 26 96 46.

• **GETXO**
'Getxo Festatan' II Argazki Lehiaketa. Gaia Getxoko festak izango da. Argazkiak zuri beltzez edo kolorezkoak izan daitezke. Lanak Getxoko Kultur Aretora bidali behar dira, urriaren 5a baino lehen. Informazio gehiago Kultur etxean bertan edo telefono zenbaki hauetan: ☎ 469 93 23 / 460 05 21 / 469 96 04.

• **IRUÑEA**
Literatur Lehiaketa euskaraz Iruñeko udalak antolaturik. Iruñeko Udaletxean aurkeztu behar dira lanok urriaren 27a baino lehen. Informazio gehiago nahi duenak, ☎10 01 50 / 10 01 51 edo udaletxera jo dezala.
Sanferminei buruzko diapositiba eta argazki lehiaketa. Aurkezteko epea: Azaroak 30. Lekua: Iruñeako Udaletxean.
Sanferminei buruzko kazetaritza lehiaketa. Lanak Iruñeko Udaletxean aurkeztu behar dira azaroaren 30a baino lehen.

• **NAFARROA**
Komiki Lehiaketa. Hamabost eta hogeitabost urte bitarteko gazte nafarrek hartu dezakete parte. Lanak euskaraz zein gaztelaniaz izan daitezke, eta bakoitzak hiru gehienez. Lanak aurkezteko epea irailaren 14an amaituko da. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza, Kultura eta Kirol Departamentuak antolatua. Lanak helbide honetara bidali behar dira: Kirol eta Gazte Zerbitzua. Arrieta 25. 31.002 Iruñea.
Artisaugintzako Diseinuaren Nafarroako VIII Lehiaketa. Lanak edozein materialetan egin daitezke, eta gehienez bi lan aurkeztu ahal dira. Lanak irailaren 16, 17 eta 18an aurkeztu behar dira, eguerdiko hamabietatik ordubietara Iruñeako Gotorlekuan. Informazio gehiago Nafarroako Gobernuko Industria, Merkatal eta Turismo Departamentuan.

• **OREXA**
'Orixe'ren omenez IV. Bertso Paper Lehiaketa. Lehiaketa hiru ataletan banatzen da: 14 urte bitartekoentzat, 15 urtetik 20 urte bitartekoentzat eta 21 urtetik gorakoentzat. Gaia librea izango da. Bertso-Paperak bidaltzeko epea urriaren 10ean amaituko da. Helbide honetara bidali behar dira: Orexako Udala. 'Orixe' Bertso Paper Lehiaketa. 20.490 Orexa. Gipuzkoa. Informazio gehiago telefono zenbaki honetan: ☎ 68 20 29 (Goizez).

• **ZARAUTZ**
Xabier Lizardi Haur Ipuin Saria. Jatorriz euskaraz idatziak izan behar dira eta gaia librea da. Partaide bakoitzak lan bat edo gehiago aurkeztu ditzake. Lanak aurkezteko epea gaur amaitzen da, eguerdiko ordubatean. Helbide honetara bidali behar dira: Zarautzko Udaletxea. Euskara Zerbitzua. Zarautz. 'Xabier Lizardi' Literatur lehiaketarako dela adieraziz.



NIKOLAS Lekuonaren pintura hau, Ordiziako Barrena Kultur Etxean daukazue ikusgai. Lan honekin batera, beste hemeretzi artisten eskulturak eta pinturak ikus ditzakezue, esaterako Marisol eta Rakel Legorburu, eta Olga Madina ordiziarrenak. 'Biologi Premia' izeneko erakusketa hau irailaren 20a arte egongo da zabalik.

IHARDUNALDIAK

• **BILBO**
Loiolako Inazio eta bere garaia Nazioarteko Kongresua. Irailaren 13a arte luzatuko da eta zenbait hitzaldi izango dira. Juan Larrea Aretoan 18.30etan.
Ikastaroak Iralako Euskal Txokoak antolatua: euskal dantza (hasiera maila eta sakontze maila), txalaparta, masajea eta sukaldaritza. Ikastarook urrian hasiko dira eta informazio gehiago jakin nahi izanez gero, ☎421 16 15 telefono zenbakira deitu.

• **DONOSTIA**
Juan Carlos Savaterren Pintura tailerra. Iraupena: Urriaren 1etik 31a arte. Inskripzio eguna irailaren 20a arte Artelekun. Informazio gehiago nahi izanez gero Artelekura jo.
Esperientzia modernoari buruzko mintegia. Iraupena: Irailaren 25etik 27ra. Inskripzio epea: Irailak 19. Informazio gehiago Artelekun.
Baratzagintza Berotegietan, 9. Ikastaroa. 18 urte beteak dituzten neska-mutiletzat antolatua dago eta ikasle kopurua 25ekoa izango da. Arteaga-Zabalegi fundazioak antolatu du eta izena emateko epea irailaren 20a arte izango da zabalik. Helbidea: Arteaga-Zabalegi fundazioa, 526 posta kutxa, 20080 Donostia.

ANTZERKIA

• **BARAKALDO**
Kale Antzerkiaren III Astea. Clowart konpainiak 'Menu de Akziones' lana antzeztuko du. Herriko plazan 22.30etan.

• **BILBO**
Vol Ras konpainiak 'Insolit' lana antzeztuko du. Arriaga Antzokian irailaren 15a arte.

• **HONDARRIBIA**
Haur Jaialdia. Bihar txotxongilo taldeak 'Bizi Alai' ikuskizuna antzeztuko du. Bestalde Kikis, Kakas eta Kirriki pailazoen emanaldia. Plazan 17.30etan.

• **IRUÑEA**
Julia Gutierrez Cabaren konpainiak 'Feliz Aniversario' lana antzeztuko du. 20.00 eta 23.00etan.

• **SANTURTZI**
Geroa taldeak 'Hertzaina al pil-pil' lana antzeztuko du. Plazan 22.30etan.

ZINEMA-BIDEOA

• **BILBO**
«El arte del bideo» seriearen zenbait kapitulu. Arte Ederretako Museoan 17.00etan.

• **DONOSTIA**
Zine Palestinarra. Irailaren 13a arte Okendo Kultur Etxean.

• **ORDIZIA**
«Arka galduaren bila». Barrena Kultur Etxean 18.00etan.

• **ZUMAIA**
Marrazki bizidunen filma baten emanaldia. Foronda Kultur Etxean 19.30etan.

BESTELAKOAK

• **HONDARRIBIA**
Euskal Jantzi Tradizionalak Erakusketa. Zuloaga Kultur Etxean irailaren 15a arte.
Arrantzaleen Eguna. Bertsolariak, trikitilariak... 13.30etatik aurrera Bentan.

• **UROLALDEA**
Urolaldeko Ikastolen Sorreraren 25. urteurrenaren festaburua irailaren 22an ospatuko da. Egun horretan izango den herri afarirako txartelak dagoeneko salgai daude 2.000 pezetatan, Azkoitiko Aranbarri drogeria eta Iratzar liburudendan, Azpeitiko Eguzkitza kafetegia eta Vda de Orbegozo eta Belaetxe dendetan, eta Zestoako Arrizabalaga dendan.

KARTELDEGIA

ARABA

• GASTEIZ

Azul 1. «El silencio de los corderos». Zuz: Jonnhatan Demme. Akt: Jodie Foster / 17.30 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.
Azul 2. «Los imnortales II». Zuz: Sean Connery, Crhistopher Lambert / 17.30 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.
Gasteiz. «Colmillo blanco» / 17.30 - 19.45 - 22.00.
Samaniego 1. «Robin Hood, principe de los ladrones» / 17.00 - 19.45 - 22.30.
Samaniego 2. «Un buen policia» / 17.00 - 19.45 - 22.30.
Samaniego 3. «Agárralo como puedas 2 1/2» / 17.00. «Silencio de cristal» / 19.00 - 21.00 - 23.00.
Samaniego 4. «Buscando justicia» / 17.00 - 19.45 - 22.30.
Mikeldia. «Le llaman Bodhi». Akt: Patrick Swayze, Kenue Reeves / 17.30 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.
Mikeldiak. «Babar en la selva» / 17.00 - 18.45. «Que asco de vida». Akt: Mel Brooks / 20.15 - 22.30.
Mikeldiak. «El gran halcón». Akt: Bruce Willis, Andy McDowell / 17.30 - 20.15 - 22.30. 7 gorak.
Mikeldiak. «El silencio de los corderos». Zuz: Jonnhatan Demme. Akt: Jodie Foster / 17.30 - 20.15 - 22.30. 18 gorak.
Mikeldiak. «Regreso al Lago Azul». Akt: Mila Javovich / 17.15 - 20.15 - 22.30.
Mikeldiak. «Los inmortales II». Akt: Christopher Lambert, Sean Connery / 17.30 - 20.30 - 22.30. 13 gorak.

BIZKAIA

• BILBO

Astoria. «El gran halcón». Akt: Bruce Willis / 20.00 - 22.15. 13 gorak.
Avenida 1. «¡Qué asco de vida!». Zuz: Mel Brooks. Akt: Mel Brooks / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.00.
Avenida 2. «Los inmortales II». Akt: Christopher Lamber, Sean Connery / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.00. 13 gorak.
Avenida 3. «Agarralo como puedas 2 1/2». Zuz: David Zucker / 11.15 - 17.30. «La viuda del capitan Estrada». Zuz: Jose Luis Cuerda / 19.45 - 22.00. 13 gorak.
Avenida 4. «Colmillo blanco». Zuz: Randal Kleiser / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.00. 13 gorak.
Avenida 5. «El gran halcón». Akt: Bruce Willis / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.00. 13 gorak.
Avenida 6. «Buscando justicia». Akt: Steven Seagal / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.00. 18 gorak.
Ayala. Antzerkia 20.00etan.
Capitol. Ez dago emankizunik.
Coliseo Albia. Ez dago emankizunik.
Consulado. «Colmillo blanco». Zuz: Randal Kleiser / 20.00 - 22.15.
Campos Eliseos. Ez dago emankizunik.
Gran Vía. «El silencio de los corderos». Akt: Jodie Foster, Anthony Hopkins / 17.45 - 20.00 - 22.15. (Etenik gabeko emankizuna). 18 gorak.
Ideal 1. «Robin Hood, principe de los ladrones». Akt: Kevin Costner / 17.00 - 19.45 - 22.30.
Ideal 2. «El gran halcón». Akt: Bruce Willis / 17.30 - 20.00 - 22.30. 7 gorak.
Ideal 3. «Buscando justicia». Akt: Steven Segal / 17.30 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.
Ideal 4. «FX2 ilusiones mortales». Akt: Bryan Brown / 17.30 - 20.00 - 22.30. 13 gorak.
Ideal 5. «Colmillo blanco». Akt: Ethan Hawke / 17.15 - 20.00 - 22.30.
Ideal 6. «Agárralo como puedas 2 1/2». Zuz: Jerry Zucker / 17.30 - 20.00 - 22.30.
Ideal 7. «La viuda del capitan estrada». Zuz: Jose Luis Cuerda / 17.30 - 20.00 - 22.30. 13 gorak.
Ideal 8. «Todo por la pasta». Akt: María Barranco / 17.30 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.
Mikeldiak. «Los inmortales II» / 16.30 - 18.30 - 20.30 - 22.30. 13 gorak.
Mikeldiak. «Que asco de vida». Akt: Mel Brooks / 17.30 - 20.00 - 22.30.
Mikeldiak. «Las tortugas Ninja» / 16.30 - 18.45. «Le llaman Bodhi». Akt: Patrick Swayze, Kenue Reeves / 20.00 - 22.30. 18 gorak.
Multi 1. «Regreso al Lago Azul». Akt: Mila Jovovic / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.30. 13 gorak.
Multi 2. «Rocketeer». Zuz: Joe Jhonston / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.30.
Multi 3. «Atraco a falda armada» / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.30.
Multi 4. «Zandalee». Akt: Nicolas Cage / 11.15 - 17.30 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.
Multi 5. «Un buen policia» Akt: Michael Keaton / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.30. 13 gorak.
Multi 6. «Bésame antes de morir». Akt: Matt Dilon / 11.15 - 17.30 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.
Multi 7. «Bailando con lobos». Zuz: Kevin Costner. Akt: Kevin Costner / 17.15 - 20.30.
Multi 8. «Texasville». Zuz: Peter Bogdanovich / 11.15 - 17.30 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.
Vistarama. «El silencio de los corderos». Akt: Jodie Foster, Anthony Hopkins / 17.45 - 20.00 - 22.15. (Etenik gabeko emankizuna). 18 gorak.
X - 1 Aretoa. «Mystress» / 11.30 - 15.30 - 16.40 - 17.50 - 19.00 - 20.10. 18 gorak.
X - 2 Aretoa. «Virgen y amante» / 11.30 - 15.15 - 16.25 - 17.35 - 18.45 - 19.55. 18 gorak.

• ALGORTA

Gurea. «Solos con nuestro tio» / 17.30 - 19.30.

• AREETA

Gran Cinema. «Zandalee» / 17.30 - 22.00. 13 gorak.

• BARAKALDO

Duplex A. «Colmillo blanco». Akt: Ethan Hawk / 17.15. (Etenik gebeko emankizuna).
Duplex B. «El gran halcón». Akt: Bruce Willis / 17.30. (Etenik gabeko emankizuna).

• DURANGO

Kurutziaga. Ez dago emankizunik.
Zugaza. «Robin Hood, principe de los ladrones» / 19.00. 18 gorak.

• ELORRIO

Arriola. Ez dago emankizunik.

• GERNIKA

Gernika. Ez dago emankizuna.

• LEKEITIO

Antzoki. Ez dago emankizunik.

• ONDARROA

Alameda. Ez dago emankizunik.
Bide Onera. Ez dago emankizunik.

• SESTAO

Amezaga. «El jovencito Einstein» / 17.00 - 19.00.

• ZORNOTZA

Udal zinema. Ez dago emankizunik.



«BABAR en la selva» haurrentzako filmea Gasteizen dago ikusgai. Filme hori, Jean eta Laurent Brunhoff-ek sortutako pertsonaiekin oinarritua dago. Protagonista nagusia Cetesville-ko erregea den Babar elefantea da eta, Elefantilandiak garai batean zer-nolako oztopoei egin behar izan zien aurre kontatuko die bere seme-alabei. Filme horren animatzaile zuzendaria John Laurence da.

GIPUZKOA

• DONOSTIA

Amaia. «Tortugas Ninja II» / 17.15 - 19.30. «Como ser mujer y no morir en el intento» / 22.30. 13 gorak.
Astoria 1. «El gran halcón». Zuz: Michael Lehmann. Akt: Bruce Willis, Andie MacDowell / 17.30 - 20.00 - 22.45. 7 gorak.
Astoria 2. «Agárralo como puedas 2 1/2». Zuz: David Zucker. Akt: Leslie Nielsen, Priscilla Presley / 17.30 - 20.00 - 22.45.
Astoria 3. «El silencio de los corderos». Zuz: Jonathan Demme. Akt: Jodie Foster, Anthony Hopkins / 17.00 - 19.30 - 22.15. 18 gorak.
Astoria 4. «Un buen policia». Zuz: Heywood Gould. Akt: Michael Keaton, Rene Russo / 17.15 - 19.45 - 22.30. 13 gorak.
Astoria 5. «Regreso al Lago Azul». Zuz: William A. Graham. Akt: Mila Jovovich, Brian Krause / 17.15 - 19.45 - 22.30.
Astoria 6. «FX 2 ilusiones mortales». Zuz: Richard Franklin. Akt: Bryan Brown, Brian Dennehy / 17.15 - 19.45 - 22.30. 13 gorak.
Astoria 7. «Bésame antes de morir». Zuz: James Dearden. Akt: Matt Dillon, Sean Young / 17.30 - 20.00 - 22.45. 18 gorak.
Petit Casino 1. «Robin Hood, principe de los ladrones». Zuz: Kevin Reynolds. Akt: Kevin Costner, Morgan Freeman / 17.00 - 19.45 - 22.30.
Petit Casino 2. «Buscando justicia». Zuz: John Flynn. Akt: Michael Caine, Roger More / 17.00 - 19.00 - 21.00 - 23.00. 18 gorak.
Petit Casino 3. «La viuda del capitán Estrada». Zuz: J.L. Cuerda. Akt: Ana Galiena, Sergi Mateu / 17.00 - 19.00 - 21.00 - 23.00. 18 gorak.
Principe. «Pluto, perro pastor» eta «Colmillo blanco» / 17.15 - 19.45 - 22.30.
